

EMEA

Xabier
Amuriza



euskal literatura-elaberria

ELKAR



5

XABIER AMURIZA, 42 urte,
Bizkaiko Etxanoko Torreburu baserrikoa.
Apaiz izana Gizaburuaga eta Amoroto
izeneko herrietan. Hiru bider preso egona,
guztira zazpi urte, ia denak Zamoran.
Oraintsu berriro epaitua Madrilen,
erregeen etorrerako gorabeherengatik. Bi
bider Euskal Herriko bertsolari
txapelduna, Zornotzan bizi da, Arantza
Plazarekin ezkondua.

Lehen argitaraldia: 1985, uztaila

2. argitaraldia: 1994, azaroa

© Xabier Amuriza

© ELKAR, S.A. - Donostia, 1985

L.G. NA-1.784-1994

ISBN 84-7529-263-1

ELKAR S.A. Argitaletxea

Igarabidea, 88 bis

Tel 310267 - Fax 310216


20009 Donostia

Pannecau, 52 - Tel 59254390

64100 Baiona

EMEA

*Xabier
Amuriza*



euskal literatura

KONTUAN IZANIK: Alderdi fiskalak defendaturiko salapenak guztiz baitetsiak izan direla.

KONTUAN IZANIK: Alderdi defendatzaileak ez duela salapenik zalantzan jartzeko frogarik aurkeztu.

KONTUAN IZANIK: Hilketak hotz hotzean eta jakin jakinean burutuak izan zirela.

KONTUAN IZANIK: Salatuak berak, xehetasun azal batzuk gora behera, salapenaren edukia oso osorik aitortu eta beregaindu duela.

GOI HAUZITEGI HONEK:

Osatzaile guztien ahobatasun osoz
LEA BORDALEGI ORREAGA
honako zigor honetara
kondenatzea erabakitzen du:

HOGETA HAMAR URTETAKO presondegia nagusia eta hamar milioitako ordainketa VAN GOGHen hilketarengatik, eta BESTE HOGETA HAMAR URTETAKO presondegia nagusia eta hamar milioitako ordainketa Senekaren hilketarengatik.

Leak epaiaren zartadatik begiak irekitzean, bi hilotz ikusten zituen aurrean, gauerdiko ilargi laurdenaren argitasun mutilatuan apenas berezten zirenak. Hik ikusten al dituk, Txintxo, esan zion txakurrari. Nik ez diat hilengana makurtzeko gogorik. Ilargiak ere ia hutsik gertatu behar. Noan linterna bila. Txakurra atzetik segitzen hasi zitzaion eta Leak geldi hor, agindu zion, hik zain hitzak hilak, orain bakarrik ere defendatuko nauk. Egia esan, hilek ez zuten zaintzaile-rik behar, bizien artekorik behintzak, baina bai, hik zaindu hilak, piztu balitez ere.

Behin hartara ezkerro, hark ez zeukan atzerarik eta eskerak ez zeukala, bestela berriro zizpari heldu beharko baitzion, baina linterna eta guzti ere ezin zituen hilak osorik eta batera ikusi. Elkarren kontran jarri zituen, batari lehenbizi besotik eta gero oinetatik tiratu eta bestearen ondora arrastaturik. Hala ere linterna herdoitu hark ez zuen zirkulu txikia besterik argitzen. Gehiago harrapatzeko, urrundu egin behar, baina orduan argitasun motela eta horretarako ilar-gia ere han zegoen alperrik. Berriro hurreratu eta aurpegie-tara enfokatu zien, bi buruak elkar jotzen jarririk. Hala bai, buruak hurretik ere ondo hartzen zituen linternak eta bikiak iruditu zitzaizkion Leari. Heriotzak denak berdintzen dituela

ez duk gezurra, Txintxo. Txakurra, zerbaiterako agindua hartu balu bezala, odola mihizkatzen hasi zen. Hori ez duk edatekoa! Txakurra begira begira geratu zitzaion, zer diona hik esanez. Hilotzen gorputzetan behera enfokatu zuen, astiro astiro eta geldiduneak eginez, txakurrak ere argiari segitzen ziola. Ilargiak ez zeukan gau hartan estimazio haundirik, baina ondo hago hagoen lekuan, lekuko inpartzialak ere behar izaten baitira. Leak hori pentsatuz batera, alaraoak entzun zituen, hil aurreko auhenak bezalakoak. Txintxok zaunka minberaz erantzun zien, baina isi!, agindu zion Leak. Autopsiari errespeto gehiago! Hemen zeukak inpaktua honek. Ea besteak. Txakurrak hilotzaren galtzarbera eramane zuen muturra. Zulo ederra, San Antonioren osasunerako ere. Hori irteerakoa baldin bada, nolakoa ote dik sarrerakoa? Hanke-tara enfokatu zuen eta batarenak bestearenak baino luzeagoak ziren. Buruetara argi egin zuen eta ez ba, hauek parean zeudek. Zilbor ingurua ere paretsu zeukaten. Bata hankamotza zela esan nahi dik horrek. Aurretik ez zuen nonbait horrelako gauzetaz ohartzeko modurik izan. Hil aurreko auheni Txintxok ez zien oraingoan jaramonik egiten, baina ez al ditugu hilotzak osorik eta batera ikusi behar? Galtzu azao baten bila joan zen Lea. Oraingoan ez zion txakurrari segitzerik debekatu, hilek apenas elkar jaten baitute. Azao su-tuak dena argitzen zuen, baita berotu ere, baina bi hilotzek ez zuten zirkinik egiten, aurpegiak gorritu besterik. Hau ez duk txerri erretzea, Txintxo. Linternaz ematen zuen ainako alderik ez zeukaten luze-laburrean, baina ez gaituk hilak neurtzen hasiko. Ez, Txintxo, esan diat hauei ez zaiela triparik atera behar, hori animalia hautatuei bakarrik egiten zaiek, hauek osorik ehorztekoak dituk. Zuziari bueltak ematean, hariztian zehar argi-geriza hondogabeek elkar irensten zuten gau infinituaren kontra, hil aurreko auhenak espazio mugagabeen desegiten ziren bezala. Azaoa alperrik erretzen ari naitzela uste diat. Bi hilotzei azkenengo aldiz argi parrastada bat bota eta, goazen, Txintxo. Alarao horiek geuretzat dituk.

Han zegoen gizajoa, esteak eta katea arrastatu ezinez. Mugitzen ahalegintzen zenean, alaraoak irteten zitzaizkion eta Txintxok ere laguntzen zion, alaraoa alegia, eta Leak ilargiari begiratzen zion, girten gabeko igitaia, zarrastada gupidagabéz hainbeste animalia deserraitua eta azkenean Bordalegiko atarian izan den txakurrik onena ere bai, heure aita, Txintxo, heure aita duk hori, baina hik ere ez daukan errurrik, esan zion ilargiari, honelako gauen lekuko jarri hindutelako. Txakur haundia zen Bordalegiko atarian lotuta egoten zen hura eta azkenean hiltzeko askatu behar, Leak samako katea kendu zionean. Heure aita, Txintxo, heure aita duk hori, ni salbatu nindukan, baina aita galdu huen. Leak azaoa itzali eta linterna piztu zuen, txakurraren esteei berotasunak oinaze kriminala ezartzen baitzien, eta zer egin? Bertondotik belarripean zehar ebakidura latza zeukan samako katea jo arte. Hau bizirik ateratzeko, jainkoa izan behar nitek, Txintxo, baina hark ere ez dik bera ainakorik onartzen eta biderik laburrena hartu beharko diagu. Erabakitzea kostatu zitzaion, bai, Leari, baina txakurra errematatzea pentsatu zuen, alperrik sufritzen eduki gabe. Hik ere ez diat uste heure aita horrela ikusteko gogorik izango dukanik. Oraindik polbora usaina zerion zizpa kargatu eta hur hurretik tiraturik, burua txikitu zion. Bere esteen eta garaunen gainean iraulkatu zen, baina Bordalegiko atariko txakurraren oinazeak hantxe amaitu ziren, Leak bigarren kartutxoa ilargiari tiratzen ziola. Osorik egon balitz, joko nian, baina ilargiak ez zuen takadarik erakutsi eta hobe hala, esan zion Txintxori, lekuko inpartzialak ere behar izaten baitira.

Leak bigarren aldiz begiak irekitzean, abokatu defendatzailea epai testuaren horriak batzen ari da, espetxeko mintzagelako leihatila zikinaz beste aldean.

— Zenbat esan duzu? —galdetzen du Leak aproposko asuntasan trufakorrez.

— Hogeitamar urte batenak eta beste hogeitamar bestea-
renak —dio abokatuak.

— Zenbat diru esan nahi nuen.

— Hamar milioi batetik eta beste hamar bestetik.

— Horiek guztiak osatzeko, urte gutxitxo eman didate
aukeran.

— Milioiena gutxiena duzu, Lea. Urteena da hemen
latzena.

— Pasatuko dira.

— Ez duzu denak pasatu beharrik izango.

— Nahiago nuke hala balitz. Sasoi ederrekoa agertuko
naiz beste mundura.

— Ez dezagun etsi, Lea.

— Ni ez nago etsita. Bordalegiko historian haundiagorik
gertatu da.

— Pozten naiz gogo horrekin ikusteaz, baina gauzak ez
zaizkigu ondoegi irten, zeuk ere ez duzu ahalegin askorik ipini
baina.

— Ez izan kezkarik. Neu naiz hemen egon behar duena.

— Oraindik urtebete besterik ez daramazu.

— Pasatuko dira besteak ere. Denborak nola edo hala
pasatu beharra dauka, azpitik edo gainetik.

— Adore horrek iraun dezaizula. Zer moduz espetxeko
bizimodua?

— Bordalegin hobeto, baina hemen ere bizi. Beharko, urte
guzti horiek bete behar badira.

— Lukainka batzuk eta okaranak ekarri dizkizut. Oka-
ranak Bordalegikoak dira.

— Eskerrikasko. Lehengo paper mordoa baino gehiago
estimatzen dut hori.

— Etorriko naiz.

— Ez daukazu etortzen ibili beharrik, lehen ere nik deitu
gabe etorri zara baina.

— Norbaitek defendatu behar zintuen, ezta?

— Bordalegin ikasiak gaude inor gabe defendatzen.

— Zure gogo hori bazen, ez daukat zorrik, nire defentsak ez baitu ezertarako balio izan, neure burua barregarri uzteko besterik.

— Horixe izan dadila alperrik egiten duzun azkenengo lana.

— Tori epaiaren kopia.

— Nik ez dut horrelako paperik behar. Komunerakoa bertan ere saltzen dute.

Abokatuak alde egin eta gero ere, Leak mintzagelan segitzen du, bakarrik geratzeko garaia bazela eta. Hura toki berria izan, edo desberdina behintzat. Zelda zaharrearantz egoteko badu nahiko denbora hogeitamarreko pare hura laurdenera jaitsita ere.

— Zer egiten dun hor? —hots egiten dio zakarki Akelarretik etorria izateko uniforme itxurosoagoa besterik behar ez duen preso zainak.

Lea badoa eta haren hitzik ez duzue gehiago entzungo.

Gure aitonak zioena egia baldin bada, Bordalegik zortzi belaunaldi ditu, katearen azken maila ni naizela. Gure aitonak esaten zuen bere aitonari entzuna ziola nola hark halaber birraitonari entzuna zion honen aita-osabek sortu zutela Bordalegi. Gure aitak idazkari, epaile eta apaiz guztiak airean erabili zituen, Bordalegiko jatorria goitik beheraino osatu arte.

— Lea! —esaten zidan—. Bordalegik hiregan amaitu behar al din?

Zenbat aldiz kontatu ote zidan aitak Bordalegiko historia! Gero eta tristeago zihoan gaizoa, bere azkena ere hurbiltzen ikusten baitzuen. Gure aitak bizia maite zuen, inork maite izatekotan, eta azkenean ere hiltzeko penak eramanez zuela uste dut. Bordalegi lehenago artzain borda omen zen. Bi anaiak neguan alde honetara biltzen zuten artaldea, hain egutera gordea eta zabala izan ere hau.

— Lurralde honetatik inora mugitu gabe bizitzerik ez ote legokek? —esan zion behin anaia batak besteari.

— Etxea bertan egitea esan nahi al duk?

— Lur lantzarako ere sail ederrak dituk hauek. Ez gaituk beti joan-etorriko hegaztien moduan ibiliko.

Halaxe, urte batzuren buruan, bordaren beraren orubean etxea egin zuten eta Bordalegi jarri zioten izena. Orain Bordalegik soro lur haundiak ditu inguruan, baina basoak luberritzea ez da urte gutxi kostatu, Bordalegiko historia guztia alegia, belaunaldi guztietan egin izan baitira luberriak, azkenengo soroa neuk egin nuelarik. Bi artzain haiek Bordalegin kokatu zirenean, norbaitek ezkontzea ere pentsatu beharko zuela esaten zuten. Batzutan hi ez ni ez eta beste batzutan hi bai ni ere bai aritzen ziren eta azkenean nork lehenen andregaiia topatu, huraxe ezkontzeko tratua egin zuten.

— Badiat laguna —esan zuen behin Perranek.

— Nor? —galdetu zuen Prudenek.

— Urdanetako alaba.

— Neuk ere huraxe pentsatua nian.

Bi anaiek burua makurtu zuten. Luzaro isilik egon ondoren, Perranek esan zuen:

— Historia txarren baten hasieran gaudela ematen zidak.

— Berak nahi duena hauta dezala eta egina —erantzun zuen Prudenek.

Hori esan zuena anaia gaztea zen, beharbada neskak bera hautatuko zuelakoan, baina Urdanetako alaba bakarrak, ederrean ere bakarra bera, zaharragoari eman zion hitza, honek ere gutxien uste zuela. Urdanetako alaba Bordalegira ezkondu zenean, auzo guztiak eta herritarrak ere ia denak pasatu ziren handik, gazteak batez ere.

— Isi! Isilik mesedez —hots egiten du Kirriñok—. Isi denok! —orroegiten du, botilaz mahaia joka. Denak berri-keta puntutik gora daudela, isiltasuna eskatzeko ez da une

aproposa izaten, baina Kirriño hemengo ehundaka lagunok baino burugogorragoa da eta pentsatu baldin badu, berea egin beharko du—. Isilik mesedez, botilak buruetara jaurtikitzen hasiko ez banaiz. Issss! entzuten da mahaitik mahaira, zabalduz doan haizearen barrea bezala. Denok isilduta koan —bai dela harrigarria honelako jendetzaren isiltasuna!—, Kirriño ere isiltzen da, aurrera eta alboetara lasai begira eta txokorrari erruki gabe tiraka. Halako batean segitzen du:

— Bertsorik botatzeko gauza banintz, haundiena orainxe botako nuke, baina hizketan esan beharko dizuet. Bordalegin lehenago ere ezta haundiak izanak dira, baina ez honenbestekorik. Hirurogei erraldeko zekorra jaten ari gara eta hura amaitzen denerako, beste bat geratu da ondoan. Ez dezala hark ere deskuidatuta utzi dugunik pentsa. Hauexek dira Bordalegiko eztairik haundienak. Gaur ezkontzen dira... —airean uzten gaitu aluak—, gaur ezkontzen dira... —zer esan behar ote du, hemen ez baita inor ezkontzen—, ezkontzen dira... Lea eta Askatasuna!, burutzen du noizbait eta hau algara eta eskandalua sortu dena, batzuk barreka, besteak goraka eta azkenean denok txaloka. Kirriñok nahikoa egin arte uzten digu. Berez berez isiltzen gara. Kirriñok, aldamenean duen Lea seinalatuz, berriro kantatzen du, segidan baina pausatuki:

— Gaur ezkontzen dira Lea eta Askatasuna. Gora gure ezkonberriak!

— Goraaaa! —denok.

— Bi emereren ezkontza? —hots egiten du Txankanek.

— Ja ja ja ja! —denok.

— Nork esan dik hiri Askatasuna emea dela? —Kirriñok.

— Ja, ja ja ja jajai! —denok.

— Isilik! —Kirriñok—. Hau ez duk barre egitekoa. Nik uste nian Askatasuna arra zela gaur, baina emea baldin bada, denontzat hobe. Zerbaitegatik esan diat Bordalegiko eztairik haundienak gaur direla. Gora Lea eta Askatasuna!

— Zuen baimenez, jaun agurgarriak. Nik ez daukat Kirriñok bezalako gatzik, zuen belarri bikainak Learen aldeko gizaberatasunez goza erazteko. Nik ez daukat dohairik, gehien onartu behar nindukeenak ukatua naizela, arrazoiak harripeatatik ateratzeko. Ni ez naiz Jainkoa, behar duenaren beraren gogoz kontra miraririk egiteko. Dakizuen bezala eta hauzitegi beneragarri honetan salatuak berak berretsia duen bezala, defendatuaren ukoz defentsa egitera noa. Sekula ez nauzue honelako kenkan aurkitu, baina zuzentasuna gizakien duintasuna baino gurenagoa denez gero, zuen onberatasunari nik defendatuaren errugabetasunaren erraiak agertzen ausartzen naiz, zuen zuzen sen ongi frogatuak, kontingentzia bitxi hauen gaintik, arrazoiaren iturburura jotzen jakingo duelakoan. Kirriñok hain gizakorki eta beste lekuko guztiek hain sakonki testifikatu dutenez, Leak ez du sekula inorenganako odol grinarik erakutsi. Ez naiz hasiko hemen tatxarik gabeko auzoen eta herritarren zerrenda luze horren lekukotza harrigarria errepikatzen. (Hemen gaude lekukoak, auzo eta herritar. Aretoa bete beterik dago. Lea erdi erdian zutik, pixka bat burumakur, eskuak altzoan behera giltzaturik. Atzez ikusten dugu eta bere parean eta han goian hauzitegia, itzelezko mahai distiratsuaren atzean eseria. Hurretik ez dakigu, baina hemendik zelebren ematen dute, sorbaldez gora doi doi ageri baitira, mahai ertzak lepoa mozturik). Gauza bat dago argi. Lea apenas inoratzen zen Bordalegitik, behar beharreko eginkizunetara izan ezik. Hura bere etxe aldean bizi zen, lana besterik egiten ez zuela. Gizakume haiek zertara joan ziren Bordalegira, hiritik eta gauez, ezagunak ere izan gabe, emakume bakarra bizi zen etxe bakar hartara? Zergatik hain basaki sarraskitu zuten katean zegoen zakur gaizoa? Zergatik eta zer sartu zioten injekzio hartan? (Injekzioa esan al dik? Hemendik ez da ondo entzuten. Zer-

bait esaten zen herrian. Nork pentsatu behar zian Lea hor ikusterik? Gauden isilik). Zergatik bizirik salbatu zenak ezin izan du hainbeste kontraesan argitu? Herriko jaietara omen zetozen. Sekula inork ez zituen Basagorri ikusi. Eta Bordalegitik? Galduta omen zetozen. Nork sinets lezake hori, Bordalegi non dagoen jakinik, mendi mendian, ez bide ez ezer, Basagorri berriz errepide nagusiaren ondoan eta ederki seinaturik? (Donostira joateko Aralarren galtzea baino zailagoa duk hori. Nortzuk dituk hor sartzen ari direnak?) Eta azkenik, epaile agurgarriak, zergatik ez du bizirik dagoenak argitzen ea zer egin zuten Bordalegiko sukaldean bi ordu luze haietan? Solasean beste gabe? Lekuko guztiek aitortu dutenez, Learekin ez dago horrelakorik pentsatzerik, eta gutxiago ezezagunak izanik eta gauez gainera. (Gure herrian eskolaurrekoek ere badakite Bordalegin ez dela aterik jo behar, aurretik nor den ondo esan gabe. Bai kokotza daukana ezkerreko epaileak).

Baina defentsa honek dakarren frogarik haundiena hau xe duzue, jaun goragarriak, sekula gertatu ez zaidana noski eta beroien esperientzia luzean ere nekez antzekorik ezagutuko zutena. Nire defendatuak ez du defendatzailerik nahi. (Fiskalak txiklea jaten ari dela ematen dik. Atzeko horiek nortzuk ditun? Hemen gero eta ezezagun gehiago datorkigu). Hor duzue epaiketa guztian zutik, epaiburuak esertzeko agindu arren. Ez du eseri nahi eta ez du defentsarik ere nahi. Zer egin behar dugu hemen? Bazen Basagorri eskale bat egunean ate bakarra besterik jotzen ez zuena eta asteazkenak eta ostiralak beti jai egiten zituena. Bazuen zaldi tximaz egindako zorro bat...

— Letradun jauna, ez da egoki. Lot zakizkio gagozkionari. Hauzitegi honi ez zaio iruditzen darabilgun kasuari ipuinik dagokionik.

— Zuen barkamenez, jaun agurgarriak. Zure baimenez epaiburu gurgarria. (Zer esan dik epaiburuak? Hemendik ez dun ezer entzuten. Nola entzungo diagu, ba, hortz artean hitz

egiten baitute? Lea gerriz gora areto guztiaren gainetik ikusten dugu. Lehen baino makurrago dauka burua, begiekin hilibia zulatzen ari balitz bezala. Bozgorailu alu bat jartzeko ere ez dituk gauza. Bozgorailua?)

— Txilin txintxin! Isilik aretoan mesedez! Beste behin oharterazi beharrean aurkitzen banaiz, aretoa hutserazteko aginduko dut. Aurrera defentsa. (Oraingoan entzuteko moduan hitz egin dik, ba. Issss!)

— Zuen baimenez, jaunak, eta beroien eramapenaz abusatzea bada ere, utz bezaidate ipuinaren amaiera behintzat ematen. Eskaleak ez zuen inoren borondaterik onartzen eta azkenean zoroetxean sartu zuten, hilko ez bazen, eta hara hantxe ematen ziotena bakarrik hartzen zuela eta halaxe bizi izan zen urte luzeetan.

— Letradun jauna, hauzitegi honek ez luke pentsatu nahi zoroetxea presondegiarekin konparatzen ari denik defentsa, baina hala balitz, jakin beza areto honek ez lezakeela jasan, legedi penaleko... defentsak berak ondo jakin behar lukeen artikulua arabera. Aurrera! (Agure horri zerak eskatuko ziona sua. Iso, hi! Hemen ez zegok erretzerik. Kaka-zaharra orduan).

— Zuen barkamenez, jaun agurgarriak, zuen baimenez aurrera jorik, Jainkoak bere ahalguztiarekin ere ezin badu berak kondenaturik ifernutik atera, nola nahi duzue irteterik nahi ez duena ateratzea nik, Jainkoaren izaki ziztrina besterik ez nauzuen honek? Baina ertzak elkar jotzen baitaude eta indarrik haundiena ahulean baitago, nola ez beroien adimendu zabalean sartu bere buruaren defentsarik nahi ez duena baino buru eriagorik ez dagoela? Ez al dute beroiek ikusten norberetasunaren defentsa ere zapuzten duenak senik funtsezkoenak lokaturik dituela, haur babesgabea dela, edo... zerbaitegatik utzi dugu lehengo eskalea zoroetxean, horixe hitz batez? Defentsa honek gorago ere zerbaitegatik nabarmendu du injekzio haren kontua. Geroztik nire defendatua-
ren menak ez daude beren onean, baina zertarako pentsatu

hutsez ere hain mingarria den zerik izendatu? Hauzitegiko epailekide agurgarriok, beroien zuzengintza makurgaitzaren berri ondo jakinik, defentsa honek ez luke sinestu nahi, egiterik frogatuenak izanda ere, bere buruaren giltzik oinarrizkoenak galduak dituen izaki gaizo baten hondamenaren erantzukizunik bizkarreratzeko gogorik izango dutenik.

Lea burumakur eta tinko zegoen lurrera begira, giza begiek ikus dezaketen zulorik sakonena ikusten baitzuen, hilotza, bitarteko guztiak zulatzen dituen zuloa, metro eta erdi luze, erdi zabal, eta bat sakon besterik ez bazuen ere. Hori ere ez bere sakonera guztian, han ikusten baitzuen berak erremataturiko zakur deserraitua. Learen bihotza ia gelditua zegoen, baina ez zerion malkorik, ez baitago zulo hura betetzeko aina negar egiterik. Hik igoal uste izango duk, Txintxo, aita neuk hil diadala, eztuk? Txintxo zuloaz beste aldean zegoen, ipurdi ganean kokoriko, txakurrek hain poliki dakiten moduan. Behin burua okertu eta zulora begiratzaren zuten, behin Leari begiratzaren zuten zuzen zuzenik. Bordalegiko zakurrak hilobian ere bizirik ematen zuten, muturra lur ertzarekin parekatua, belarriak lotan bezala bilduak. Nola izango zituen, ba, gehiago ez baitzen itzartuko? Leak burua jaso eta ilargia lehengo lekuan ikusi zuten, pixka bat haruntzago. Nork botako zio lehengo lur multzoa? Txintxok burua okertu zuten. Neuk egingo diat. Norbere aita lurperatzeko eskatzerik ez zegok. Leak hanka batekin lur parrastada bat bota zuten eta bestearekin beste bat gerotxoago. Hire aitak lo gogorra zeukak, Txintxo. Beste parrastada bat, beste bat, eta beste bat eta belarri punta bakarrik geratzen zen bistan. Orduantxe irten zitzaizkion Leari bi malko, begi bakoitzetik bana, madariak bezain astunak. Malko haiek zuloa joez batera, linterna alboan utzi eta haitzurrarekin zuloa betetzen hasi zen. Laster amaitu zuten lana, arin estali beharreko krimena bailitzan. Linterna hartu eta gaina hankapean

zapaldu zuen. Bat ehortzi diagu, Txintxo. Orain beste bi di-
tiagu hor. Hik ba al dakik horiek nola ehorzten diren?

Lurrak irentsi al du gizona? Bordalegiko eztaietan ez zen beste berririk izan noizbait amaitu zirela baizik eta amaiera egunean anaia ezkongabea falta zela. Eguerdian hementxe egon duk, etxe atzetik joaten ikusi diat, hor ibiliko duk non-bait, bista ere pixka bat lanbrotua baitugu, baina nik ez dut egun guztian ikusi, esan zuen Bordalegiko andre berriak eta gehiegi ikusi beharra ere izango dun, erantzun zion gizon berriak. Biharamon iluntzean agertu zen Pruden, artaldea alda eraztera joan zela eta. Ardi bat falta omen zen eta harexen bila ibili omen zen gauerdirarte eta azkenean bordan bertan lo egitea pentsatu, biharamonean bilaketa segitzeko eta oraintxe bertan topatu diat, apropos eginda ere hobeto gor-derik egon ez zitekeen zokoan. Ardi beltza izan al duk? Orduan Prudenek erantzun zion ea ez zekien Bordalegiko artaldean ardi beltzik ez zegoela. Baietz zirudik, ba. Arrats hartan beste hitzik ez zuten izan eta biharamonetik aurrera Bordalegi Basagorriko etxe bat gehiago zen, ezkonberriak haurraren zain, eta laster osaba izango zena ere han. Baziren Basagorriko etxe bete mutilzahar zeukaten familiak eta Bordalegikoa ez zen hain zaharra ere, baina niri ez zait iruditzen gure aitak beti esaten zidana ere arrazoizkoa denik, gazteak ezkondu behar zuela alegia. Orduan ere zerbait gertatuko zen eta hemen historiari datorren moduan segitu behar zaio eta horrexegatik ari naiz Bordalegiko historiarekin, zer egin ez dakigula gaudenean buruera gaiztoak etortzen baitira eta gainera bihar-etzi zer izango den ere ez dakigu eta agian ezertarako gauza ez naizela edo memoria galtzen hasirik aurki nadinan, orduan ederki etorriko zait garaiz gogoratu izana eta ikusmena joaten bazait, buruz ikasi behar eta burua ere joaten bazait, orduan ez dinat ezer behar. Eztaietatik astebeterra edo, Prudenek koinata berriari esan zion:

— Nire anaiarik izan ez balitz, hi nirekin ezkonduko hintzen, eztun?

— Bai beste ahizparik izan banu ere —erantzun zion Urdanetakoko alabak.

— Zer esan nahi dun?

— Heuk zer esan nahi dukan esan ezak lehenbizi.

Handik beste astebetara Prudenek koinata bakarrean harapatu eta esan zion:

— Nik esan nahi dudana dun Bordalegiko historia gaizki hasi dela eta hasiera txarrak badakin amaiera onik ezin dela izan.

— Zer diok, Pruden? —hots egin zuen Doriak erabat bildurtua—. Hik badakik biontzat bihotz berdinekoa izango naizela.

— Hori ezinezkoa dun. Egia dela emanik ere, hori permititzen ez duen legetik sartu haiz Bordalegira.

Gure aitonak esaten zuen bi anaiek hobe izango zutela artzain segitu balute, baina Pruden gero eta isilkoiago zihoan eta behin Doriari lasai egoteko esan zion, ez ziola senarrik hilko eta. Orduan Doriak pentsatu zuen, ea honek neu hiltzen nauen. Hainbat denbora iragan zen Bordalegiko berririk Basagorri ez zekitelako. Gure aitonak esaten zuen bere birraitonari entzuna ziola bi anaiek gutxienez urtebete pasatu zutela elkarri ardi kontuaz beste hitzik egin gabe eta huraxe ere labur eta elkarri begiratu gabe, baina Bordalegiko andrea haurdun zegoen eta, denborak aurrera zihoazela, ilunabar batez Prudenek iturrira segitu zion. Gautu zuen eta bi anaiak sukaldean zeuden, ganadu lanak amaituta. Nondik duk gure etxeandrea? Halako batean etorri zen. Afaldu zuten eta gau on eta lotara. Biharamon egunsentian Bordalegiko senarrak ez zuen itzartzean inor ondoan somatzen. Haurdunaldiko gorabeherak, pentsatu zuen, baina pentsamentu horrek ez zion besteetan bezalako pozik eman. Jaiki zen eta emazterik ez zen ez etxean ez inguruan. Harritzekoa, hain goiz izanik. Anaiari dei egin zion. Gau honetan ezer somatu al

duk? Hark ezetz, sekula baino lo gogorragoa izan zuela. Ba, Doria falta duk. Perran Urdanetara joan zen, emaztearen gurasoengana. Hara ez zen agertu. Ea medikura joan den! Inori esan gabe? Bordalegira bueltan, oraindik ohean zegoen anairi esan zion:

— Doria falta duk. Ez zegok Urdanetan. Ez zegok medikuarenean. Ez zegok inon.

— Nonbait egongo duk —erantzun zuen Prudenek erdi lotan eta orduan Perranek:

— Nonbait egongo duk, bai, baina odol zantzurik topatzen badiat, hire odolak ere korritu beharko dik.

Herri guztia bila ibili zen aste osoan. Lorratzik ere ez. Lur eragin pixka bat arakatu zuten eta zakur eskeleto bat besterik ez zuten topatu. Baina Perranek ezin zuen etsi eta legegizon batengana jo zuen, etxeko oilorik ederrena saskian zeramala. Ondo kontatzen ari naizen ez dakit, baina amonari eta aitari beti honelaxe entzun diet, halako gizona oiloarekin joatea larritzekoa da baina.

Larriagoa da beste hori, kirrin karran krin kran kosk. Espetxeko zeldako atetzarra ireki eta presoainak epaile aretora agintzen dio Leari. Epailea?

— Beste norbait garbitu behar al da?

— Abokatua duzu.

— Nik ez dut abokaturik eskatu.

— Ez al duzu joan behar?

— Derrigorra al da?

— Oraintxe esango dizut.

Bordalegiko gizonak abokatuaren ateko aldaba haundia jo zuenean, artean burua bistan eta alai zekarren oilo gorria isil isilik eta kikil kikil egin zen saski barruan. Beti bezala emakume batek, neskamea izango zen, zer behar duzuka ireki

zion atea. Don Trifonekin hitz egin nahi zuela eta itxaron mesedez harrera gelan, laster etorriko da. Horrelako lekue-tako lasterrak nolakoak izaten diren badakigu eta Bordalegiko lehen gizonak, oiloarekin nola joan zen pentsatuz, lotsa-zen hasteko aina asti izan zuen, baina zorionez oiloak baze-kien antza nor sartu zen. Ez haiz, ba, erruten ariko! Kaka-raka hastea besterik ez diagu behar. Inork ezer ez dakiela lei-hotik botako banu?

— Aurrera mesedez, Don Trifon zain daukazu. Ate ho-netatik mesedez.

— Derrigorra duzu —agintzen dio bueltan funtzionariak.

— Nork esan du hori? —galdetzen du zorrozki Leak.

— Zerbitzu buruak.

— Esaiozu mesedez zerbitzu buruari etortzeko.

— Zu beti nahaste bila! —marmartzen dio funtzionariak, atetzarra eguneko hamaikagarrenez itxirik.

Don Trifonek irribarretsu eta zer duguka hartu zuen Bor-dalegiko gizona. Hara, jauna, berorrek ere zerbait entzuna izango du, baina gure andrea berez aldentzea, haurdun aurre-ratua zegoela gainera, hori sinesteko barrurik ez daukat. Neuk ere... eta legegizonak antzeko kasua kontatu zion, baina dena dela, gertatzekoa gertaturik dago eta zuk zer uste du-zu, ba, galdetu zionean, Bordalegiko gizonari koloreak ho-ritu zitzaizkion. Ez naiz izendatzen ausartzen, baina horre-tarakoxe nator berorregana, ea gertakarien egia jotzeko mo-durik egiten dugun. Don Trifonek hitzei garrantzi haundia emanez esan zuen dudarik gabe norbaitek hila izatea zela le-henen egin beharreko aierua eta azkenengoa berez aldentzea, ulertzen zuela gizonak inoren errezelurik eman nahi ez iza-tea, hala ere herrian nornahik susmatzen duenetik hastea ez duk burugabekeria, baina beno, hori bideak berak erakutsiko

dik. Hemen behar duguna da honelako kasuetan oso espezializaturik dagoen gizon bat eta ni ez nauk hain zuzen arlo hauetan gehiegi ibilia, nahiz eta kasu hau nahiko argi egon, baina gauzak behar bezala eta inolako kezkarik gabe egiteko, ba omen zuen lagun bat, oso laguna eta konfiantzazkoa bera, kasuari adarretatik helduko ziona, oso ondo hartuko zaitu eta lehenbiziko ikustaldian betiko lagunak zaretela irudituko zaizu. Bordalegiko gizonak esan zuen hurrengo egunean etorri beharko zuela, etxeko lanak eta abar, baina bai zera!, hortxe bi kale gorago duzu, neuk bidaliko diot mandatua eta berehalaxe hartuko zaitu. Berorrek hala baderitza, konformatu zen Perran.

— Derrigorra dela esan du zuzendariak —agintzen dio lazki zerbitzu buruak, beste bi funtzionari albo banatan dituelá.

— Derrigorra bada, ez dago bueltarik —esanda, Lea badao galeria luzean zehar. Ate bat, beste bat, beste bat, zertarako kontatu? Azkenean epaile gelako leihatilan gizon baten aurrez uzten dute.

— Egun on, Lea. Epaiaketa gainean dela badakizu, edo izateko arriskua dagoela. Aurreko ikustaldietan esanak berresaten ez gara hasiko, baina nik ezin dut zu konbentzitzeko azken ahaleginik egin gabe utzi, alperrik izango bada ere.

— Alperrik izango da, bai, zure burugogorkeria estimatzekoa da baina.

— Baina, Lea! Pentsa ezazu, zuk nahi ez baduzu ere, norbaitek defendatu behar zaituela. Hori derrigorra da, epaiketarik izango bada.

— Eta epaiketarik izatea derrigorra ez balitz?

— Adarrik ez, Lea. Hau ez dun Bordalegi.

— Horrexegatik hain zuzen. Lehengoan ere esan nizun Bordalegin egina Bordalegin geratzen dela. Hortik kanpora hor konpon.

— Hor konpon eta preso egon? Ez al duzu Bordalegira itzuli nahi?

— Itzuliko naiz destinoak eramaten banau, hona ere hark ekarri ninduen eta. Ez nazazue setati jar. Nik ez dut hitzik eman eta eskatu gutxiago.

— Mundua ez da honela, Lea, hemen behintzat. Urtebete eta gehiago daramazu preso.

— Gehiago bakarrik? Urtebete, bi hilabete, hiru aste, lau egun eta bosgarrenerako sei ordu falta, erloju hori gaizki ez badabil.

Don Trifonek ea irakurtzen zekien galdetu zion Bordalegiko gizonari eta honek ezetz badaézpada. Leku guztietan horixe galdetzen dizute lehenengo. Neu ere gogoratzen naiz nola aitak irakurtzen ikasteko agindu zidan, bestela lehenengo oinkadan engainatuko nindutela eta. Bordalegiko gizonak Don Trifoni oiloa esker onez eskaini zion, baina Don Trifonek ez zion inola ere hartu nahi. Horixe behar genian, mesede bat egiteagatik! Zertarako gaude ba? Halako borondatea baldin bazuen, beste abokatuari eramateko esan zion, baina oiloa bizirik baino hilik eramatea itxurosoagoa izaten dela, horien buruarekin ez baitago fidatzerik. Don Trifonen nekameak laster lepamoztu zuen hegazia, lan hura maiz egin duenaren trebetasunez. Berriro saskian poliki baturik utzi zion eta bapo, orain ez daukazu kakaraka hasiko zaizun bildurrik, eta Don Trifonek Bordalegiko gizonari esan zion:

— Pozik lagunduko nizuke, baina lanpeturik nago. Kartazal hauxe emaiozu eta barruan jartzen diot neure partez zoazela.

— Hara, Lea —dio abokatuak, pazientzia galtzen hasirik—. Zu beti zabilta zeure Bordalegiko kontuekin eta horiek oso politak dira historia idazteko, baina zuk egin be-

har duzuna da ifernu honetatik ahalik arinen irten eta horretarako ahalik eta zigorrik gutxien jaso eta horretarako ahalik eta defentsarik onena eramatea beste biderik ez dago.

— Bordalegin lehenago ere legegizonek zertan lagundu diguten badakigu.

— Berriro ere! Historia hori idazten hasi zinenean berazkoak eman balizu sikira! Azkenean zeure burua jan behar duzu, Lea. Espetxean zaude gero!

— Ja ja ja! Horixe jakiteko ere abokatua behar.

— Zorioneko Bordalegiren sorrera! Ordutik hona denbora asko pasatu da, Lea, eta munduan aldakuntza haundiak izan dira.

— Bordalegin ez.

— Bai Bordalegin ere.

— Huskeriak. Han eguzkia lehengo bidetik dabil, euria lehengo haizeek ekartzen dute, zakurrek lehen bezala zaunka egiten dute, oilarrak lehen bezala kantatzen, kukuak lehen bezala etortzen eta buruko txoriak ere lehen bezala joaten dira.

— Ezetz ba, Lea, ezetz! Orduan eta orain legegizon guztiok ez gara berdinak, eta bagina ere, nik benetan defendatu nahi zaitut. Egia da hortik bizi naizela, baina zenbat eta defentsa hobea egin, gehiago irabazten dut. Zuk ere bai eta nik ere bai. Eta gainera ez dauka erremediorik.

— Noizbait ere! Erremediorik ez daukanari buztan bila ari al gara?

Bordalegiko gizonak irakurtzen ez zekiela esan zion Don Trifoni, baina gezurra, hark sinestu bazion ere. Perranek, zerbait galdetzen ziotenean, beti ezetz esaten zuen badaezpada. Neuri ere aitak horixe esaten zidan beti. Lea, dakizuna baino gutxiago agertu beti eta ez dakizunik sekula ere ez. Bordalegiko gizona, esku batean oilo saskia eta bestean Don

Trifonen kartazala zuela, kalea hartu zuenean, esandako alderuntz abiatu zen, baina gero Don Trifonen etxea bistatik galtzean, tabernara jo zuen. Pixka bategatik itxarongo dik, orain arte ere ni gabe bizi izan duk eta. Basoerdi bat? Osoa hobe, gizon haundiekin tratatzen ari nauk eta. Zurrut bat egin eta kartazala ireki zuen, zer daramadan neuk ere jakitea ez duk gaizki egongo. Paper zuri ederrean hauxe jartzen zuen:

— Hor datorkik Bordalegiko etxaguna oilo ederrarekin. Nik lepoa moztu zioat, hik ken lumak eta bion artean jango diagu.

— Ez luma ez lepo! Basa jendearekin tematzea baino izorrateagorik ez dago! Aipatzen dizuten gauzarik berriena due-la berrehun urtetik atzerakoa. Azkenengo aldiz hitz egingo dizut, Lea —dio mehatxu airez abokatuak, zutiturik, baina berriro makurtu behar, leihatila paparraren parean geratzen baitzaio—. Nahi duzula nahiz ez duzula, epaiketean elkar ikusiko dugu. Ahalik ondoen defendatuko zaitut eta hor konpon zeure historiekin eta zeure kukuekin.

— Nola defendatuko nauzu? Hil nituen eta ez daukat disimulatzeko gogorik. Hortik aurrera zer defendatu behar duzu?

— Hara, Lea. Azken aldiz esango dizut. Badira hiltzai-leak hiru edo lau urte bakarrik eginda libratzen direnak eta askok horixe ere ez. Une hartan zeure onetik irtenda egoteko motibo guztiak zenituela frogatzea oso erreza dugu. Eta gainera injekzio hura. Mediku ospetsu bat zure aldeko in-formea sinatzeko prest dago.

— Zer esan behar du mediku horrek? Burua galdurik... zoraturik... eta horrelakoak? —jestu teatralez Leak.

— Hori aitortzeak ez dizu ezer kentzen. Zoraturik egon zina sinestuko balute ere zer? Hemen zulotik irtetea da nagusi.

Bordalegiko gizonak Don Trifonen hura irakurri zuenean, barre egin zuen, basokada hustu eta beste oso bat ateratze-ko eskatuz. Argiak direla, baina horiek ere badiate oker bat, besteok tentelak garela uste izateaz. Tabernandreak zeri barreka ari haiz heu bakarrik galdetu zionean, Perranek bakarrik ez zegoela erantzun zuen, oiloa ere hemen zegona. Eskerrak lepoa mozturik zeukala, bestela hauxe ere kakaraka. Bi bider pentsatu gabe, Bordalegira itzuli eta astebetean hitzik egin gabe zeukan anaiari bekoz beko begiratzuz esan zion:

— Aizak, holaxe eta holaxe izan nauk Don Trifonengana. Irakurtzen ez nenkiela esan zioat eta begira zer mezurikin bidali nauen beste abokatu batengana.

Prudenek astiro irakurri zuen papera eta ez zuen besterik esan ea oiloa etxera ekarri zuen. Baietz eta zer deritzak eta hala, Prudenek ez zuen hitzik egiten eta Perranek urrats bat aurrera emanik, esku bata anaiaren sorbaldan jarri eta bestearekin esan zion:

— Izan gaitezen etsai, baina ez horien lagun.

— Ondo zegok! —erantzun zuen Prudenek burua jasorik—. Izango gaituk etsai, nahi baduk, baina zin dagiat hik uste dukan motiborik ez dagoela.

Lea ere zutitzen da. Ateraino atzeratu eta eskua luzaturik, azkenengo hitz hauexek jaurtikitzen ditu abokatuaren muturretara:

— Agian hemen zoratuko naiz, baina une hartan inoiz baino argiago nengoen eta horixe esateko gogoia daukat haurzitegian eta bazter guztietan

— Isi, arraiook! —hots egiten digu berriro ere Kirriñok, isiltzea gero eta gehiago kostatzen zaigu baina—. Zoraturik al zaudete? Bazirudik Lea ez beste guztiok zaretela katetik jarein berriak. Iso! Bertso bat botatzeko gauza banintz, lasai edateko esango nuke, baina ez golkotik behera, ahotik barrura baizik, eta hauek honela, lehen ere esan dizuet Lea eta Askatasuna ditugula ezkonberriak, baina ezkonberriei zer eskatzen zaie? Eh? Leak Kirriñori begiratzen dio eta denok Leari begiratzen diogu. Adin batetik beherakoek, hura entzutez bakarrik ezagutzen zutenek, ez diote begirik kentzen. Haurrek atzetik hurreratu eta disimuluan begiratzen diote. Leak zerbait esaten die eta tximistan doaz amari edo baten bati kontatzera.

— Zer eskatzen zaie ezkonberriei?

— Elkar jan! —hots egiten du Txankanek.

— Elkar jan! Elkar jan! Elkar jan! —denok hoska eta Kirriñok ezin du ordenarik jarri.

— Nola elkar jan? Nork jan behar du nor?

— Batak bestea, nor izango duk ba?

— Musu bat! Jatetik ondo gaude. Musu bat eta gero beste bat eta gero beste lau.

— Ooooo! Ooooooo! (Argiak itzali dira). Elkar jan! Eljar jo!

— Elkarri jo?

— Berdin duk. Jan jo jai nahiz ja ja jai!

Honelako eskandalurik apenas izan den Bordalegiren sorreratik hona. Argiak itzali esan dugu, baina ez dago bakarra besterik, argiontzi ikaragarria bera, gaurko egunerako bereziki egina, ehundaka lagun azpian biltzekoa, biribilean biltzen, zirkulu izugarrizko mahaiaren inguruan. Nola elkar jan? Nola elkar jo? Ja ja jai! Aluren bat bazebilek hemen. Ez zitzaien ba erretxina agortuko! Ez zian ba saguxarrak olioia edango!

— Piztu ezazue argiontzia! —ari da hoska Kirriño—. Akelarretik heldutako telegrama irakurri behar nuenean ar-

gia itzali?

— Sorginek ekar sorginek eraman.

— Sorgina duk bat eta alua beste bat! Piztu argia edo eskuan daukadan botila jaurtikiko diat. Norbaiten buruak igerriko zio.

Poxpolo bat pizten da, beste bat ere bai, metxero bat, lau, berehala argizko zirkulu liluragarria.

— Zertarako dituk argiok?

— Musu ematen laguntzeko.

— Orduan zertarako itzali diagu lehengoa?

— Konfiantza hartzen laguntzeko.

— Ez da ederki ikusten baina telegramak haxe dio: «Askatasuna aldendu zaigu. Bordalegira heldu bada, zorionak!» Hau zuretzako da, Lea. Argi guzti horiek ere bai.

Argiontzi nagusia blauf pizten da, argi txikiak irentsirik. Ikusmena hartaratzean, Lea burumakur ikusten dugu mahai gainera eta denoi begiak betetzen zaizkigu, eskua begietatik pasatzen duela ikustean.

Baina bai berehalaxe begietako kargak, logurak eta hazkurak joan ere, epaiburuak, Leaz handik, parean eta goitik, lekukoak pasatzen hasteko agintzen duenean:

— Ministeritza fiskalaren aldetik lehen lekukoa eta bakarra. Aurrera Xamela Legutio Ganboa.

Hauzi aretoko buru guztiok inurritzarrak bezala mugitzen gara, ahapeko marmara trinkoan. Xamela! Ikusminik haundinez itxaroten genuena. Noiz dator Xamela, galdetzen zizuten haurrek. Azkenean ere ezagutu behar diagu ba!

— Beroien baimenez, Jaun agurgarriak —dio fiskalak.

— Isilik aretoan! Kilin kilin kilin! Isilik aretoan esan dut! —ari da oihuka epaiburuak.

— Beroien baimenez, jaunak. Ministeritza honek Xamela Legutio Ganboaren ezin azaldua adierazi beharra dauka eta beroiek onartuko balute, (ezin duela etorri? Isilik aretoan!

Denak berdinak. Isilik aretoan, agintzen dut azken aldiz! Denok hortzak jaten geratu gara, Xamelarik ez datorrela entzutean), baina beroiek onartuko balute, haren lekukotza idatzia irakurriko nuke, prozesuari dagokion giltzarria delarik, beroien zuzengintzari argibide haundia emango diolakoan.

— Ez da guztiz hauzibidezkoa, baina onartua —epaiburuak.

— Hitza mesedez! Hitza eskatzen dut mesedez! —hots egiten du abokatu defendatzaileak.

— Hitza defentsari —epaiburuak.

— Beroien baimenez, jaun agurgarriak. Nire protestarik biziena alderdi fiskalaren proposamena dela eta. Lekukoek lekuan egon behar dute, ez paperean, eta hain elementu garrantzizkoa izanik, hauzitegiaren deira azaltzeko kuraiarik ez duenari hizpide idatzia ematea zuzenbide guztien aurka dela uste du defentsa honek eta horregatik, errespetorik haundinez, deklarapen hori fiskalak berak gorde dezala eskatzen du, beste zereginik ez daukanean irakurtzeko.

Hauzimahaikoek elkarri txortxor ekin ondoren, epaiburuak erabakitzen du:

— Hauzitegiak irakurketa hori egokitzen jotzen du. Konstanta bedi defentsaren protesta eta has Xamela Legutio Ganboaren deklarapena irakurtzen.

— Zuen baimenez eta eskerronez, jaunak, hona hemen Xamela Legutio Ganboaren lekukotza harrigarria, eguerdiko eguzkia baino argigarriagoa: «Bizirik geratzea halabeharri zor diot, ez Leari. Ni ere besteak bezalaxe hil nahi izan ninduen eta hori berak ere ez du sekula ukatu. Zergatik ez ninduen hil? Zizpak bi tiro bakarrik zituelako. Berrito kargatzerako, tiro barrutik kanpo nintzen, edo bista barrutik kanpo behintzat, gaua baitzen. Hantxe egon nintzen sasipean gordea, arnasa harri, bizirik baino areago hilik, Leak zizpaz sasitza zulatzen zuela, eta azkenean ilargiari tiratu zion, norbait hil behar zuela eta. Gero herrira nola jaitsi nintzen, ba-

sorik baso, gau ilunean eta dena ezezagun, ez dago esaterik ere, baina bizirik nintzen eta orain konta dezaket, ez dakit zein mirariren indarrez. Zergatik hil zituen nire lagunak eta zergatik hil nahi ninduen ni? Ezin dut asmatu. Gu ilunabarrean Basagorriko jaietaruntz mendiz gendozen. Lagunetari-ko batek Basagorriko jatorria zeukan ama partetik eta haurretan egunen batzuk Basagorriin egina zen. Basagorriko jaietarako bide batez mendialdi bat egitea pentsatu genuen. Etxe bat ikusi eta harexen ondotik pasatzea pentsatu genuen, ea zer jende bizi zen eta halā. Zakurren zaunketara emakume bat agertu zen. Hizketan hasi ginen, nortzuk, nongoak, gure lagunaren aurrekoak ezagutzen zituela eta hala, konfiantza harturik, zerbait hartzera gonbidatu gintuen, guk ezetz eta berak baietz, ez ukatzeko gonbitik, luxu haundirik izango ez bazen ere, eta azkenean sukaldera sartu ginen eta hantxe berriketan ginela, Bordalegiko historia idazten ari zela esan zigun. Harritu ginen, halako emakume bat historia idazten?, baina gizakumea zerbaitetan ari ez bada, buruari eragiten hasten dela esaten zuen eta hori oso txarra dela, ez omen baita buruera onik etortzen eta halaxe hasi omen zen «Bordalegiko Elaberria» idazten, berak esaten zuen bezala. Zer edo nola egiten zuen ikusteko gogo bizia sortu zitzaigun, baina ez zuen inola ere erakutsi nahi. Elaberri hura berak bakarrik irakurtzeko omen zen. Oso pertsonaia bitxia iruditu zitzaigun eta konfiantza hartzean, zigarrotxo bana erretzen hasi ginen, eta gero, egia esateko, bestea ere bai. Hura zer zen eta halako atsegina eta umorea ematen duen zera zela azaldu genion, baina berak ez zuen nahi, eta gu badakizu, pixka bat tranzteratu ginenean, oso alai eta hiltun ginen eta azkenean bera ere baietzeratu zen, baina gero nik ez dakit zer gertatu zitzaion, bat batean bere onetik irtenik txakurrak xaxatzen eta kanpora! uhuka eta esku artean harrapatzen zuenaz joka hasi zitzaigun, baina denon artean geldierazi eta poliki poliki buruan sartu genion guri joaten uzteko eta egoteko bera geldi geldi, laster pasatuko zitzaiola eta. Halaxe sutondoan utzirik,

ahalik isilen eta arinen abiatu ginen eta etxe atzeko bidea hartuz batera, ai ama!, bi danbada entzun nituen eta nire bi lagunak zerraldo sentitu, ez baitzegoen ezer ikusterik, eta gero nirea nola izan zen kontatu dizuet lehen. Horixe da guk Bordalegin egin genuen guztia eta bakarra eta denbora pasatu ahala, ez dakit salbatzeaz suerterik izan nuen, neure bi lagun tirokatuak burutik kendu ezinik bizi bainaiz».

— Jaun agurgarriak, —burutzen du fiskalak—, haxe duzue Leak berak ere, zehaztasun azal batzuk gora behera, osoki aitortu duen kondaira ikaragarria.

Zakurra errematatu zuen, ehortzi zuen, ilargia tirokatu zuen, eguzkia zunan hemen bota beharrekoa, gaurik buka ez dadin, zizpa hirugarrenez kargatu eta betiko iltzean esegi zuen, garrafoi biluziari zurrut garratz bat egin zion eta hilen aurpegietara azkenengo aldiz linterna enfokaturik, haritzari, bere buruari eta Bordalegiri esan zion:

— Hauek hemen ehorzterik ez zegok. Norabait mugitu beharko diagu.

Txintxo ere han zebilen hara eta hona eta Leak linterna begi begietara apuntaturik, txakurrei horixe gustatzen zaielik ba!, geldi hi ere, agindu zion. Auzorik hurrenengotik hasi beharko diagu, eztuk?, eta Txintxoren muturrera enfokatus, lazki agindu zion:

— Hik zaindu hilotzak, jan egin ditugula esan ez dezaten.

Auzorik hurrenengoa orduerdiko bidean zegoen, lehenbizi goruntz eta gero berehuntz, bietara aldatz gogorra. Abiatu zen eta bazihoan, haurretako mandatari lanak gogoratus, haurra jaio zela, aitona hil zela, behiak txahala egin behar zuela, txerria hil behar zela eta orain ere hilak, Bordalegiko bizilegearen arabera. Etxetik urruntzen hasiz batera, bidearen lehenengo gorunzko bihurgunean, txilio hilgarri batek ilargi mehea bi zati egin zuen. Ia hankapean zapaldu zuen. Linterna enfokatzean, txilio hura mendian sekula entzundako hotsik apurtuena bilakatu zen. Ez al dun argirik nahi?

Linterna itzali zuen eta orduan izarrak noraezean erortzen hasi ziren, mesedez! ez hil!, eta txilio haietara Txintxo galdu-gordean oldartu zen, hortzak erruki gabe sarturik.

— Geldi Txintxo! —oihu egin zuen Leak linterna pizturik—. Neu nauk hemen justizigile eta hi lekuko.

Bide bazterreko gizakume hura lepoa moztutako hegazti haundi bat bezala zen, azken dardaretan iraulka.

— Hiltzen bahaiz hil hadi, baina zizpa etxean utzi dinat.

Linterna hurreratzean, izar iheslea bezalako garraisia atera zen sasitzatik, beste eskua ere erakutsi zion eta ez dudala ba armarik! Leak multzo lepamoztu hura tente jarri zuen eta Xamela zen bera. Ilargia berrosatu zen eta izarrak beren gaikoetara itzuli ziren. Lea pixka bat urrundu zen, linterna bien arteko lurrera zuzenduz. Biak isilik. Bordalegi isilik. Mundu guztia isilik. Gauaren arnasa besterik ez zen nabari, urkien hostoetan.

— Nahi al dun hilak zaintzen geratu? Nahi al dun linterna? Ez al dakin bildurra hitz eginda deskargatzen dela? Nahi al dun tiro bat orduan?

Xamelak izuaren izuz sasitzan behera bota zuen bere burua, hortik ez haiz urrun joango gaizoa. Leak bidean gora hartu zuen eta gehiago ez zuen atzeruntz begiratu.

Aurrera begiratuta ormatzarra besterik ageri ez den zu-loan Leak apenas hitzik egiten duen, bederatzigarren hilabetetik aurrera batez ere, eta ia bat ere ez epaiketa gainean dela iragarri diotenean, baina espetxean elkarren gainean bizi beharra izaten da eta hemen ez dute Bordalegiko araurik errespetatzen. Hala ere hark bere bizimodua egiten du eta haren buruan zer dabilen inork ez daki, zertan ari haiz galdetzen dionari Xamelaren bila erantzuten baitio. Hura nor den galdetzen badiote, orduantxe bakarrik jeregiten zaio hitza:

— Xamela nor den? Oraindik ez al haiz enteratu? Hik

ez al dun inor hil? Nik bi hil nitinan eta hirugarrena bizirik geratu, baina topatuko dinat oraindik.

Eta gartzelako patioko orma bazterrari segitzen dio, bere buruarekin hizketan, eta gauez presolagunen ohapeak arakatzan dabil, Xamela non den galdezka. Nolakoa da Xamela galdetzen badiote, erantzuten du:

— Neuk baneki! Gauez izan zunan dena, ilargia ere gutxienean zegoela. Linternadunak jo nitinan eta gizasemeak gertatu zitunan. Salbatu zena emakumezkoa zela besterik ez zekinat, baina agertuko dun oraindik, agertu beharra din, ez baitago kasualitatez bizirik segitzerik. Agertu behar din, gaur ez bada bihar, bihar ez bada etzi, ez dinat presarik, zuek bai?, denbora guztia alde zeukanat.

— Sar hadi ohera —esaten diote, baina Lea noiznahi oheratzen eta noiznahi jaikitzen da eta haren logela lagunek gero eta bildur gehiago diote, baina espetxean ez dago tokatzen zaizkizunen ondoan egotea beste erremediorik eta Leak noiz behinka goiko bonbilarzarrei begiratzen die.

— Zuek al zarete gau hartako izarrak? Egizue argi edo itzal zaitzete, kristal puska zikinok!

Bonbilarik argitsuenaren azpiko ohera kontuz kontuz hurbiltzen da, ustekabean harrapatzeko.

— Hi al haiz Xamela? —galdetzen dio, eskuak zizpa irudian luzaturik.

— Ez! Mesedez! —eta ohekoak alde egiten du, logelan zehar, sokorru oihuka, bere erdi biluztasun narratsa zatika galduz. Gartzelan bestela ere gutxi behar izaten da eskandalua sortzeko eta berrogeiren bat emakumezko elkarren gainean dauden logela laster bilakatu da algaragela, funtzionariak zer gertatzen da hemen oihuka etorri arte.

— Zergatik ezkutatu didazue Xamela hemen zela? —hots egiten du Leak senetik irtenda. Funtzionariak bildur dira logelan sartzeko eta zerbitzu buruari dei egiten diote. Atetzarrak krin kran kron ireki eta denen artean ba daramate.

— Sasoja izan dun! —esaten dio Leak bere buruari, ba-

kar zeldako atetzarra itxi diotenean.

— Sasoia izan duk, bai! —hots egiten du Kirriñok, aulki gainetik—. Zuri Lea, ez zitzaizkizun urteak aisa pasatuko, baina hemen ere, bazentozela jakin genuenetik, egunak tiraka joan dira. Zer deritzazu Bordalegiri? Lehengoa al da? Ikusten duzunez, badago hemen nobedade haundi bat, etxe inguruari eta gauari beste antz bat ematen diona. Ea, Txankan! Oraintxe duk hire inbentua azaltzeko unea.

Izena aipatuz batera, egundoko txaloaldia jotzen diogu Txankani. Nola ez, egin dituenak eginda? Baita eragin ere. Isi!.

— Zer esango dizuet ba? Argiontzi horrena? Ez dauka beste munduko misteriorik, baina lana bai gero! Nik bada-
kit Leari alde batetik pena haundia emango diola, baina bes-
tetik zer ederragorik haritz horren azkena honelakoa izatea
baino? Zuk badakizu, Lea, haritz hori hortxe zegoela, haundi
eta eder, Bordalegiko historia zaintzen. Zuk beti etxe aurre-
ko haritzaz galdetzen zenuen eta pena ematen zigun preso
zeundela hori jakin eraztea, baina zure epaia publikatu zen
eguneko gauerdian Bordalegin argitasun bizi bizi bat ikusi
zen herri guztitik. Zer izan zen ez genekien eta abiatu ginen,
etxeari sua eman ote zioten. Etorri ginen eta dena zegoen on-
do, haritz horixe izan ezik. Tximista izugarriak bere adar
haundi bietariko bata jo zion. Alderdi hori egun batetik bes-
tera ihartzen hasi zitzaion. Orduan pentsatu genuen ea beste
adarra salbatzen genion eta lehenengotan baietz uste genuen,
baina hurrengo udaberrian tximistak jotako adarrean ez zen
hostoen lorratzik agertu eta adar sana ere oso ahulki ber-
detu zen. Huraxe izan zen azken aldia. Bigarren udaberrian
bi enborrak zeuden ihar. Bordalegiko haritz ederra galdu duk,
esaten genuen. Zer egin? Bota? Trabatik kendu? Orduantxe
gogoratu zitzaidan Kirriñok esan duena. Zergatik ez diogu
zutik eusten Lea itzuli arte? Batzuek usteldu egingo zela esa-
ten zuten, beste batzuek ordea bazirela haritz ihartuak ba-

soetan, urteetan zutik egonak. Ez, ordea, halako tximistak jota, esaten zuten, baina badaezpada uztea pentsatu genuen eta bai parean jo ere, oso ondo kontserbatu baita. Duela aste batzuk, hain egunetan zentozela zabaldu zenean, ba al dakizu zer gogoratu zitzaidan? Oraintxe ikusten ari zarena. Begira nolako argiontzia, argiontzi bikoitz ederra. Horrelako zuzirik ez dago munduan ere. Eta dena naturala gero! Erretxina hori batzen Basagorriko neskato-mutikoez egunak eta egunak egin dituzte, eta bai batu ere, ez zintuzten ezagutzen baina. Nik zer egin dudan? Haritzaren bi enborrak halako altura batetik ebaki nituen. Lurretik urkulura bi metro eskax ditu eta hortik ebatutara beste hiru metro, guztira bost metro beraz. Baina gero ziren hor lanak. Enbor bakoitzak hiruna metro ditu bueltan eta ba al dakizu zer egin nien? Bakoitzari barrua jan eta bi metro sakoneko zuloa egin, ez enborra beteko zuloa, lapiko baten tamainakoa baizik. Baina bi metro sakonera, eh? Ez zen, ez, lan erreza izan. Orduantxe ikusi nuen apropos kontserbaturik baino hobeto zegoela, haritza baino gehiago haitza ematen baitzuen, hain lehor eta trinko. Bi lapiko berdingabe horiek erretxinaz beteak daude, zapal zapal eginda, eta enborrak berak ere begira nola erreez datozen beheruntz, baina bai astiro ere, hogezi zentimetroko sendoerako alboak baitaukate. Zenbat zakukada erretxina sartu den hor Jainkoak ere ez daki. Hor dituzu batzaileak, Basagorriko neskato-mutikoak. Txaloak berei!

Gure txalo hotsera neskato-mutikoak uhuka eta txilioka hasten dira. Hauek etxera eramaten lanak izango dira gaurko partean. Argi ontziak, banaka ere argitasun itzela egiten dutelarik, biak batera uztean, Bordalegi sutan dagoela ematen du. Algarak amaitzean, Txankanek segitzen du:

— Alde batetik penagarria izan zen tximistak halako haritza jotzea, baina bestetik zer ederragorik haritz horrentzat Learen eta Askatasunaren eztaiak argituz erretzen bukatzea baino?

Mahaiak biribilean jarrita daude zuzi haritzaren inguruan,

hogeita hamarren bat metrotako diametroan, denok elkar ikusteko moduan, kanpo aldetik eserita baikaude. Hala ere ehundaka lagun gara, hor solte dabiltzan haurrak kontatu gabe. Ederra baita izan ere Bordalegiko etxe aurreko zelaikada!

— Jai honek ez dauka amaitzerik haritza orporaino erre arte.

Doan martxan pixka baterako badaukagu.

Perranek eta Prudenek zin hura egin zutenean, Bordalegi lehen bezala geratu zen, etorkizunik gabe berriro ere, baina bi anaien arteko etsaigo bueltagabez. Astebete pasatu zen eta bi ere bai, bakoitzak bere lanak eginez, baina hirugarrenean Perranek Prudeni esan zion:

— Indietara nihoak. Ezkon hadi nahi dukanarekin eta Bordalegik segi dezala aurrera.

— Ez daukak joan beharrik —erantzun zion Prudenek—. Egin dezagun erdi bana eta ez diagu elkarri ukitu beharrik.

— Bordalegi erdibitzerik ez zegok. Horretarako bakoitzak borda bana eginda hobe genian.

— Zenbat nahi duk heure partearengatik?

— Berrehun zilar diru.

— Egina.

— Baita beste gauza bat ere.

— Esan.

— Ikusten al duk etxe aurreko zelaikada haundi hori? Orain baso zegok, baina egunen batez landa bikaina izango duk.

— Eta?

— Haritz landare bat sartu behar diagu hortxe, erdi erdian, banatu aurretik.

— Hori besterik ez bada!

— Bikoitza izan behar dik.

— Nola bikoitza?

— Bi enborreko haritza.

— Ez al gaituk destinoa tentatzen ari?

Perranek eta Prudenek hiru urteko haritz landarea aldatu zuten, erdiz gora urkuluan. Haitzurtzean, zulatzean, sartzean eta zapaltzean ez zuten hitzik egin. Oso astiro egin zuten lana, eternitatea landatzen ari balira bezala, elkarri begiratu gabe. Landare berriari luzaro begira egon ondoren, Perranek joateko moduan zegoela esan zuen. Orduan Prudenek:

— Urkulu horretan Bordalegiren hasiera madarikatua ikusten egon behar al diat beti?

— Hori behintzat errespetata ezak mesedez —erregutu zion Perranek.

— Errespetatuko diat, baina haritz horrek ez dik azken normalik izango.

— Aretoan errespeto gehiago eskatzera beharturik aurkitzen da Hauzitegia! —hots egiten digu epaiburuak. Bai arin armindu ere! Ona zegok hori azokatik ibiltzeko. Lea mugitzean, isildu gara bai. Aurreratzeko dei egiten diote. Astiro astiro doa eta han dago geldi geldi, zutik beti bezala.

— Zin egiten al duzu egia esango duzula eta egia besterik ez duzula esango?

— Bai, jauna.

— Jar orduan idazkariaren mahai aurrean hauzitegiari aurrea emanez eta erantzun ministeritza fiskalaren galderei —agintzen dio epaiburuak. Ez ote diogu aurpegirik ikusiko?

— Zuen baimenez, jaunak —hasten da fiskala—. Lea anderea! (Orain bai isiltasuna hemen). Egia al da Van Gogh eta Seneka hil zenituela?

— Bai jauna, ez dakit zer izen zeukaten baina.

— Ez zenekien, baina oraingo jakinean egongo zara Van Gogh esaten ziotena Eladio Barrera Zarraga zela eta Seneka esaten ziotena Silbio Korta Junkera zela, ezta?

— Hilek ez dute izenik behar.

— Horixe ere jakiteko geunden. Horrek esan nahi du zuk ez zenituela ezagutzen, ezta?

— Ez nituen ezagutzen.

— Egia al da Bordalegiko sukaldean bi ordu eta gehiago pasatu zenituztela?

— Bai, jauna.

— Egia al da, joaterakoan, tiro bana aho ahora eman zeniela?

— Bai, jauna.

— Egia al da oso ilun zegoela?

— Bai, jauna.

— Egia al da etxe atzean hil zenituela, joan zihoazela?

— Bai, jauna.

— Egia al da hirugarrena ere, Xamela alegia, hiltzeko asmoa zenuela?

— Bai, jauna.

— Zergatik ez zenuen hil?

— Eskopetak bi tiro besterik ez zituelako.

— Baina berriro kargatu zenuen, ez al da?

— Bai, jauna.

— Egia al da Xamelaren ordeztu ilargiari tiratu zeniela?

— Tiratu nion, baina ez nion eman.

— Eskerrak! Ez zenion legedi penalaritari lan ederra jarriko, ilargia hil bazenu. Orain, Lea anderea, pentsa ezazu ondo erantzun aurretik. Egia al da jakin jakinean hil zenituela?

— Bai, jauna.

— Esan nahi nuke alegia, ez zenuela itsualdian edo zoroaldian...?

— Ez, jauna.

— Horrek esan nahi du jabetasun osoz hiltzera joan zirela.

— Nik ez dut alperreko tirorik botatzen.

— Ez al zenuen pentsatu hilketa hark zer atze ekar zezazukeen?

— Nik ez dut alperreko pentsakizunik egiten.

— Orain, urtebete eta gehiago iragan ondoren eta bizi guztiko presondegia leporatzeko arriskuan zaudela, zeurean segitzen al duzu? Beste era batera esanda, eginaren damurik ez al daukazu?

— Irrikitzen nago beste munduko hauzitegian ere gauza bera aitortzeko.

— Ederki. Zorionez oraindik mundu honetako zuzenbidean ari gara. Azken galdera, Lea anderea. Bizirik geratu zena, Xamela alegia, hilko al zenuke gaur, aukerarik bazenu?

— Gauza bakoitzak bere unea dauka.

— Besterik ezer ere ez, jaunak. (Denok begi belarri gaude, ea bueltan aurrez ikusten dugun).

Leak goizalde beranduan Basagorriko alkatearen etxean atea jo zuen. Alkateak harriturik eta erdi biluzik, zer dun ordu hauetan galdetu zion leihotik eta Leak erantzun:

— Bordalegin bi hilotz daude. Zer egin behar da haiekin?

Alkatea arrapataka jaitsi zen atera eta txantxetan hartu nahi zuen, baina Bordalegin txantxarik ez zela izaten bazekien eta ameskaitza zela sinestu nahi zuen, baina Leak esan zion ea herriko etxera ere zizparekin etorri behar zen. Bi hil? Nola? Zergatik? Leak erantzun zion berriketarako gogorik ez zeukala eta hilotzei zer egin behar zitzaien jakitera etorri zela bakarrik. Alkateak lehenbizi koartelera jo beharko zuela esan zion, neuk lagunduko dizut, baina Leak:

— Ez dut inor behar. Zailena eginda dago.

Koartelean kostatu zitzaien nor eta nongoa zen argitzen. Ea zentsuan sarturik zegoen eta berak ez zekiela. Bordalegi... Bordalegi... Non dago Bordalegi? Leak erantzun zien bi gizaseme hil zituela eta alkateak honaxe etortzeko esan dit.

— Bi gizaseme hil? Noiz? Nola?

Deklarapena hartu zioten eta instrukzio hauzitegira. Esposarik jarriko al diogu? Jar badaezpada. Hauek ez zeudena burutik ondo, pentsatu zuen Leak, baina hor konpon.

— Bi gizon hil dituzula? —galdetu zion epaile instrukto-reak.

— Gizakumeak ziruditen.

— Nongoak? Nortzuk? Nola?

— Nongoak ez dakit. Nortzuk gutxiago. Nola? Zizpaz.

— Zergatik?

— Hara, jauna. Nik nahi dudana da hilotzak ez daitezela Bordalegin ustel. Ken itzazue handik eta gero nahi duzuna galdetu.

— Bi esan al duzu?

— Hirugarrena bizirik geratu da, baina hura ere apenas salbatuko den, norbaitek laguntzen ez badio.

— Gizonezkoa?

— Emekumezkoa. Xamela zuen izena.

— Musika tresnaren bat dirudi.

— Zu al zara Xamela? —galdetzen du Leak goiko kama-
mainatik azpikora burua aterata.

— Xamela? Nor da hori.

— Bizirik geratu zena.

— Nola bizirik geratu?

— Beste biak hildakoan. Ez al dizute esan bi hilketa eka-
rri ditudala?

Lea bakar zeldan daukate, logela orokorrean istilu hura sortu zuenetik. Ez dago oso ondo, baina bakarrik hobeto. Inork ez du haren zeldakide izan nahi, bildurra diote, baina denboraldi bat pasatu ondoren, beste lagun bat sartu diote zeldan. Gauean lagun berria hiztun ari zaio, Leak berriketa-
rako gogorik ez daukala esaten dio eta bestea ere isilik badaezpada. Gauerdiko errekontua pasatu ondoren, Lea bera hasten da hizketan, erdi bere buruarekin, erdi lagunarekin ari balitz bezala. Kamaina bikoitzean daude, Lea goian eta laguna azpian.

— Hilen damurik ez dinat, baina bai Xamelarena. Eto-
rriko dun. Nahitaez etorri behar din. Hi al haiz Xamela?

Learen zeldakideak arretaz entzun du Bordalegiko hilketen historia, hain astiro eta hunkigarriri kontatua, baina hi al haiz Xamela galdetzean, arnasarik gabe geratu da eta burua bezalako bulto bat erdi ilunetan goiko kamainatik zintzilik ikustean, itoki esaten du:

— Ni Xamela?

— Eguna argitzean ikusiko dinagu.

Biharamonean Lea bakarrik uzten dute bere zeldan eta Pruden bakarrik geratu zen Bordalegin, Perranek Indietara alde egitean, inork ez zuen gehiago bizi zenik ere entzun baina. Prudenek urtebete pasatzen utzi zuen, herrira ere apenas jaisten zela, eta haritz landare bikoitzak lehen gorakada egin zuen garaian, andregai bila hasi zen, baina Urdanetako alabaren desagerpen misteriotsua neska guztiek gogoan zeukaten eta inork ez zuen Bordalegira ezkondu nahi. Prudenek orduan eskualdetik kanpoko herrietara jotzea pentsatu zuen. Animalia guztiak mendira bidali eta non jaia edo azoka, han zen hura, egun osoko oinezaldiak eginik. Ez zuen lan erreza hartu gaizoak. Gure aitona esaten zuen haritz hura ez zutela landatu behar, amonak berriz ea horrek zer zerikusi zeukan, baina gure aitak esaten zuen Urdanetako alaba hila gertatu balitz, desagertua izanda baino errezago topatuko zutela Bordalegirako andre berria. Urrutiko herrietakoek ere, zerbaiten usaina hartzean, atzera egiten zuten denek, baina Prudenek ez zuen etsitzen eta azkenean pentsatu zuen:

— Burua non duten dakitenekin alperrik bada, kokolaxo bat hartuko diat eta hobe gainera.

Ez dakit «hobe gainera» hori zer pentsaturik esango zuen, baina Bordalegiko bigarren emazte kokola harexek itzul erazi zuela gure etxea bere xalotasunera uste dut. Prudenek, denei muturretan emanik, Basagorri bertan topatu zuen andregai, sakristauaren alaba hain zuzen, baina apaizaren antz haundia zeukana. Herrian baziren esamesak horretaz, aspal-

dian pixka bat isilduta bazeuden ere, baina apaizak ezkontza hura bultzatzen zuela ikustean, berriro zabaldu ziren berriketak eta baliteke Prudenek apaizaren zer horixe jakinik Endilokeri begia botatzea, hala baitzuen neskak izena. Amak ez zuen ezkontza gaizki ikusi eta sakristauak ere ez zuen gaizki ikusiko, aspaldi hila baitzen. Endiloke ez zen Bordalegira alperrik ezkondu, hamaika ume izan baitzituen eta denak mutilak. Hau ere badun ba, esaten zuen gure aitak, orduan hainbeste mutil batera eta orain neska bakarra eta berak ezkontzeko martxarik ez.

Baina noizbait izan behar zuen eta eztaiz hauek ere iritsi dira —hots egiten du Kirriñok, zahagi dantza amaitzean. Ez benetako dantza, baina bai benetako zahagia. Zenbakarrena? Hainbeste lagunentzat zahagi bat zer dun ba? Nik zenbakarrena besterik ez diat galdetu. Egongo al zarete isilik? —berriro ere Kirriñok—. Orain, Lea, hemen badago ustekabetxo bat, zuretzat gaur dena izango da ustekabea baina. Txankanek lehen esan du argiontzi paregabe horietan erretzen ari den erretxina guztia Basagorriko neskato-mutikoek batua dela, baina horiek badaukate zuri eskaintzeko beste zerbait ere. Aurrera gure neska-mutilak!

Hau taldea datorrena, etorri ahala zuzi haritzaren oinean jarriz, denen txalo hotsez harro harro. Badira hamairu-hamalau urtekoak eta badira oinez antzina ikasi gabeak ere, denak Leari begira.

— Geldi apur batean —agintzen die Kirriñok—. Hauen ekitaldiak bi argiontziak piztea merezi du.

Txankanek bigarren haritz besoa ere zuzitzen du eta hau duk argitasuna, mutilak. Oraintxe eguzkia pasatuko balitz, igarri ere ez. Denok isil isilik gaudela, neskato-mutikoak kantatzen hasten dira:

Zorionak zuri, Lea
gaur arte ezagutu gabea

Zorionak zuri, Askatasun
ea luzaro eusten diozun
Zorionak zuri, Lea
Askatasunarekin ezkondu zarelako
Zorionak zuri, Askatasun
Learekin ezkondu zarelako
Zorionak bioi
sekulorun sekulako.

— Hau entrenamentua izan da! —hots egiten du neskato batek eta berriro kantatzen dute eta berriro kanta erazten diegu eta behin eta berriro gau guztian, eta badirudi Bordalegik sua hartu duela, baina gaur ez da halako tximistarik izango.

— Orain erantzun ezaiezu epaiburu honek egiten dizkizun galderei —agintzen dio epaile nagusiak—. Fiskalari aitortu diozu zeuk hil zenituela biak eta hirugarrena ere hilko zenuela. Halaber aitortu diozu jakin jakinean eta sen osoz hil zenituela, ez al da?

— Bai, jauna.

— Zergatik hil zenituen?

— Behartu nindutelako.

— Ez al zenituen ba joan zihoazela hil?

— Nola jakin behar nuen gaineko edozein egunetan ez zirela berriro etorriko?

— Baina gau hartan salbo zinen.

— Ez haien gogoz, txakurrak lagundurik esku artetik ihes egin nielako baizik.

— Zer egin zuten gero?

— Katean zegoen beste txakur gaizoari tripak atera eta alde.

— Zenbat denbora izan zen ihes egin zenienetik hil zenituenara?

— Ez nuen erlojuari begiratzeko akordurik izan.

— Ataritik irten eta etxe alboan zehar joan zirela emanik, zenbat metro dago sukaldetik etxe atzera, hil zenituen lekura alegia?

— Ez dut inoiz neurtu.

— Gutxi gora behera ere ez?

— Etxeak hamalau metro zabal eta hamazazpi luze ditu.

— Gau hartakotik salbo zeundela jakinik, zergatik ez zenuen parte ematea pentsatu, justizia zeure esku hartu beharrean?

— Haiek neure bila etorri ziren, ez justiziaren bila.

— Ez al zenekien zure lehenbiziko eginkizuna justiziari dei egitea zela?

— Egin nuen hori ere, egitekoak eginda.

— Ez al dakizu egiteko horiek ez direla Learen eskuerak?

— Bordalegin ere ez? Nork ereiten ditu hango laboreak? Nork gobernatzen ditu hango abereak? Nork egiten ditu hango lanak?

— Gauza guzti horiek ederki daude, baina egiteetara jo-ta, esan dezakegu ez zenituela zeure buruaren defentsan hil, ez al da?

— Noren defentsan orduan?

— Une hartan esan nahi dut, ez zenuen zeure burua defendatzeko haiek hil beharrik. Zeu joan zinen bila.

— Ez berak etorri ez balira.

— Baina haiek ez ziren zu hiltzera etorri.

— Berek esan al dizute hori?

— Errespetoa hauzitegiari! (Horrek zeukak muturra!). Isiltasuna aretoan! (Bai, gizona, ez hadi emakume batengatik horrela jar). Isiltasuna esan dut aretoan! Aizu, Lea anderea, horren erabat defendatu izan al duzu beti zeure burua?

— Ez da beharrik izan. Basagorri guztiak daki Bordalegiko berri. Haiek nonbait ezjakinean etorri ziren, gaizoak.

— Azken galdera, Lea anderea. Zergatik zaude epaiketa guztian zutik?

— Almorranak ditudalako. (Ja, ja, ja, jai! Hauxe baka-
rrik behar genian).

— Isilik aretoan! (Hori duk txilin hotsa!). Almorranak
dituzulako?

— Bai, jauna. Itzalpeak ez dit onik egiten eta joanetorri
hauek gutxiago.

— Itzul zintezke —agintzen dio epaiburuak.

Lea astiro astiro dator, denoi begira. Oraintxe ikusten du-
gu aurrez lehenengo aldiz. Ez dago horren alperrik galdua.
Irribarrez dator ala geuri iruditu? Bankilura iristean, begira
geratzen zaigu. Oraintxe geunden barreka, oraintxe malkoari
eutsi ezinik. Betiko presondegia? Zergatik ez dun dena ukatu?
Batari eta besteari irribarre banakoak egiten dizkigu, po-
liziek besoetatik heldu eta heurt eragin arte. Zutik segiten du,
aretoaren erdi erdian.

Eta patioaren erdi erdian adar haundi bat jotzen du, pre-
sondegi osoa dardaratuz.

— Zer tresna mota dun hori, Lea? —galdetzen diote pre-
sokideek patioa betean.

— Adarra, Bordalegiko Prudenek bere hamaika semeak
etxeratzeko jotzen zuena.

Zuzenbide Ministeritzaren kontura edo, «Udaberri Egu-
na» antolatu dute espetxean, garaitik kanpora bada ere, baina
paperean halaxe jarriko zuen eta halaxe izan behar. Kaleko
musika taldeak ekarri dituzte eta gehienak gizonezkoak di-
renez gero, espetxe hau zoramen totala da gaur. Badirudi
inork ez daukala preso dagoela ahazteaz beste eginkizunik,
egun baterako bada ere, eta bestela ere denetariko jenderik
bitxiena dagoenez gero, patio honek extrabagantzia guztien
azoka dirudi. Leari zuzendariak deitu eta esan zion:

— Lea, egun bat behintzat haundia pasatu behar dina-
gu. Ez al daukan ekartzerik gustatuko litzainakeen
musikaririk?

- Adar jotzailea —erantzun zuen Leak.
- Adar jotzailea?
- Adar jotzailea, bai!

Halaxe sartu zen Basagorriko Txistu espetxeko jaira, Leak abisu hauxe bidali ziolarik: «Txistua eta danbolina ere ekar badaezpada, baina batez ere Bordalegiko adarra. Kirriñok bazekik non dagoen, ganbarako hage nagusian esegita». Basagorriko txistulariak apenas honelako plazarik sekula zapaldu duen, hain emakume desberdinez inguraturik, denek begiekin jan behar eta batzuek muturrekin ere bai, horretarako dituk ba! Txistulariari Leak adarrez laguntzen dio eta preso guztiak adi adi daude hura zer ote den, baina batez ere Lea martxan ikusteaz harriturik.

— Orain neuk bakarrik —agintzen dio Txisturi eta joaldi luzea egiten du, birrikak adarrean jarririk, eta ondoren azalpena:

— Adar hau idiarena da. Ba al dakizue idia zer den? Adar hau Bordalegiko tresnarik zaharrena da, familia haundiko belaunaldietan, mendian sakabanaturik zebiltzan mutilei dei egiteko. Honen deiak eragin bueltagabea izan du beti. Etor-tzen ez dena hila dago. Horregatik ez daukat dudarik, gaurko eguna amaitu aurretik, Xamela etorriko dela.

Izen hori aipatzean, presokideak atzeraka eta funtzionariak elkarki marmarka hasten dira. Lea patioan zehar abiatzen da bere adarrarekin eta halaxe botatzen du eguna, ezezagun guztiei zu al zara Xamelaka. Ez dago egun haundios hau ohoratzen etorritako nortasunik, Learen galderatik libratzen denik, patioan muturrik agertzen badu behintzat. Zuzendariari damutu zaio Leari ezer proposatu izana, baina orain ez dago eguna berez amaitu arte baketan uzteaz beste erremediorik.

Bordalegiko Prudenek ez zuen idi zaharra hiltzeaz beste erremediorik izan, hainbeste umeri, behin behintzat, gose-

rik kenduko bazion. Idi hura Bordalegin jaiotako lehenengo zekorra zen, Urdanetako Doria Bordalegira ezkondu aurretik. Hortik atera zenbat urte izango zituen, Prudenen hamai-kagarren mutila ere koxkorturik baitzegoen eta denak bana-ka jaiota. Idi hark ez zeukan, ez, okela sobrarik, baina hala-ko adarrik, zaharraren zaharrez buruan bertan disekaturik, ez omen da Basagorrin sekula ikusi. Nik behintzat ez dut ikusi eta gure aitak ere hamaika feriatara eramán zuen erakuskai gisa eta denek harriturik galdetzen zuten ea bigarren adarrik ez zuen idiak izan eta orduan gure aitak adarbakarra zela esaten zuen, irentzean galdu omen baitzuen bestea, perrato- kian ondo lotu gabe edo, eta horrexegatik hazi zitzaiola hain adar haundia, horregatik eta urteen puruz, jakina. Ez dakit horrela zen eta gutxiago irentzean adarra galdu baldin ba- zuen, halako idia zertarako zuten, baina gure aitak horixe kontatzen zuen eta zerbait izango zen. Prudenek adar hura gorde egin zuen eta bai ederki etorri zitzaiola gero, mutilak Bordalegi inguruetakó mendietara zabaldu zirenean, batzuk artzain, beste batzuk egurgin, beste batzuk ikazkin eta ba- koitzak ahal zuena, eta hara Endiloke hamabigarrenez haur- dundu zela uste guztien kontra, gazteenak ere hamabost ur- te baitzituen. Prudenek lehenengotan muzinka hartu zuen be- rria, hori ere bai?, baina ez zen egun batetik besterakoa izan, orduan ez baitzen haurdu zegoen jakiteko orain bezalako aurrerapenik, eta Endilokek berak ere luzaroan eritasunen bat izango zela uste zuen, baina gero ez zegoen dudarik, ez eta erremediorik ere, eta denak, guraso eta mutil, gero eta pozago zeuden, ea hamabigarrena neskatoa etortzen zen, baina egun batez Endiloke nobedadeak jo zuen, uste baino lehenago, eta inor ere ez etxe inguruan Pruden besterik. Ez zegoen emaginari deitzera joateko astirik, umeak burua kan- poan baitzuen, eta destinoak hala beharrik edo, erditzea zail- du egin zen eta bai batzutan hutsa dela bizia, pentsatzeko astirik ere izan gabe, Endiloke hilotz geratu zen Prudenen eskuetan, haurtoaren burua besterik kanpoan ez zela, bi-

zirik oraindik, baina Endiloke, hiltzean, estutu egin zen eta hantxe ito zen Bordalegiko lehenengo alaba. Prudenek bere desesperazioan adar haundiari zuloa egin zion eta Bordalegi gaineko tontorrik gorenetik huraxe jo eta jo hasi zen. Ordu gutxiren buruan mutil guztiak Bordalegin ziren berri onaren pozean eta begira zer topatu zuten.

Basagorriko Txistulariak adar haundia Leari erakutsi eta esaten dio:

— Hau ere hementxe dago oraindik, Lea, zuk ez zenuen uste izango baina.

Segidan joaldi luze bat hasten du, tresna haritzaren urkuluan kokarazirik, aurpegia bakarrik ikusten zaio Learen aldetik, gaineko bi argiontziek erretxina txirtxir erretzen dutela. Lehen argitasun haundia bazen, hotsa ez da orain txikiagoa. Adar batek mendiari halako dardara eragin behar diola sinestea ere! Azkenerako adarrarekin batera denok uuuka hasten gara eta hau munduaren sorrera ez bada, ez dago azkenetik urrun. Gaua, sua, hotsa eta ardoa batera baino nahasketa indartsuagorik ez omen dago.

— Zer moduz, Lea? Hau ez dun espetxeko patioa gero!
—hots egiten du adarrak—. Barrabilak gastatu ez zizkidatenean!

Basagorriko Txistuk zer kontatua ekarri zuen, bai, esperimentzia hartatik, azken urteotan ez zitzaion kontatzerik gusztatzen baina.

— Gazta ahaztu egin al zaizue? Eeee? Noiz atera behar duzue gazta eta irasagarra?

— Gaztaaa eta irasagarraaaa! —hots egiten du adarrak.

— Ondo entrenatuta hago gero!

— Eta koipea ere bai, adarrari emateko!

— Eta larruari zer?

— Eskatzen duena, baina dagoenetik.

Adarrak joaldi luzea egiten du eta halako arran moduko

batek ere bai, isiltzeko aginduz, eta denok hurrengo zer datorren arretaz gaudela, epaiburuak hots egiten du:

— Aurrera lekukoak! (Hemen zetozek gureak!) Datorrela Antonio Esturo Goitia. (Aupa Kirriño, izen-deitura horiekin heure antzik ere ez daukak baina). Zin egiten al duzu egia esango duzula eta egia besterik ez duzula esango?

— Bai, jauna.

— Erantzun orduan fiskalaren galderei.

— Aizu, Esturo eta Goitia jauna. Ezagutzen al duzu hor atzean zutik dagoen emakume hori?

— Ezagutuko ez dut, ba?

— Noiztik?

— Betidanik. Txiki txikitatik ahal nuen guztian Bordalegira ihes egiten nuen, Learekin egoteagatik. Ni baino urte batzuk zaharragoa zen eta orain ere hala izango da. Ipuinak eta historiak kontatzen zizkidan eta etxera itzultzea ere ahaztu, bidaltzen ez baninduten.

— Bakarrik bizi al zen?

— Ez, jauna, orduan aita eta ama ere bizi zituen. Gero ama laster hil zen, baina aita hil zela zenbat urte dira ba? (Kirriñok atzeruntz begiratzen du, guri galdetzen bezala, eta zintzarria jotzen diote).

— Hau ez da atzeruntz begiratzeko lekua! Saia zaitez dakizunetik erantzuten —epaiburuak.

— Egia al da Lea oso gutxitan jaisten zela herrira? — fiskalak.

— Ez zen askorik jaisten, ez, egun haundietan edo izan ezik. Aita bizi zuela, maizago etortzen zen, baina bakarrik geratu zenetik ia ikusi ere ez genuen ikusten. Bordalegi oso urrun dago eta halako ganadu saila eta abar bertan behera uztea ez da erreza izan ere.

— Horrek esan nahi du Learen berririk apenas dakizuela herrian.

— Gezurra! (Hori duk errespetoa). Ehiztari, mendizale, perretxikozale, artzain eta abar, Bordalegitik egunero pasa-

tzen da norbait eta sarritan etxe bete jende ere bai. Alderdi haietatik ez da basagorritarrik ibiliko, nola edo hala Bordalegitik pasatzeko modurik egin gabe.

— Horrekin esan nahi al duzu Lea maite dutela herrian?

— Ez dakit maite ala zer, guk ez baitugu horrelako hitzik erabiltzen. Behin baino gehiagotan galdetu izan diot ea zergatik ez den herrira maizago jaisten eta berak erantzuten zidan ea zertarako, herri guztia Bordalegitik pasatzen baitzen.

— Gogoratzen al zara inorekin haserrerik edo halako zer gogorrik izan zuen?

— Haserreak eta horrelakoak elkarren gainean bizi direnen kontuak dira.

— Zergatik dagoela ezkongabe uste dute herrian, ez baita oso normala emakume bakarra halako parajeen bizi izatea?

— Ez dakit, inoiz entzun izan dut Learekin ezkontzekoak, beno ez dakit hemen esateko hitza den ere.

— Esan bildur gabe —epaiburuak.

— Ba, Learekin ezkontzekoak dozenerdi barrabila behar dituela, (Hori Kirriño! Hik laurdenak behintzat badauzkak) eta Basagorrin ohitura izan da pare batetik gorakorik jaiotzen bazen, emaginak artasikada bat eman eta gosaritzat eramatea. (Ordezkarri ederra ekarri diagu. Isi!)

— Nola dakizu ohitura horren berri? —fiskalak.

— Hala izan behar, bestela baten bat agertuko zen, burubikoitzak ere jaiotzen dira eta.

— Ez al zuen inoiz Leak senargairik edo izan?

— Zarraparrak izan ziren, baina atzetik datorrenak daki hobeto, bera ere tartean ibilia baita.

— Egia al da Bordalegiko zizpa hotsak maiz entzuten zirela herrian?

— Egia da, bai, eta alperreko tiro gutxi. Basagorrin esaera da Bordalegi aldetik behera azkonarretatik eta azerietatik libre dagoela herria.

— Egia al da gizakumeei ere tiratzen ziela?

— Behin lapurrak sartu omen zitzaizkion gauez, bera kanpotik zela. Etxeratzean, ikuiluan hotsa. Ganaduak ateratzen ari ziren. Hiru gizezko omen ziren, gerra osteko maki garaian. Leak eup egin zien eta gizonak gainera etorri zitzaizkion. Ea ganadua baino dirua erosoago ez zuten eramango galdetu zien Leak, aurreko astean saldutako bi txahalen diruak goian zeuzkala eta. Lapurrek edo zirena zirelakoek pozik entzun zuten hori, diruak eta denak eramateko pozean eta Lea eskilaretan gora abiatu zen, gizon batek atzetik hamasei hatzeko puinalez eta linterna haundiz segitzen ziola. Gelako ateak, irekitzean, kirrin karran egin zuen eta Leak bi bider pentsatu gabe, betondoan ukabilkada bat eman zion eta gizona atzeruntz erori zen, linterna eskuetatik galdurik. Leak amen batean ate ostean esegita zeukan zizpa hartu eta danba tiratu zuen, etxe guztiari egundoko karraskada atereaz. Geldi hor, bigarrena ahoan nahi ez baduk, esan zion lapurrari linterna jasoz, eta eskilaretan behera abiatu, erdi ingurutik hots egin zuen: Bat hor zegok luze. Bordalegin ehortziak izan nahi ez baduzue, badakizue zer egin, eta danba tiratu zuen ikuiluko atera, ganaduak kateetan arras izuturik. Jaso zituzten, bai, hankak! Gero goiko bakarrari hots egin zion: Bota puinala sala erdira eta irten, eskuak goian dituzula. Hark ere esandako guztia apal apal egin zuen. Etxe aurreko haritz bikoitz haundiaren azpitik pasatzean, Leak haren kapelara tiratu zuen eta lapur gaizoa lurrera erori zen, berari eman ziolakoan, baina bigarrena benetan hartu nahi ez baduk, plantak utzi eta alde aguro esan zionean, hark ere atzera begiratzeko astirik ez zuen eraman.

— Nola dakizu historia hori, bertan egon bazina bezala kontatzeko?

— Lapurrek berek kontatu zuten zerbait beste herri batean eta handik iritsi zen Basagorrira. Zurrumurruak zabaldu ziren eta behin Leari berari galdetu nion eta horixe da gertatu zena, hirurak garbitzea merezi zuten baina.

— Iso, laguntxo! Nork garbitzea merezi duen jakiteko, hauzitegia daukagu hemen —epaiburuak.

— Aizu, Esturo jauna —fiskalak—. Orain arte entzunak kontatzen ari zara. Kontatuko al diozu hauzitegiari zeuk zer ikusi zenuen gau hartan?

— Bai pozik ere.

— Egia al da gau hartan herrira jaitsi zenean, zu izan zirela Learekin topo egin zuen lehenengoa?

— Bai, jauna. Neuk erreparatu nion eta neu joan nintzaion, eskutik heldu eta plazara ekartzera, soka martxan ari baikin.

— Zer egin zuen Leak?

— Joaldia amaitu arte soka ibili, han ez zegoen beste erremediorik. Gero denok aupa Leaka hasi ginen, hura han ikusteaz harriturik.

— Gogoratzen al zara zer esan zuen?

— Gogoratuko ez naiz, ba? Sasoia izan da, Lea, zu ere jaira agertzeko, esan nion eta orduan berak esan zuen: Bordalegin badituk bi, ekarri ezik etorriko ez direnak eta hirugarrena ere ez zebilek leku seguruan. Zer esaten ari haiz, Lea, galdetu genion eta hurrengo hitzak hauexek bota zituen: Bi hilak eta hirugarrena ihesi. Hemen al da Xamela?

— Nire partetik gehiago ezer ere ez, jauna —esaten du fiskalak.

— Erantzun orduan hauzitegiaren galderei —agintzen du erdiko magistratuak.

— Nik eta denek. Hor atzean daudenetariko edonork kontatu lezake.

— Utziezu atzekoei bakean eta kontatu ezazu zeurea.

— Ba, lehenbiziko hitz haiek txantxetan hartu genituen, Lea iaioa izan baita beti gauza zelebreak asmatzen. Hurrengo joaldia hasi zen eta hura ere dantzatu hark, eta amaitzean esan zuen:

— Ez zenuten, ba, pentsatuko gauerdian beste gabe Bordalegitik jaira etorriko nintzela?

— Zergatik ez? Beti egon behar al dugu animalia artean

sartuta? —hots egin zion denei ardoa ahotik sartzen zebilen batek.

— Hik zer egingo huke bi hilotz aurrean bahitu? —galdetu zion Leak.

— Gainean eseri. Ez zegona lasai egoteko toki seguruagorik.

Bien bitartean beste pieza bat hasi zuen musikak eta Leak ere algara orokorrean segitu behar izan zuen. Hura amaituz batera, bidekoa hasi zen eta Lea ere soka, Kirriñoren eta Txankanen artean. Ordurako plazan eta herri zoko guztietan zabaldua zen Lea jaiari zebilela eta inork ezin baitzuen halakorik sinestu, plaza ingurua laster jendeztatu zen, begiak baino lepoak luzeago, ez duk gezurra hi!, hor zebilek bera, hau baino ezaugarri kaxkarragorik zabaldu izan duk inoiz munduaren azkenerako, baina bazirudien hasi besterik ez zela egin, zeren bidekoa amaitzean, Kirriñok Leari bakarrean eskutik heldu eta aureskua jotzeko eskatu baitzuen, bai eta Leak poliki segitu ere eta basagorritarrak gero eta harrituago. Amaitzean, Kirriñok txapelarekin gurkera egin zion eta hura txalo zaparrada, hauxe besterik ez genian behar jaiak osatzeko. Leak zerbait esan nahi zuelakoa egin zuen, baina alperrik zen han ezer esaten hastea. Kirriñok isiltasuna eskatu zuen oihuz eta eskuz eta bai, oraingoan jendea isildu zen, algara guztia lurra irentsirik, baina jenderik ez zuen irentsi, denak zutik eta lepaluze han, haurrak hanka artetik buerak sarturik. Lea zerbait esaten hasi zen eta iss!, denak hururrean batu zitzaizkion, baina atzekoek ez zutela entzuten eta Kirriñori gogoratu zitzaion, zergatik ez musikalekura igon eta hori! hori! denek eta Lea ere baiezkoan. Kirriñok mikrofonoa harturik esan zuen:

— Basagorriko jaiak, mundialak izateko, munduko artistarik haundiena behar zuten. Hona hemen bera, Lea Bordalegiko.

Basagorriko herriak txaloka eta oihuka hartu zuen berri hura. Leak mikrofonoari usna modukoak egin zizkion eta

Kirriñok bildur gabe muturra hurreratzeko agindu zion, Bordalegiko txakurrek ere ugazamaren abotsa entzun zezaten.

— Bordalegiko txakurrek ez dute denek entzungo —hasi zen Lea— eta txakurrak ez direnek ere ez. Ez al duzue zizpa hotsik entzun?

— Txapliguak izango zituan.

— Txapligu onak zituan, bai! Bakoitzak gizaseme bana, hirugarrenak ilargia eta laugarrenak zakurra.

Ilargia aipatzean, jendeak deskojonoari eman zion, nahiko gastaturik zegok bai, baina oraindik zerbait geratzen zitzaiola, puska ederra kendu dion eta hala, ilargia gutxienean baitzegoen.

— Jaun-andreak! Jaunak eta andreak! —hasi zen berriro Lea, astiro eta markatuki hitz eginez—. Zoriontsuak zuek, hilda ere erremediorik ez daukazuelako. Gizon bat akabatu dudala esaten badut, ez didazue sinestuko eta bi akabatu ditudala esanda gutxiago. Hirugarrenaren bila natorrela deklaratu behar al dizuet? Hor konpon. Har nahi duzuen moduan, baina Bordalegin hiru hilotz geratu dira, zakurra ere bai gai-zoa, azkenean hura ere neuk hil behar, eta gehiago ez nauzuela ikusiko pentsaturik, zueri eman nahi nizuen aurrenengo berria, lotsaturik edo damaturik aldendu naizela inork pentsa ez dezan. Sinesten?

— Bai! —erantzun zuten, erdi moskeatzen hasirik.

— Ba, sinesten baduzue, eduki gogotan zer diotsuedan. Etsairik berriro ez etortzeko moduan defendatu behar da eta Bordalegin geratu direnak apenas gehiago etorriko diren, nik ere baliteke etxerik gehiago ez zapaltzea baina.

— Zer esaten ari haiz, Lea?

— Berriro esan behar al dut? Bi gizaseme hilak eta zakurra ere bai! Horren zaila al da hori ulertzea?

— Nongoak? Zergatik?

— Ez ezaidazue odolik berriz berotu, tenplätzen hainbeste kostata gero. Jakitekoak laster jakingo dituzue, eta orain banoa, bila etorri aurretik, animalietatik ikasia baitut aurpegiz

aurrera hil behar dela. Segi zuek jaiari eta ikusi arte, ez da berehala izango baina.

— Gogoratzen al haiz, Lea, —esaten dio Kirriñok adarra aspertzean— nola esan huen ez zela berehala izango? Hik sekula ez zela izango esan nahi huen, baina hemen gaitun berriro ere! Begiak zabalik zuloaren ingurua ere ikusiko dun, itxita berriz zuloa bakarrik. Ez al dun Bordalegi inoiz baino ederrago ikusten?

— Nork erosi ditik gazta eta irasagar hauek? —norbaitek hortik.

— Zer zeukatek, ba? —Kirriñok.

— Bata biguna eta bestea gogorra.

— Zer nahi duk ba, bata bestearen umeak izatea?

— Hemen irasagarra zegok, ordea, gogor eta gazta bigun!

Gauerdia esaten da, baina ez dakigu goizaldean gauden ere. Hobe astebetean argituko ez balu, baina Bordalegiko oilarrak bigarren errekontua jo du eta laster duk diana.

Diana jotzen ari da, ez oilarra, adarra baizik, baina ez Prudenen adarra, adar kirrinkaria baizik, egunean berrogeita hamazazpi bider belarrietatik sartzen eta inondik irteten ez dena.

— Zu al zara Xamela? —galdetzen du Leak goiko kamainatik behekoa, baina ez dago inor.

Prudeni ordea hamaika semeen artean ere ezin zioten buruan sartu ez zegoela bakarrik. Gure aitak esaten zuen jaiotzan bere burua eta ama galdutako neskato hura neu izango nintzela, handik hamalau belaunalditara berjaioa. Burua atara eta hamaika mutil aurretik ikusi zituenean, nora nator ni, esango omen zuen, noan berriro hutsera, ea beste aldiren

tean bakar jaiotzea tokatzen zaidan. Gure aitak Prudenek baino pena gehiago ematen zidan sarritan, baina honelakoa jaiio banaiz, zertarako aldatuko naiz ba? Prudenek ama-umeen hiletetan ez zuen negarrik egin, urteko ogia baino gogorrago baitzuen barrua, baina etxerakoan bigundu zitzaion ederki. Gau guztia jarioan pasatu zuen, Bordalegik soinean madarikazioa zeramala eta. Ez zaude bakarrik, aita, gu ere hemen gaude, esaten zioten semeek, baina hark esaten zuen denak zeudela bakarrik. Bordalegi emakumerik gabe ausporik gabeko soinua duk. Mutilak!, esan zien bakoitza bere mendi lanetara zabaldu aurretik, andre on bat lehenen dakarrena huraxe izango duk Bordalegiko oinordeko.

— Ona izan behar al du derrigor? —galdetu zioten semeek eta Prudenek erantzun:

— Emea izan dadila!

— Aurrera hurrengo lekukoa! —agintzen du epaiburuak. Martolori tokatzen zaio eta arduraz gaude, erdi totela baita. Nola ekarri duten ere! Orain ez zegok erremediorik.

— Zin egiten al duzu... eta hori guztia?

— Bai, jauna. (Ondo! Ederki erantzun zio.)

— Erantzun orduan fiskalaren galderei.

— Bai, jauna. (Hor erantzun behar al zian?)

— Zuen baimenez, jaunak, alderdi fiskalak lekuko honi galdetzea deklinatu egiten du. (Eskerrak. Aupa Martolo, beste hiru-lau bai jauna bakarrik falta zaizkik).

— Erantzun orduan hauzitegiaren galderei. Aizu, Martolo jauna —dio epaiburuak, paparrez gora mahai gainean aurreruntz eginez—. Egia al da Learen senargai izan zinela?

— Buelta batzuk egin genituen, baina ez dakit horri senargaia esaterik dagoenik. (Ondo! Bai jauna baino gehiago duk hori).

— Nola hasi zineten?

— Nola hasiko ginen ba? Umetatik lagunak ginen eta gero

hark Bordalegin eta nik Zabaletan bakarrik geratu behar genuela ikustean, esan nion, ba, horixe, esan behar zena eta berak erantzun zidan, ba, lehen ere lagunak ginela eta joanetorri batzuk egiteagatik ez genuela etxalderik jango.

— Nola amaitu zen hura?

— Niretzat gaizki, baina zer egingo diozu, ba? Behin Leak nahikoa zela esan zidan eta nik esan nion ea orduan zertan ibili ginen eta erantzun zidan, ba, erruki eman niola eta batez ere Bordalegiko aita zaharrari poz pixka bat emateagatik, oraindik bizi baitzen, baina suarekin jolasean ibiltzerik ez dagoela esan zuen eta hortxe amaitu zen dena. Laster hil zitzaion aita.

— Egia al da inoiz zizparekin irten eta ia garbitu zintuela?

— Jendearen esamesak.

— Zeuk ere aitortua duzu hori.

— Leak ez dauka inor garbitzeko bihotzik.

— Bi garbitu zituen ba.

— Halakoak izango ziren. (Hori Martolo! Nork pentsatu behar zian!)

— Zuri zer egin zizun?

— Behin, Bordalegin nengoen, laguntzera joanda, aita ospitalean baitzeukan, eta iluntzean etorri zenean, Bordalegin geratu nintzen afaltzen eta gero orduak aurrera berriketan. Gauerdi inguruan txakurrak zaunka eta zaunka hasi ziren, norbait etxe inguruan oso hurbil balebil bezala. Zaunka horiek ez dituk animalienak, esan zuen Leak. Etxeari buelta bat eman behar zioat, eta halaxe irten zen zizpa hartuta. Gau ilun iluna zegoen eta neu ere irten nintzen eta ez zitzaidan lekurik txarreanean jartzea besterik bururatu, etxe kantoian alegia, eta halako batean danba tiroa neure buru gainetik. Lea! , hots egin nion ikaraturik. Hi al haiz, esan zidan, bigarrena ez zuan hain goitik pasatuko. Hori al dun modua, suarekin jolasean ez dela ibili behar eta? Orduan esan zidan neu sartu nintzela jolasean gaizki eta tiratzean pentsatu zuela: lapurra bada aldeko din eta bera bada ez dun mugituko.

Etxe inguruan norbait baldin bazen, hankak astinduak beharko zituen eta txakurrak baretzean, berriro sukalderatu ginen eta orduan esan zidan: Etxea defendatzera ez zegok sonanbuluen moduan irteterik.

— Horrelako batekin ezkontzeko prest al zeunden?

— Norekin ezkonduko zara ba? Oiloarekin? (Ez jauna eta bai jauna baino gehiago zekik honek. Historia hori ez kontatzea ez al zunan hobe izango? Berdin duk, tiro bat airera botatzea gorabehera txikia duk hemen).

— Azkenengo galdera egingo dizut. Egia al da gizon bati herri guztiaren aurrean begia hondatu ziola?

— Neuk dakit hori nola izan zen, berbertan egokitu bainintzen. Elizan hasi zen funtzioa. Lea noizik noizera bakarrik etortzen zen mezatara eta beti azkenengo jarlekuan jartzen zen, handik atzeruntz gizonezkook zutik egoten ginelarik. Atzeko horien artean, korupean eta abar, beti izaten dira aldarera baino alboetara adiago egoten direnak eta norbaitek Leari, belauniko zegoela, hanketan zirri egin zion. Lea atzeruntz begiratu zuen. Gerotxoago berriro egin zioten eta Lea eseri egin zen eta halaxe bota zuen meza denbora guztia, ez zutitu ez ezer. Amaitzean, gizonezkook elizpean geratzen ginen, lagunarteka berriketan, neskak elizatik irte ten ikusiz eta abar. Lea irten zen, elizpe guztira begiratu zuen eta lagunarte batera zuzen joanik, mutil bati, ez nolanahikoa bera, paparretik heldu eta esan zion: «gizona bahintz potroetan emango nitek, baina hiretzat nahikoa izango duk bellarrondoko bat ere». Eta zapla eman zion. Elizpe guztia hitzik gabe geratu zen, baina begirik galtzerik eta horrelakorik ez, pixka baterako haunditu bazion ere.

— Itzul zintezke —agintzen du epaiburuak. Martolo burumakur erretiratzen da, gerrian pendulua balu bezala balantzatuz.

Pendulu legeak destinoa bera ere jotzen duela dirudi eta

goiz batez neska bat agertu zen Basagorriin, inork nondik ez zekiela, Bordalegi non zegoen galdezka.

— Bordalegi oso urrun daukan! —esan zioten, baina hark Bordalegi eta Bordalegi besterik ez zuen.

— Zaude bertan, mutilen bai jaitsi arte, ez dira oso maiz etortzen baina.

— Ez, joan egin behar dut —berriro ere neskak.

— Neuk lagunduko dinat —esan zion tabernariak.

— Inork laguntzekotan, ez nintzen honaino etorriko —moztu zion neskak.

— Bai neska misteriozkoa ere! —esan zuen gero tabernariak, hura joaten ikustean. Noizbait Bordalegiko lurra zapaltzean, txakurrek ez zioten harrera gogorrik egin, haiek ere emakume bat ikusteaz pozik nonbait. Pruden txakur zaunketara irten zen eta atean zegoen, atalboaren kontrara okerturik, etxe guztia gainean balu bezala, hura nor ote zen, harriturik ere bai, txakurrak gezur zaunketan ari zirela ematen baitzuen. Emakumezkoa zela igartzean, atariko bi mailak jaitsi eta aurreruntz zihoan astiro astiro, eta neska gaztea zela konturatzean, gelditu egin zen.

— Eguerdi on! —esan zuen neskak iristean.

— Hala ekarri —Prudenek erantzun.

— Hau al da Bordalegi?

— Berbera.

— Urrunago zegoela uste nuen.

— Nondik zatoz?

— Oso urrundik.

— Nora?

— Etxera.

— Hemendik ez duzu beste etxerik.

— Ni Bordalegikoa naiz.

Pruden atsekabearen atsekabez burutik lokatzen hasia zegoen gaizoa eta erditzean galdutako bere alabatxoa zela pentsaturik, negarrari eman zion, besarkatzeko ere adorerik gabe.

- Ez naiz zure alaba —esan zion penaz neskak.
- Nor zara ba?
- Iloba. Urdanetako Doriaren alaba.
- Zer entzuten ari naun? Haurdun aurreratua zegoela desagertu zunan hura!
- Neu nauzu haur hura.

Gure aitak historia guztiak narrazioz kontatzen zituen, baina neskaren etorrerako hau elkarrizketaz egiten zuen beti. «Neu nauzu haur hura» esatean, isilik geratzen zen, segitzeko agindu arte.

Lea isil isilik dago bere kabinan, espetxeko bisita gelan, pozik noizbait, emozioz ere bai, Kirriñoren bisita iragarri baitiote eta hara ez dela Kirriño bakarrik, Martolo ere bai, sonanbulu antzera datorrena gizajoa, Leak behinola eskarmentu ona eman bazion ere. Jende multzoa atean trumilka sartzen da bisitagelara, Martolo ere tartean, atalburuan txapela erantzten du, hau ez duk eliza Martolo, Kirriñok berriz ziritu bat nahikoa du edozer ikusteko eta Learen kabina, ezkerretik hirugarrena hamabiko errezkadan, berehalaxe erreparatzen du, hemendik Martolo!, ama galdutako bildotsa bezala dator jende artean, baina ez da konparazio ederra, hain haundia baita bera, okertuta ere buru erdi sobratzen zaiona besteen gainetik.

— Hemen gaude azkenean. Kaixo Lea! —esaten du Kirriñok.

— Baina Lea! —hots egiten du Martolok—. Estramine-tan edukitzen al zaituzte?

— Hau aska duk —esaten du Leak.

— Hemen ematen al dizuete jaten? —Martolok.

— Zer berri Bordalegin? —Leak.

— Dena ondo! —Kirriñok—. Ikusiko dun nola egongo den hi hatorrenerako. Aurten urte ona izan dun. Denetik eka-
rri dinat zerbait, baina gatzainak berde puntuan zeudena

oraindik. Artaburu hau ere ekarri dinat —Martolorengatik—, ez kostatu gabe. Hor atean eskua sartzen hasi zaizkionean, ez zeukanan kolore ederra, galtzontziloak jantzita etorri zen ezin gogoratuz, eta gero hurrengo atean ere berdin eta azke-
nean hor detektagailuan edo zer dun hori? Zekor haundia errezago pasatuko zunan, baina hemen hago Martolo, hor daukak ba heure Lea. Ba al dakin nolako kaparrada ematen zidan, ea noiz etorri behar genuen?

— Portatu zarete. Ez dakizue zenbat pozten naizen.

— Eta lasai, eh? Zuzendariarekin hitz egin dinat eta azaldu zionat nola ahaide hurbilik ez daukanan, lehengusu defunturen bat edo beste izan ezik, eta neu naizela Bordalegiz arduratzen naizena eta hala pakete dotorea sartu zionat eta baietz, hire etxeko moduan sar nintekeela.

— Ez daukak etortzen ibili beharrik. Nahikoa duk urtean behin ere.

— Urtean behin? Ni ez naun hi ikustera bakarrik etorriko, eh? Hemen jende mota asko zebilena eta horiek ikustea ere ez zegona gaizki, bueltan Basagorrin kontatzeko ere. Zer moduz hago?

— Gaur ondo, baina ez ezaidak hemengo galderarik egin. Konta ezaidazue Bordalegiko berri.

— Bordalegiko ardurarik ez izan. Ardiak kendu nitinan, buruhaustea besterik ez zidatenan ematen eta. Itxiturak egin eta animalia guztiak solte zebiltzana, baratza eta frutarboladi berria izan ezik. Badakin soro bat landaretu dugula, denetarikoa sarturik. Beste guztia heuk utzitako modu moduan.

— Txakurra bizi al duk?

— Biziko ez dun ba? Bigarrena erosi dinagu eta harekek ere hire falta hartzen duela uste dinat, Txintxok erakutsita edo. Ez dakin Txintxo zenbat gogoratzen den hitaz. Batzutan pena ematen din. Harrapatzen duen guztian hire logelara igon eta hantxe ibiltzen dun erdi auhenka, bazterrak alperrik usnatzen.

— Zaindu ondo hura, nire gorabehera harexen pentsu-

dan baitago.

— Nola hire gorabehera?

— Zain ezazue ondo eta jakingo duzue.

— Gogaitu ez al haiz egiten hemen, Lea?

— Esan dizuet hemengo galderarik ez egiteko. Basagor-
rrin zer ziotek?

— Zekorrik haundiena jan arteko afaria egin behar du-
gula hi hatorrean.

— Izango dik, bai, haunditzeko denbora, jaiotzeko ba-
dago ere.

— Ez dun horrenbeste izango. Zerbait gertatuko dun
bitartean, munduaren azkena bada ere.

— Azeririk ugaldu al duk?

— Bai eta lotsak galdu ere. Hi falta haizela igartzen dun.
Basagorrrin esaten dinате oraintxe jabetzen direla Leak Bor-
dalegitik zenbat mesede egiten zion herriari.

— Egunero joaten al haiz?

— Ia egunero, bueltatxo bat besterik ez bada ere. Hi la-
sai. Batak ez bada besteak Bordalegi zainduko dinagu. Txan-
kanek esan zidan ea hurrengo «udaberri eguna» noiz os-
patu behar duzuen, bera ere nora datorren dakiela etortze-
ko. Ah, eta ba al dakin Abeletzako Bitorianok ere etorri na-
hi duela?

— Zertara?

— Hil aurretik derrigor ikusi behar omen hau eta hi iku-
sitakoan burua trenari botata ere ez omen ziona ardura.

— Gizajoa!

— Beste berririk zer dinagu?

— Etxeak iraungo al dik?

— Zer esaten ari haiz, Lea? Iraungo ez din ba? Erreteila
egin zionagu eta hala ere dirua sobratu. Hor sartu dinat hire
izenean.

— Ez hadi dirurik ekartzen ibil. Euts ezaiozue etxeari eta
gorde zeuentzat ateratzen duzuen. Ni konforme nauk Bor-
dalegi utzitako moduan aurkitzen badiat bueltan.

— Hobeto aurkituko dun ba. Hi, hemen laster denbora

amaituko zaigun eta honek ere badin zerbait hiretzat.

— Hamar minutu falta dituk oraindik.

— Ez dun asko. Ni joan egingo naun eta...

— Nora joan? Hago amaitu arte!

— Usaina hartzen dinat Martolok hirekin bakarrean hitz egin nahi duela.

— Ez, beno, niri ez zidak ardura... —Martolok.

— Ez ala bai? —Kirriñok—. Beno, Lea, eutsi eta laster arte.

Lea eta Martolo isil isilik geratu dira elkarri begira. Eta denbora aurrera, hori txarrena. Lea Bordalegin pentsatzen eta Martolo pentsatzen duena nola azaldu ez dakiela.

— Zer diok ba? —Leak, norbaitek hasi beharta.

— Noiz arte egon behar dun hemen? —Martolok.

— Hori dakiena isilik zegok.

— Gero zer egin behar dun? Berriro Bordalegira?

— Nora joango nauk ba?

— Lea, ez zekinat nola esan ere, baina hik badakin lehen eta orain ere... Bazekinat urteak aurrera doazela eta Bordalegi eta Zabaleta gero eta urrunago daudela, baina ni prest negona behar den guztia itxaroteko.

— Oraindik ere buruera horrekin al habil? Zerbaiteko balio badik, euts ezaiok itxaropen horri, baina hemendik irtendakoan hitz egingo diagu, inoiz irteterik bada.

— Irtengo ez haiz ba? Egutegiak leku guztietan korritzen din.

— Hemen egutegirik egon ere ez zegok, Martolo. Hire gogoia estimatzen diat eta pena ematen didak, baina zer esatea nahi duk ba? Hau ez du horrelako hitzetan sartzeko lekua.

— Zer dun zalaparta hori?

— Amaitu dela. Joan beharra daukak.

— Nondik?

— Hik segi jendeari. Nahita ere ez haiz barruan geratuko.

Martolori lotsa ematen dio negarrez irteteak, baina kabina hotsak ez du barkatzen. Hemen ez dago sentimentuak gordetzeko lekurik.

— Datorrela hirugarren lekukoa —hots egiten du epaiburuak. Ez dakar itxura bikaina gizagaizoak. Gurpildun orgatxo batean, bi hankak ia mokorretatik mozturik dauzkan gizontxo bat dakarte, lehenago gizon ederra eta indartsua izana. Burua tente tente dakar, txapela poliki jarria. Noizbait lekuan jartzen dute eta izen-deiturak eta zina eskatu ondoren, fiskalak galdetzea deklinatu egiten du eta orduan epaiburuak:

— Aizu, Bitoriano jauna. Leak deklaratu du hilketen berri zuen etxean eman zuela aurrenen. Gogoan al duzu Leak zer eta nola esan zizuen?

— Izango ez dut ba? Baina gure andrea pixka bat, nola esango dut ba, zurruta ere maite du eta Lea etorri zenean, ez zen oso koadru polita sortu, gure andrea ez zen isildu ere egiten eta nik hura entzun nuenean... Oso tristea dena, orain zer egin behar dugu, Lea baitzen gure laguntzaile bakarra? Berarengatik izan ez balitz, baina orain zer?

— Barka, Bitoriano jauna, zure mina ulertzekoa da, baina zer esan zuen Leak zuenera iristean?

— Bi gizon hilda utzi zituela esan zuen, baina gure andreak ihi eta uhu besterik ez zuen egiten eta nik negarrari eman nion eta Leak sukaldetik pasabidera eraman ninduen eta esan zidan: Bitoriano, hire andreari ezer esatea alperrik duk orain, baina bi gizaseme hil ditiat eta zakurra ere bai. Hik ez daukak errurik, baina horrek badakik zer atze ekar lezakeen. Horixe esan zidan eta nik esan nion ea zergatik ez ninduen neu ere hiltzen, baina irribarre egin zidan eta sorbaldan joez esan zidan: hil oraindik luzaro bizi behar duk, eta igarri zuen bai, luzaroegi bizi bainaiz, neure burua hiltzeko ere gauza ez naizela. (Bitorianok negarrari ematen dio eta denoi ere begiak bustitzen zaizkigu). Baina pozik nago, Lea ikusteko aukera izan dudalako. Noiz itzuliko haiz Bor-

dalegira, Lea? Ni ez naun egongo... (eta berriro negarrari. Gizon hau testifikatzera etor erazi dutenek ez zeukatek bihotz haundirik). Baina igoyal bisitatxo bat egitera joango nantzain espetxera, eramaten banaute, zeren hi ikusteko...

— Bitoriano jauna. Hauzitegiak ez zaitu hauzituarekin berriketarako zitatu, galdera batzuri erantzuteko baizik. Egia al da Leak...

— Ez, jauna! —zotinka.

— Nola ez jauna, ez baitut galderarik amaitu?

— Ez jauna, ez jauna! —berriro ere Bitorianok, txapelarekin begiak xukatuz. Hauxe gauza tristea ikusteko!.

— Bitoriano jauna. Hauzitegiak galdera bat egin nahi dizu eta amaitu arte entzuteko agintzen dizu. Egia al da Leak esan zuela hirugarrenak ihes egiteaz beste penarik ez zeukala?

Bitorianok negar uluak egiten ditu, gero eta haundiagoak eta epaiburuak eraman dezatela agintzen du. Learen paretik pasatzean, golkotik sagar gorri gorri bat atera eta esaten dio:

— Har ezan sagar hau, Lea, aurten Abeletzan heldu den ederrena.

— Azokan gaudela usten al duzue? —orroe egiten du epaiburuak—. Eramazue gizon hori behar den lekura.

Luzianak bere senarra nola edo hala gelaratu zuenean, Bitorianok esan zion gau batekoagatik orgatxoan ere pasatuko zuela. Luzianak ezetz, ohera sartu behar zuela, eta hartan txakurrek norbait iragarri zuten. Ordu hauetan nor baina? Abeletzako txakurrek laztanka eta losintxaka hartu zuten Lea, etxean baino laztan gehiago hartzen baitzuten haren-gandik eta ogi koskorren bat ere bai, baina gau hartan Leak zuzen jo zuen atea. Nor da, eta nor izango dun ba?, Luzianak atea erdiz gora ireki eta linterna aurpegira bota zion eta Leak gogorki:

— Ireki ezan ganoraz atea eta piztu ezan ganorazko argia.

— Ene! Gure Lea berton! Zer dun ordu hauetan? Orain-

txe heldu zaik oheratzeko laguna, Bitoriano, iso, oheratzen laguntzekoa. Hau dun sargoria! Zer berri Bordalegitik? Sar hadi, andrea, sar, bazirudin ez haizela Abeletzan sekula izan. Tragotxo bat? Onetik zeukanat gaur. Bitoriano, egon pixka batean gizajo hori, oraintxe nihoak. Aspaldion ez haiz etorri, Lea. Zenbat denbora? Ah, atzo iluntzean. Nire buruarekin ere! Bitoriano, eman frenuari badaezpada. Bi ohol falta ditun gelan eta goizean ez zaidan ba ia bertatik joan! Eseri su ondoan. Oraindik putz eginez gero, bazegona txingarra. Hik sua eta nik egur pixka bat ekarriko dinat. Isilik hago. Sasian galdu al zain mihia? Oraintxe, Bitoriano! Ez zegok dena batera egiterik. Ji ji ji! Hik txurruplin eginda nagoela uste izango dun, baina ez dun horrena. Iloba etorri zaigun eta Bitoriano nonbait sartzeko lekua egiten ari ditun. Hemen baino hobeto egongo dun gizajoa. Gero ardo gozoari pixka bat tiratu zionat, baina kortxoa atera bakarrik. Nahi al dun basoerdi? Ah, ona amaitua zegona, txarretik beharko dun. Hau ustekabea. Santisima! Lehen ere estropozu txiki bat eginda sutara erori naun eta halaxe itzali dun. Su polita egin dun. Bai ederra hagoela! Zer berri Bordalegitik? Onez etorriko hintzen eztun, lehen ere galdetu dinat baina? Gure Bitorianok....

— Bitoriano! —esan zion Leak gelara joanda—. Hire andreak berbagailua martxan dik eta banihoak.

— Andre demonioa! Hizketan ez bada edaten eta edaten ez bada hizketan. Oraindik biak batera egiten ez din ikasi.

— Bitoriano, hiri esateko gogortxoa izango duk, baina bi gizon hilda etorri nauk.

— Zer dion, Lea?

Leak sukaldera itzuli eta baso haundi bat ardo atera zion Luzianari.

— Non topatu dun hori? Neuk baino hobeto dakin gure etxeko berri. Hik ez al dun nahi?

— Edan ezan lasai, andrea.

Luziana ardoa edaten ari bitartean, Leak esan zuen:

— Bitorianori esan zionat bi gizon hilda etorri naizela.

— Bi bakarrik? —edan ondoko korroskada artean—. Nik gaur goizean ere bost untxi hil ditinat eta ilobak lau eraman.

— Gizonak, Luziana, gizonak, ez untxiak!

— Gizonak zertarako ditun ba, gure Bitorianoren modukoak izan ezik? Horrek bai merezi din bizitzea, berak hiltzea nahiago duela esaten din baina. Bi gizon zer?

— Bi gizon hil! Ez al dakin zer den pun pun eta hil?

— Eta bestea?

— Hik nola dakin zenbat ziren, sorgin horrek?

— Zenbat ez zekinat, baina gizona besterik ez zegona munduan.

— Baina Bordalegin bi. Bi gizon hilak eta zakurra.

— Zakurra ere bai?

— Hura ere hila.

— Bitoriano! Entzuten al duk gizajo horrek?

— Eta beste baten bila. Etxe honetan ez al din inork aterik jo?

— Inori aterik zabaldu al diok, Bitoriano?

— Orduan goazen! —esan zuen Leak, Luzianari besotik heldurik eta Bitorianori laster etorriko gaituk esanez.

— Nora zoazte? —negar egin zuen Bitorianok bakarrik geratzean.

Etorri bazen etorri zen eta geroak esango zuen hura etortzea hobe izan zen ala ez, baina Prudeni inoiz ez bezalako gogoia etorri zitzaion adarra jotzeko. Bordalegi gaineko tontorrera igon eta lau haizeetara ez ezik, haize zirritu guztietara jo zuen. Semeak berehalaxe abiatu ziren mendi sakabana natuetatik Bordalegiruntz, inoiz baino bizkorrago eta espektanteago haiek ere, halako adar hots bortitza entzunik, zer gertatzen ote zaio gure aitari pentsatuz, neguko eulia baino hilago baitzegoen, baina hilak piztea ere badela esaten dute eta ea geurean gertatu den aspaldian inon ez dela gertatzen esaten dutena. Txikienetik haundienera hamaika mutilak Bor-

dalegiko sukaldean batu zirenean, aitak teatro haundiz (erotasuna osasuna ote duk ba?) hogeita bi begi ezin irekiago haien aurrean hogeita bi belarri ezin harrituago haiei esan zien:

— Mutilak! Bordalegi gaur hasten duk ganoraz. Neu nintzela bide betiko okertu zela pentsatuz jan behar ninduen harra hil aurretik libratzeko zoria izan diat.

Prudenek adarra jo zuen, norbaiti deituz, eta goiko solairuan oin hotsak ziren tiki taka. Haurren bat? Ez, haundiagoa ematen dik. Eskilaretan behera zetorren, xuabe eta bana banaka, eta azkenean hemen bera, hots egin zuen Prudenek, hemen gure Garoxa, zuen lehengusina eta Bordalegiko lehenengo alaba. Mutilak dena ziren begi eta dena ziren harri, destinoaren zein haritan zebiltzan situatu ezinik, liluragarria benetan, destinoa gupidagabea baita, baina batzutan huraxe ere jolasean dabilela ematen du, tripak geure gozamenerako agertuko balitu bezala, eta Bordalegiko mutilak, txikienak aurrenengo zirela, haurtxoa bildots jostariaren aurrez baino liluratuago zeuden, aitaren adarraren lilura dudarik gabe, lehenengo joaldi triste hartatik oraingora bazegok alde, eta neuk ere uste dut gure aitak hori kontatzen zuenean, Prudenek berak baino sentimentu gehiago sartzen ziola eta inoiz pentsatu izan dut ea dena geure aitaren buruko besterik ez zen ere, baina hala nahiz hola, Bordalegiko historia norbaiten odoletik hartu behar nuen derrigor. Prudenek Garoxari besotik heldu eta argi sor berria lehenengo aldiz erakutsiko balu bezain harro esan zuen:

— Mutilak! Bordalegi izar honexek hautatzen duenarena izango duk. Eta hik, Garoxa, hemen dauzkan hamaika, Judas kendua baita, hauta ezan nahi dunana bildurrik gabe.

Prudenek larreko zekorrik dotoreena hiltzeko agindu zuen, adar puntatxoak ez irten bai irten zeuzkana, eta gure aitak esaten zuen mahaitik altxatu zirenerako, ilargia hiru bider pasatzen ikusi zutela.

Lea altxatzen da, patioa zeharkatzen du, ilargia murru gainean ikusten du eta bisitagelako kabina estuan sartzean, hankek huts egiten diote:

— Bitoriano! Nola hi hemen?

— Heu ikustera.

— Nork ekarri hau?

— Ilobak. Gure andrearekin ibilera segururik ez dagoela badakin.

— Hau ustekabea!

— Ez al ninan etorri behar?

— Ez diat hori esan.

— Ilobari esan nionan: eraman nazak Lea ikustera, kostatzen dena kostatzen dela.

— Non zegok iloba?

— Ez ziotena sartzen utzi.

— Nork sartu hau honaino?

— Bi presozairen artean hementxe utzi ninate eta orain-
txe etorriko zaizu esanda joan ditun.

— Sinestea ere!

— Neuk ere ez, baina orain bai. Oraintxe hiltzeko mo-
duan negona.

— Zer diok, Bitoriano? Hi ez haiz hilko neu itzuli arte.

— Hi itzuli? —Bitorianok negarrari ematen dio.

— Usterik gutxienean.

— Ez ni bizi naizela.

— Bai biziko haiz! —Leak ere ez daki negarrari eusten
saiatu ala bertan behera utzi.

— Ez ninan hi ikusi gabe hil nahi. Ikusi haut eta orain
ez dinat bizi nahi.

— Trenari burua bota behar al diok?

— Nahiago niken horrenbesterako abildaderik banu.

— Hau duk bisita modua tokatu zaidana.

— Ez al henkien?

— Bisita nuela, baina nor ez. Nik pentsatuko nian ba hi
egongo hintzela hemen?

— Epaiketan ahalegina egin geninan, baina horiekin alperrik dun.

— Ez ezak horren kezkarik izan, Bitoriano. Preso egoteko ere, motibo ederra edukitzea bezalako altxagarririk ez zegok.

— Askok sufritu beharko dun hemen, eztun?

— Ez hik kanpoan aina.

— Hik ez dun merezi baina.

— Zer moduz Luziana?

— Badakin. Edan gabe ezin egon eta edanda ezin isildu. Hi falta haizenetik arduratsuago zebilena, baina haren karreroiak txasisa falta din. Nik berriz huraxe behar eta hortik atera kontua, baina gaur pozik naun eta hor konpon.

— Hori duk hitz egiteko modua hori!

— Noiz arte egon behar dun hemen?

— Utziok horri. Hemen ere bazekiat neure burua beteko lekua egiten.

— Ba al dakin Bordalegi lehen baino ederrago dagoela?

— Destinoaren deskargak ingurua edertzen dik beti.

— Ez ninan horregatik esan nahi. Etxaldea hobeturik topatuko dun. Basagorritarrak portatzen ari ditun, geure andrea aurrenengo dela.

— Bazekiat. Bazekiat Bordalegi ondo zainduta dagoela. Zer gehiago behar diat?

— Lukainkak eta intxaurrak ekarri dizkinat. Diru pixka bat ere bai, hil naizela jakitean ospa dezanan.

— Berriro ere hil kontua?

Presozainak badatoz eta Bitoriano badaramate bere orgatxo errukarran, ez agur ez ezer. Goazen entzunaz batera txapelari bi eskuekin heldu eta aurpegia ezin estaliz aldendu da, epaiketako hartan bezala.

Kirriñok lekua libre utzi duela ikusirik, Martolo kurioso kurioso Learen ondoan esertzen da, denok horixe noiz egingo zuen zain geundela ohartu gabe. Eseri eta isilik, hurrengo dantzaldia hasi arte, bitartean Leak basoa betetzen diolarik.

— Lea, ni lehengoan naun.

— Neu ere bai, baina hobeto.

— Oraintxe dinagu Bordalegi eta Zabaleta bat egiteko aukera.

— Urrunegi zeudek horiek bat egiteko.

— Berdin dun, bitartean zor den bidea egon ezkerro.

— Nik ez diat zor den bidetik ibiltzerik maite.

— Nondik ibili behar dun ba?

— Neuretik.

— Zergatik bizi behar dinagu bakarrik eta triste, elkarrekin bizi ahal izanda?

— Orain arte bizi izan gaituk.

— Baina orain bakarrik geratu gaitun.

— Txarra al duk hori?

— Ez dinagu ezkonduen zerik egin beharrik, neba-arreba moduan bizi gintezkena.

— Zergatik ez lagun moduan?

— Nahi dunan moduan.

— Lagun moduan hi Zabaletan eta ni Bordalegin hobeto konponduko gaituk.

— Ez al zegona beste modurik?

— Hago lasai. Lagunduko diat.

— Lagundu bakarrik?

— Aizak, Martolo. Hainbeste denbora ehortzirik egin da, utz ezaidak pixka batean lur gainean ibiltzen ikasten. Ez duk erreza, ederra duk baina.

— Betiko kito orduan?

— Ez hadi haurra izan, bularrak joanda zeuzkeat eta. Espetxean negarrari ematea barkatzen diat, baina gaur ez. Ez al duk entzun eztaietan gaudela?

— Noren eztaiak? —galdetzen du Martolok bete betean.

— Gizona! Berriro ere jango dituk hik gabonetan gereziak. Esaiok Txankani adarraldi bat jotzeko.

Garoxak Prudenen semerik zaharrena, Abundio izenekoa, hautatu zuen eta hara historia berriro bideratua. Garoxa da gure aitak sentimenturik haundienez aipatzen zuen emakumea. Bordalegitik amaren sabelean desagerturik, sabel oparoz itzuli zen Bordalegira. Inork ez zuen geroztik ama haren, Urdanetako Doriaren, berririk jakin. Garoxak ez zuen sekula hartaz hitzik egin, ez eta bere Bordalegira arteko bizitzaz ere. Amaz edo haurtzaroaz galdetzen ziotenean, beste lan bat hasten zuen beti edo beste solas bat, haurren bati zertan ari haiz, mokoti, eta hala. Pruden hiltzerako, mutilik gehienak etxetik kanporatuak ziren, ezkondurik edo urrungo lanetara, zazpigarrena eta laugarrena izan ezik. Abundiok eta Garoxak bosgarren umea justuan erakutsi ahal izan zioten Prudeni, aitona gaizoa iloba berria ikustean bertan hil baitzen, begiak zabal zabalik, eternitate guztian Bordalegira begira.

— Aurrera azkenengo lekukoa! —agintzen du epaiburuak eta hemen bera.

Badator, badoa. Learen paretik pasatzean, esaten du:

— Kaixo Lea! Ez hago horren galdua. Zutik egon behar al dun...

— Lekukoak ez dauka hitzik, galdetzen ez zaion bitartean! —mozten du lazki epaiburuak.

— Jeesus Maria! Ondotik pasatu eta hitzik ez esatea ere!

— Zaude isilik, andrea! —txilin hoska— eta jar zaitetz idazkariaren mahai aurrean hauzitegiari begira.

— Paper artean betaurrekoak galduta dituen hau al da idazkaria?

Ene ama! Hau funtzioa datorrena. Leak ere aurpegia es-

ku artean gordetzen du, barre ala zer egin ez dakiela. Nori bururatu zaiok hau lekuko ekartzea?

— Isilik zu eta isilik aretoan! —berriro ere txilin hoska. (Nola egon ordea isilik? Basagorriko dendan sartu dela us-ten din horrek. Ea botila bat ardo eskatzen duen. Ea gona-petik ateratzen duen). Isilik aretoan esan dut! Zu al zara Lu-ziana Barrena Furundarena?

— Bai, jauna, Barrena aita partetik eta Furundarena ama partetik eta aiton-amonen partetik ere izango zen zerbait.

— Erantzun ezazu laburki eta galdetzen zaizunari baka-rrik.

— Bai jauna, Basagorri esaten dute hitz eginda ulertzen dela.

— Zin egiten al duzu egia esango duzula eta egia besterik ez duzula esango?

— Jeeesus! Horretan gaitun ba! (Hemen zetorrek deskojonoa).

— Erantzun orduan alderdi fiskalaren galderei.

— Hau ez da haziendakoa izango baina!

— Aizu Luziana anderea —hasten da fiskala—. Hazien-dakoa naiz bai, eta hitz alperreko bakoitzeko, hogei hoger-lekoko errekgua daukazu.

— Ez da asko, isilik egon ezkerro, baina nik...

— Hara, Luziana anderea.

— Esan, esan bildurrik gabe.

— Utziko al didazu galdetzen? Ezagutzen al duzu atzean daukazun emakume hori?

— Ezagutuko ez dut ba? Hori jaio zenean, neu ibili nin-tzen emaginaren laguntzaile eta...

— Ederki, ederki. Jaiotzeko konturik ez zaigu ardura, he-riotzakoak baizik. Egia al da Leak hil zituela aitortu duen bi gizasemeen hilotzak zuk ikusi zenituela lehenen?

— Lehenen berak ikusiko zituen, ezta? Nik egia esateko, gau hartan ikusi ere ez nuen ondoegi ikusten, baina...

— Baina ikusi zenituen. Gogoratzen al zara Leak zer esan

zuen?

— Hitz gutxi egiten du horrek. Gure etxera etorri zen eta nik ez dakit zer burualdik eman zion, besotik heldu eta airean eraman ninduen Bordalegira. Oraindik hementxe daukat marka ere. Emakumea izateko, horrek daukan indarririk ez dagoela jokatu nuke estranjeria guztian ere.

— Hilotz haiek nork hilak zirela esan zuen?

— Neuk ere egun batzutan dozenerdi untxi hiltzen ditut eta zer?

— Esan al zuen berak hil zituela?

— Jakina! Nor joango zen Bordalegiraino haiek hiltzera ba?

— Gehiago ezer ere ez, jauna —amaitzen du fiskalak.

— Erantzun orain hauzitegiaren galderei —epaiburuak.

— Bai jauna, bai jauna. Galdetu bildurrik gabe.

— Learekin zer harreman izan duzu zuk?

— Ai jauna. Berorrek ez daki Lea nolakoa den. Harremana? Auzorik hurrenak gara eta hortik atera kontua. Gure gizonak ere, gizajoak orain askorik ez du balio baina, Lea aldendu zenez geroztik ez du bururik jasotzen. Lehengoan antzinako lagun zahar bat bisitatzera etorri zitzaion, gizon modu ona bera, eta zer moduz Bitoriano, galdetzean, esan zion: eskopeta gabe etorri al haiz?, eta niri berriz besterik ez dit galdetzen, Learen berririk? Ez da neuk esateagatik, baina beste guztiok Jainkoak eginak bagara, Leak gutxienez Jainko pareak eginak izan behar du.

— Aizu, Luziana anderea.

— Bai eta andrea ere, familiarik ez dugu izan baina. Gure senar gizajoak ahaleginak egin zituen, baina...

— Ederki, ederki. Hori ondo dago, baina zergatik hil zituela esan zuen?

— Nik ez nion galdetu ere egin. Niri hilotzak zaintzeko esan zidan eta gau guztia hantxe bota nuen, Basagorriko jaie-tako txapliguak eta soinu hotsak entzuten. Haizea alde dagoenean, Bordalegitik ederki entzuten da. Esan nion Leari,

a zer suertea daukazuen, guretik ez dun trena besterik entzuten, tuneletik ernegatuta irteten denean.

— Egia al da gau hartan pixka bat, nola esango nuke ba, zurrut egina zeundela?

— Ardo gozotik gainera. Egun hartan gure Bitoriano nonbait sartzeko, iloba bat...

— Noiz egin duzu azkenengo zurruta?

— Azkenengorik ez Jainkoarren, eta pixka batean ez nuke...

— Baina esan nahi nuke gaur goizean ala atzo ala...

— Hori azkenaurrekoa izan da, ez dakit aurreko zenbatgarrena baina. Jainkoak osasuna eman dezaigula eta horixe da hemen beharrena eta zurruta ere bere neurritxoan zergatik ez ba? Jendeak bata eta bestea esaten du, baina berori ere ikusi nahi nuke nik gu bizi garen parajea, han ez dago...

— Hara, Luziana anderea edo andrea. Hemendik aurrea egiten zaizkizun galderei bai ala ez bakarrik erantzun ezaiezu mesedez, aditu al duzu?

— Bai ala ez hutsean ala bai jauna eta ez jauna?

— Hutsean!

— Bai, bai, bai.

— Baina behin bakarriik! —mahai joka.

— Jesusen ama parteko amonatzoa! Hauxe dun hizketan alperrik jakitea.

— Alde bistatik mesedez!

— Beste sozio horiek ez al didate ezer galdetu behar?

— Joateko esan dizut!

— Nora ekarri haute? —diotsa Luzianak Leari, paretik pasatzean.

— Hauek ez ditun untxiak! —esan zion Leak Luzianari, hilotzen aurrera iristean.

— Haundiak ditun bai! —hots egin zuen Luzianak, hilotz baten hankan estropozu eginda, baina hilen gainera eror-

tzeko gogorik ez zuen nonbait eta artez artez jarri zen, bu-ruari eraginka, Leak linternaz hilotzen aurpegietara enfokaz-zen zuelarik, nola bota hituen biak hain bat batera, Lea, bata mutil ederra, bestea bizirik utzita ere ez huen askorik galdu-ko, baina biak hilak zirenez gero, kandela bana jartzea ez zela gaizki egongo, hilak badaezpadakoak baitira ilunetan, eta olio pixka bat ere bai arimari irteten laguntzeko, hilak biziak baino geureagoak ditun, Lea, izara zuri bana gainetik botatzea komeni zen, hori jakinik etxean hartuko ninan, Bi-torianok ere Abeletzako defuntu guztiak estalitako izaran lo egin nahi izaten din, lehenengotan ez omen zuen lorik egi-ten, baina azkenean beharko, hankak moztu zizkiotenean. Luziana hilen artean eta emagintzan ibiltzen zen gustoren, bere saltsan jaiotzako uretan eta heriotzako olioetan, eta ure-rik oliora bitartean ardo gozoa, merkeena ere gozoa beti, bai-na Bordalegiko hilotzen aurrean gero eta geldiago eta serioago zihoan, zer egin dun Lea? Honek berriz alperreko galderei erantzuteko gogorik ez eta aurreruntzean horixe galdetuko zioten denek, baina hauek behintzat ez dinате Bordalegiko urruntasunik gehiago desafiatuko, bai ondo jo ere, papar pa-rrean zuloa, Luzianak hilotzen buruak alboz jarri zituen, hi-lek ez dinате zerurik ikusi behar, bata alde batera eta bestea bestera, hilek ez ziotena elkarri begiratu behar, hatz puntaz odola ukitu eta sudurrera eraman zuen eta ardo garraztua-ren usaina hartu zion, nor edo zer zitunan hauek, baina Leak Bordalegiko animalien arran hotsa besterik ez zuen entzu-ten, gero eta hots haundiago, zenbat animalia zegona gu-rean?, zakurrarekin bat gutxiago, hura ehortzia zegoen baina.

— Zer egingo dinagu, Lea? Ehortzi ala gorde?

— Gorde? Hi ez hago burutik sano.

— Zerbait pentsa dezanan esan dinat. Egunsentia hilen gainera etortzean, mantxa huraxe geratzen zaion betirako eta hemen bat ez ezik bi zeudena.

— Hirugarrenak ere hortxe behar zinan.

— Utz ezan bizirik ere norbait.

Gauerdia gainbehera hasia zen eta Leak izar bat dzist ihesi ikusi zuen, goraintziak, eta gerotxoago beste bat, zerua hustu behar ote dinagu?, beharbada eguzkiari ez etortzeko esatera joan ziren, etorrira ere nik ez dinat ikusiko baina.

— Noizbait ikusiko dun, Lea. Hoa lasai, Bordalegi zainduko dinagu.

— Hik zain hitzan hilak. Zain hitzan hilak, Luziana, eta Bitoriano ere bai.

Lea azkenengo aldiz abiatu zen Bordalegitik Basagorrira eta handik auskalo nora.

Perranek ez zuen Basagorritik Bordalegirakoa errez egin, diruz baino urtez kargatuago, baina Bordalegiko atarian Garoxa irten zitzaionean, bihotza begietatik hustu behar zitzaion eta etxe aurreko jarlekuan eseri zen, zutik egon ezinez.

— Zer duzu, gizontxoa? — galdetu zion Garoxak aurrean kokoriko jarririk eta Perranek hitz erdika erantzun:

— Zer dudan? Heure antza, alabatxoa, heure antza.

Garoxak agureari aurpegia bizarretik eta iletik libratu zionean, barruak buelta eman zion. Aita-alaba berdinagorik ez zitekeen apropos ere egin. Hurrengo hitzean Prudenen galdea egin zuen Perranek eta hila zela entzutean, berriro begiak busti zitzaizkion. Lehenengo emozioak pixka bat baretzean, zutitu eta Bordalegiri begiratu zion, Garoxak zer moduz Indietatik galdetu bitartean, baina Perranek erantzun zion lehenari bakean uzteko, animalia batzuek itzarkera txarra izaten dutela eta. Garoxak bazekien hori, berak ere ez baitzuen Bordalegira itzuli aurrekoaz fitsik esaten, baina beharbada orain aita-alabek zirkuitoa egingo zuten, zirkuito itxia nolnahi ere, inork ez baitzien ez batari ez besteari ezer erasan. Perranek esaten zuen bakarra zen Garoxa zuela alaba bakarra eta besterik ez zitzaiola sekula tentaziotik ere pasatu eta Garoxak esaten zuen bakarra zen bera zela amaren alaba bakarra, baina ama hura, Doria Urdanetakoa, ez zen

Bordalegira itzuli, Perran egun horrexen zain jaikitzen zen goizero baina. Ederra zegok Bordalegi, ez zuen besterik esaten agure gaizoak, etxeari bueltak eta bueltak emanaz. Azkenean, Garoxak barrura sartzeko esan zionean, Perranek atariaren aurrez aurre gelditu eta esan zuen:

— Zer izango naun Bordalegin? Aitona ala osaba?

— Nahi duzuna, aita —erantzun zion Garoxak, oilorik ederrenari lepoa mozteko aginduz.

Bordalegin zazpi seme-alaba ziren, bost mutil eta bi neska, eta beste hiru hilak, bat jaiotzean, beste bat haurretan eta hirugarrena gaztetan, zaharrena berau. Perran iristean, gazteenak hamar urte zituen, neskatxoa bera, eta beste seiak hamaseitik hogeita laura eskilaran zihoazen. Garoxa oraindik sasoiko zegoen, bai eta Abundio ere urtez, baina gerritik okertzen hasia, lan gogor asko egina baitzen, bai eta atsekabe asko jasana ere umeak hiltzean, eta haundiena Perranek ekarri zuen. Ez aitona, zuk ez duzu ekarri, baina hark ezin zuen burutik kendu bere atzetik etorri zela gerra, astebete garrera adin batetik gorako mutil guztiak altxatzeko agindua etorri baitzen, eta egun batetik bestera dena zen sua eta hilketa, zein alderditatik jarri behar zen jabetzeko ere asti gabe. Bordalegiko bost mutilek gerrara joan behar zuten, iheslarien miseriari helduko ez bazioten.

— Joan behar baduzue, abiatu mutilak, bila etorri aurretik —esan zuen aitona aboskerarik tristeenez, gure aitaren kontakeran behintzat.

— Triste al hago, Lea? —galdetzen dio Kirriñok dantzatik gorri gorri eta izerditan datorrela.

— Triste ez, baina larregi duk hau —dio Leak.

— Hainbeste urte egun honexen zain egonda?

— Larra dena duk txarra.

— Goazen dantzara. Hankak nekatzea buruaren atsedenarena dun.

— Begira hobeto negok, ibiltzen ikasi arte.

— Ibiltzen ikasi?

— Hainbeste denboran zelaia besterik ez zapaltzearena edo ez zekiat zerena den, baina aldapa pixka bat harrapatzean, erori behar dudala iruditzen zaidak, abere perratu berria bezala.

Leak nahiago luke inork begiratuko ez balio, baina tärteka denok dugu hari zerbait esan beharra eta hainbeste izanik, beti du norbait inguruan, Txankanek adarra jotzean izan ezik. Beharbada geure irudipenak izango dira, baina ez du hain pozik dagoenik ematen, edo bai beharbada, nork jakin. Pozetik tristera berehala pasatzen da, baina beharbada tristetik pozera ez da hain erreza izango. Izan dadila nahi duena, jo Txankan adarra, zahagi hau zimeldua zegok. Kafea ere izango diagu, eztuk? Gaur edo inoiz ere ez, eta gainera bai egokitu ere, ilargi bete bete goruntz.

— Lea, ez al dakin hi joan aurretik eguzkia hartzea bezala, orain ilargia hartzea modaratu dela?

Luziana dántzatik bezala dator, edo azokatik bueltan hobeto, gona ere alderdi batetik bestetik baino dezente luzeago eta Learen paretik pasatzean, nola ez, geldialditxo, hilak ondo zainduak zeudena Lea, eta pixka baterako berriketa genuen, polizia kankailu batek besotik tiratu ez balio, oilo zaharrari bezala.

— Lekukoen aitorketa amaiturik, ministeritza fiskalak dauka hitza —esaten du solemneki epaiburuak.

— Zuen baimenez, jaun agurgarriak. Ministeritza fiskal honek aitortu nahi luke gaurkoa baino lan errezagorik ez zaiola karrera guztian inoiz gertatu eta uste du beroiek ere, jaun agurgarriok, nekez izango dutela zalantza gutxiagoko epairik hartzeko kasurik. Hala ere, beroein zuzen sen mairurgaitzari, hainbeste ebidentziaren aurrez, zerbaitetan hutsik ote legokeen kezkarik sor ez dakien, hilketa bikoitz ho-

netako egiteak eta zirkunstantziak ahalik laburkien eta argien biltzen saiatuko naiz. Bi hilketa dira, jaunak, salatuak bietan jabetasun osoa aitortu duelarik. Beroiek entzun dute, hariturik bezain zirraraturik, eta ez salakuntzaren ahotik, salatuaren beraren ahotik baizik, hotz hotzean eta jakin jakinean hil zituela. Eta bi haiek hiltzeaz gainera, hariturik entzun dugu hirugarrena salbatzeaz beste penarik ez zeukala.

Nola hil zituen? Bere buruaren defentsan? Guztiz alderantziz, jaunak. Erasorik inpuneenean. Bordalegiko sukaldean, bi hilek indizio misterioitsu hura bortxaz sartu ziotela emanik ere, ez zituen sukaldean hil, etxe atzean baizik, joan zihoazela eta ilunaren babesean. Joaten uztea besterik ez zeukan, gaur honen hauzi krudel hau juzkatzen egon beharrik ez izateko.

Egite eta zirkunstantzia hauetaz gainera, ikusten al duzue, jaunak, zer jarrera arbuiozkoa eta desafiakorra dion zuzenbideari? Epaiketa guztia zutik darama, hauzitegiari murturretan emateagatik, eta hori gutxi zela, hauzibiderik oinarrizkoena ere errefusatu egin du, defentsari asma litekeen lotsaririk haundiena pasa eraziz. Nor da biziak bere gogara exekutatzeko eta gero zuzenbideaz ere burlatzeko ausardia dakarren emakume hau?

Azkenik esan beharra dago ministeritza fiskal honek, errugabetasunaren zirrituren bat aurkitu nahirik, eritasun mentaletan espezializaturiko mediku talderik adituenetariko bat bidali zuela presondegira, ea aringarriren bat bederen aplikatzeko aitzakirik ateratzen zuten, baina zoritxarrez, beroiek eskuetan daukaten txosten ezin argiagoak indulgentziarako tentazioak ere errotik moztu ditu.

Egite sobera frogatu hauek honela, eta lekukoek aitorzizak tarteka lotsagarrikeria besterik ez duela aportatu emanik, ministeritza honek bere eskariari oso osoan eutsi beharra dauka, legedi penaleko zigorrik gorenak eskatuz. Hogeita hamar urteko presondegi nagusia Van Goghen hilketarengatik eta beste hogeita hamar urteko presondegi nagusia Sene-

behar duela ez al duzue uste?

— Zer diozu, emakumea? Ez al dugu berriketa polita izan?

— Oso polita bai, espetxeak daukan lekurik txukunenean. Honelako xerarik hartzen ohitu gabe geunden. Entzuten al duzue korneta hori? Egunean hainbeste aldiz eta hain gaizki jotzen entzunda, ez da harritzekoa zoratzea.

— Baina Lea! Zer sano eta zer zoratzee esaten ari zara, errutina hutsezko inspeizio mediku arrunta besterik ez baita izan?

— Eta nola nagoela atera duzue?

— Ezetz ba, Lea!

— Hara, jaun-andreak, gauza bat esango dizuet. Zorotasuna ala minbizia galdetzean, gehienek minbizia nahiago dutela erantzuten dute. Zuek?

— Zertara dator galdera hori?

Sikiatra-sikologoak ere zutitzen dira, gutxienez Learen pare jartzeko, preso baten begirada altuxeagoari ezin eutsiz, desarmaturik sentitzen baitira. Ez dakite zer egin, errespetoa eskatu ala jokoa irabazten saiatu, test guztia hain ederki eramanda gero. Leak hitz gutxiz baina zuzen erantzun dio denari, Bordalegiko historira galdetzaileen ustez maizegi jotzen bazuen ere. Hortxe zegok klabereren bat, pentsatzen zuten, baina nork ez dauka erreferentzia obsesiboren bat, esaten zuten. Eta Leak orain:

— Doktore agurgarriak, ni ez naiz zoraturik ez nagoela segurtatzeko bezain zentzuduna, baina zuek bidali zaituztenari esaiozue egun hartan bururik argienaren jabe nintzela.

— Ederki, Lea. Zurekin azpikerian ibiltzerik ez dagoela dirudi, baina pentsa ezazu zure salbabide bakarra txosten honexen gorabeheran dagoela.

— Zein salbabide?

— Ez al dakizu nolako hondamena eskatzen dizuten?

— A zer salbamena sartu nahi didazuen, zorotasuna minbizia baino txarragoa baldin bada.

— Hori epaiketarako konponketa bat besterik ez duzu, Lea. Pozik egon behar zenuke honelako aukera edukitzea-gatik. Ez al duzu hainbeste presokide zoro buru egiten ikusi? Legeak epaituko bazaitu, zergatik ez legeak berak jartzen di-zun ihespeideaz baliatu?

— Nik ez dakit lege horien berririk. Egitekoak Bordalegin egin nituen eta Bordalegitar segitzen dut.

Haiek ere Bordalegitarrak ziren, baina bost mutiletatik bi besterik ez ziren gerratik itzuli, ez gutxi ere, Bordalegin ez baitzuten urteetan inoren berririk izan. Agian berriak bi-daliko zituzten, baina Bordalegira orduko bidean galtzen zi-ren, garai txarra baitzen gora eta behera ibiltzeko. Gerra noiz amaitua zenik ere ez zekiten eta ez zen harritzekoa, gerra haiek ez omen baitzen jakiten ez noiz hasten ez noiz amaitzen ziren, gure aitak esaten zuenez. Halako batean mutil bat etxeratu zen eta lehenbiziko galdera, bestea zer? egin zioten, bera etortzea gutxi balitz bezala. Ez dakit, erantzun zuen mu-tilak, gosea eta nekea besterik ez baitzekarren. Gerotxoago esan zuen bere alderdikoak behintzat hilak zirela denak eta Abundiok orduan ea alderdi berean ez ziren ibili eta mutilak ezetz, hiru batetik eta bi bestetik burukatu zirela.

— Eta zer egin duzue? —Abundiok.

— Guk galdu —erantzun zuen mutilak eta orduan aitona Perranek gure aitak ehun mila aldiz errepikatzen zituen hitz hauek esan zituen:

— Gerratik irabazle edo hilotz itzuli behar duk.

Geroztik hilabetera, beste mutil bat itzuli zen, hau ere go-sez eta nekez kargatua eta honi besteen berririk galdetzen ez ziren ausartu.

— Hi ere galtzaile al hator? —galdetu zion aitona Perranek.

— Guk irabazi egin dugu —erantzun zuen doi doi muti-lak, bigarren katilukada esnea arnasa batean sarturik. Beste

anaia ere, galtzailea alegia, han zegoen eta Abundiok bururik altxatu gabe esan zuen ea orain gerrak etxean segitu behar zuen eta Perranek Indietatik itzultzea bururatu zitzaion eguna madarikatu zuen, han sikira ezer jakin gabe hilko ninduan. Tenplerik nekez galtzen zuen Garoxak ere ezin izan zion odolari eutsi eta begi malkotuak gero eta sutuago, gure aitari hainbeste aldiz entzundako hitz hauek esan zituen:

— Apaizak umeak ekartzeko agintzen, gero denak gerran galtzeko!

Zorionez nire garaian halako zoritxarrik ez da Bordalegin izan, neba bakarra izan baitut eta bera umetan hila. Baina haundiena gero izan zen, urte gutxiren buruan, zenbat izango ziren ba?, berriro armetara dei egin zutenean. Zer gerra egin behar diagu ordea aurreko gerrako hondakinekin? Baina han ez zegoen barkamenik eta Bordalegiko bi mutilek bigarren gerrara irten behar izan zuten, berriro ere alderdi banatan. Zorionez aitona Perran hila zen ordurako eta Abundiok Garoxari esan zion:

— Oraintxe neuk ere ez zekinat gerrara joan ala apaizak hiltzen hasi.

Kirriñok bi bider pentsatu gabe pare bat oilo hiltzen ditu eta bata Martolori eta bestea Luzianari ematen dizkio lumatzeko, hi lehen ere lumatzen ondo ikasita egongo haiz eta, Luzianari. Oiloak zertarako?

— Salda ederra egiteko —erantzuten du Kirriñok—. Egunsentian eta lehentxoago ere ez dun gaizki etorriko, nekez berotzen direnentzat batez ere.

Luzianak oiloa lumatu ez ezik larrutu ere laster egingo luke, iskilimina martxan jarritakoan, baina noiz edukitzen dik ba geldi? Ezetz jakin oilo batek zenbat luma dauzkan. Oraintxe esango dizuet, haizeak eramaten ez badizkit. Zenbat kanpai izan ditun, bi ala hiru? Oilarra berandu zebilek gaur, leku onetik apartatu haiz, eskerrak hemen jende oilo samarra dagoela. Samarra ala berbera?

— Luziana! —hots egiten dio Txankanek adarretik—. Zergatik ez huen oilo zahar bat epaiketara eramán, hauzitegiari kapapetik sartzeko?

— Neugatik izan ez balitz, zuek ezer ere ez. Gure Bitoriano bizi balitz! Baina Jainkoak eramán zian, norbaitek eramán behar hankamotz gizajoa.

— Hire oiloak zenbat luma ditin, Luziana?

— Galde haizeari.

— Eta hireak, Martolo?

— Luzianak hitzetan aina gutxi gora behera.

— Lumak aina hitz bakarrik nik? —haserretu zen Luziana.

— Bil hitzan lumak, ea.

— Bil hitzak heuk hitzak.

— Biak lan sailak, haizea dabilenean batez ere.

— Haizea buruan zebilek hemen.

— Iso! Iso! Prest al dago pertza? —Kirriñok.

Bai eta su ederra ere. Bi oiloak su horretantxe gardosturik, Kirriñok pertz haundia harrizko trebera haundiaren gainean ipintzen du eta Martolok oiloa barrura eta Luzianak ere bai.

— Sar ezak berori, ea zer salda modu ateratzen duen —Txankanek Kirriñori Luzianarengatik.

— Horixe nahi huke hik, potroak sendatzeko —Luzianak.

Oilo pareá pertzean polpol eta oilarra kukurrukuka, hau martxa daramaguna, zenbat kanpai diren ez dakigula.

— Oilar alua! Zer duk alegatzeko? Bi oilo falta direla?

— Ezer alegatzekorik? —galdetzen dio epaiburuak Leari.

— Bai jauna —erantzuten du Leak bete betean—. Epai-keta honetako defendatzaile legalari muzin egin diodala baddirudi ere, ez da neure buruaren defentsari uko egin diodalako, benetan defenda nazakeen izaki bakarra dagoelako baik. Horregatik izaki hori areto beneragarri honetan sartzeko baimena eskatu nahi nuke.

— Nor duzu izaki hori? —epaiburuak.

— Txintxo.

— Nor da Txintxo?

— Bordalegiko txakurra.

Denok zurtz eginik geratzen gara, batzuk zer esan duka, beste batzuk zer dion Lea, eta gehienek akabo oraintxe. Hauzitegikoek elkarri mutur itsusiz begiratzen diote eta harrigarriena inork ez duela barretxorik ere egin areto guztian, bonba baten eztanda eskatu balu bezala.

— Txakurra esan al duzu, anderea? Txakurra hauzitegira?

— Txakurra esan dut, bai, eta zin egiten dizuet gizon portatuko dela.

— Zer egin behar du txakurrak hauzitegian?

— Hori berak esango dizue.

— Txakurrak esan? Hau epaiketa da gero, ez zoomagia!

— Jaun agurgarriak, zuen zuzen gogo makurgaitzak bizi guztiko presondegiaren hartzailegai denari hain eskari xehe bat ukatuko dionik ez nuke sinestu nahi.

— Hauzialdia etena hamar minutura arte! —hots egiten du epaiburuak. Magistratuak erretiratzen dira, idazkaria nora ezean zutitzen da, fiskala mugitu ere ez, abokatu defendatzailea zer egin ez dakiela dago, eta entzulegoan honako marmario labana eta sisipasakoa hedatzen da. Aukera badugun arren, inor ez gara Leari txistadarik egiten ausartzen eta hor dago bera, zutik erdi erdian —hankak ere behar dituk gero!—, berak sorrerazitako sakabanaketa noiz bilduko zain, Xamela nola salbatu zen pentsatzen.

— Hauzialdia aurrera! —iragartzen du epaiburuak—. Orain arteko hauzi arau guztien saiheskara bada ere, hauzitegi honek salatuaren eskaria onartzea erabaki du. Aurrera beraz txakur hori, errespetoz eta ondo loturik.

Zer ikusiko eta horra non agertzen den Kirriño, txakurtxoa katetik eta mozal eta guzti —txakurra noski—, galtzerdi gorritxoekin, asmatzeko ere!, eta galtzatxoak tripaperaino, buztana bakarrik libre duela, pizik edo besterik burura-

tuko balitzaio ere. Txakurra baino gehiago zalduntxo dirudi, belarriak apal apal, Kirriñoren hanka kontratik aldendu gabe, hauzitegiaren aurreraino. Ez dituk errespeto faltaz kezatuko, baina ez dago dudarik txakur gizajoa inpresionaturik dagoela.

— Lekuko bitxi honen presentzia hauzi arauen saiheskara onartu badugu ere, ahal diren formalismoak bete ditzagun. Nola du txakurrak izena?

— Txintxo Buztanbitxi Belarritente.

— Aski da izen hutsa —epaiburuak.

— Zin egin behar al du? —Kirriñok.

— Ba' al daki zin egiten?

— Zintz egiten ederki.

— Ez dago beharrik. Lea anderea, orain zer egin behar dugu?

— Txintxo! —hots egiten du Leak. Txakurrak Learen deia entzunaz batera zoratu behar du, auhenak, jauziak, zer duk pizti hori!, galtzerdi bat galdu du, galtzek ere gaizki behar dute, Kirriñok ezin du sosegatu, geldi Txintxo, zer emozio sartu zaio txakur horri, Learen abotsa entzutean?

— Geldi Txintxo! —gogor egiten dio Kirriñok—, trinitatearen aurrean hago eta.

Txakurra gelditu da, hanka artean kikildua, larri eta dardar gaizoa, piz egiten ere bai zihur asko, ondu jantzita ekarri ez balute. Kirriñok hauzitegira begiratzeko agintzen dio, baina txakurrak Lea dauka atzeko aldean eta gainera ikusi ezin, idazkaria baitago bitartean, lan txarra daukak hori formal edukitzen,

— Geldi Txintxo! —agintzen dio Leak eta bai gelditu ere, dardarak eta zotintxoak eginez—. Jaun agurgarriok, ikusten duzue animalia horren xalotasuna. Horixe da Bordalegiko gorabeherak hasieratik azkeneraino presentziatu zituen bakarra. Horixe eta Xamela, eta neu ere bai, jakina, baina gu artekoak gara. Hori ere artekoa da, bere aita krudelki hiltzen ikusi baitzuen, baina norbait tranpa gabekorik izateko-

tan, txakur horixe dela aitortu behar, zinik egin ez badu ere. Orain beroiei, fiskalari, idazkariari, entzuleei, norinahi, txakurrari sudurzapiak eta nolanahiko zapi nahiz oihal zatiak hurreratzeko eskatuko nieke. Bildurrik gabe.

Kirriñok bere sakeletik sudurzapia muturreratzen dio eta txakurra gehiago kikiltzen da. Mesedez, eskatzen dio fiskalari Kirriñok —hori duk bitxoa!, fiskalak hauzitegira begiratzen du, zer egin galdetuz bezala eta epaiburuak buruarekin baiezkooak egiten dizkio, onartutako jokoari segitzea beste erremediorik ez dagoela adieraziz. Txakurrak fiskalaren sudurzapiei ere, bi eman baitizkio, ez die jaramonik egiten.

— Mesedez, bildurrik gabe! —hots egiten du Leak. Kirriñok idazkariari eskua aurrean jartzen dio, ezker-eskuinetako eserlekuetako ikasle entzuleei animatzeko zeinuak eginez. Idazkariak sudurzapi zimur samarra ateratzen du, baina bai haundia ere, izara eta guzti zebilek hori, koloretxoak dituen bera, baina Txintxok horri ere ez dio arretarik jartzen. Kirriñok denak lurrean uzten ditu, ezkerretik oihal zati bat bota dute, ez da sudurzapia ere, galtzerdiren bat?, abokatu defendatzaileak ere zerbait bota du, eta gero eskuin aldetik eta bietatik, guk ere hasi beharko diagu ba, eta denbora gutxian, guk bota eta Kirriñok batu, denetariko zapi multzoa osatu da, sua emateko pilaturik bezala. Kirriñok txakurra albotik, gaineratik eta denetik ibil erazten du, baina animalia gaizoa gero eta apalago eta bildurtiago dago, tiratu ezik zutitzen ere ausartzen ez dela.

— Jaun agurgarriak —dio Leak—, beroienak bakarrik falta dira. Magistratu nagusiak, egoera menderatzen duela erakusteko edo, eskularru parek ateratzen du, zuri zuriak, azpil eta zain urrezkoz. Beste magistratuek ere, inor ez bezala ez geratzeagatik, togapeak arakatzen dituzte eta batak zapi zuria, zetazkoa zirudik, eta besteak auskalo zer den hori, txakurraren ingurua ederki horniturik uzten dute.

— Ken mozala mesedez, horrengatik dela inork uste ez dezan —agintzen du Leak eta bai Kirriñok aguro kendu ere.

Txakurrak, mozal gabe aurkitzean, belarriak astintzen ditu eta atzeko hankartea usnatzen du, galtzak estuegi nonbait, oihalei eta zapiei usain arin bat egiten die eta berehalaxe Kirriñoren hanketan biltzen da, bere burua gorde nahirik, hau ez duk Bordalegi pentsatuz.

— Ikusten duzue, jaunak —segitzen du Leak— txakur horrek ez daukala inorenganako txarrik eta gutxiago engainurik. Neuk ere botako diot zapi apurtu bat, tori Txintxo, nirekiko sorginkeriaren bat daukala pentsa ez dezazuen. Ezer ere ez. Orain begira beste hauek —oihal multzotxo golko-tik atereaz—. Ea hauek zer iruditzen zaizkikan, Txintxo, —idazkariaren buru gaintetik jaurtikiz. Txakurraren odolak usnatuz batera berotzen dira, amorratzen da, multzoa des-tripatzen du, hortzak airean darabiltza, oihal zatiak kurrisk eta karrask behin itzulka, behin etzanda, baina dena tximistan, oihal zatien kontsistentziarik ezak gehiago amorra eraz-ten duela dirudi, baina ez duk hori ere, usaina duk, edo auskalo zer, ikustea ere erogarri baita, aparta ezazue txakur gai-zoa! Sinestea ere hain animalia txikia horren bildurgarri jar-tzerik! Noizbait Kirriñok, ez gutxi kostata, trapu madarika-tuak kendu eta Leari bihurtzen dizkio, zeinek multzoa eskuan erakutsiz, hitz mailuka esaten baitu:

— Portatu haiz, Txintxo! Banenkian hik defendatuko nindukala. Eta zuek, jaun agurgarriok, jakin dezazuen, tra-pu hauek Van Goghen eta Senekaren alkandora zatiak dira, hilotz erortzean Txintxok erauziak, eta larrua ere erauziko zien, utzi izan banio.

— Zer da hau, Lea anderea? —orroe egiten du epaibu-ruak—. Hauzitegiak eta zuzenbideaz burlatzen ari al zara?

— Ez naiz burlatzen ari, ez orain ez lehen. Ni Bordalegin bizi nintzen inori ukitu gabe eta gogorik ere ez. Zeuek etorri zarete niregana, baina horren jakitsuak izanik, jakingo du-zue txakurrek ez dutela lagun hilik atakatzen eta gutxiago hilen soinekorik, eta askoz gutxiago urtebete pasaturik. Ani-

malia baten garaunetan horrenbesteko gorrotoa sarturik geratzeko, pentsa zer ikusi zuen gizajoak.

— Hauzitegiaren profanazioa eta zuzenbidearen laido garbia da hau! Kanpora txakur hori! Hauzialdia etena arratsalderarte!

Abundio txakur zaunkak entzunaz batera atariraten zen, ea semerik bueltan ageri zen, baina urteak alperrik zain pasatu zituen, ez baitzen bat ere gerratik etxeratu. Etorriko zirela esaten zion Garoxak eta ea noiz Abundiok, gerra amaitua baitzen, baina Garoxak gerrarik sekula ez dela amaitzen esaten zuen eta gure aitari ere maiz entzun nion hori. Bordalegiko hirugarren alabak, beste biak miseriari ihes egiteko moja joan baitziren, ezkontza ona egin zuela esaten zuen, baina Abundio semeen zain hil zen. Huraxe zen benetan lurrera itzultzea, tristurak eta erreumak ia belaunen pareraino markur erazia. Garoxa oraindik erremangu onean zegoen eta alaba ezkondu eta gero ere, berak zeraman etxeko ardura nagusia, alaba gaixobera samarra baitzen izan ere. Gure aitak esaten zuen Bordalegin beti izan dela esku sendoren bat eta horrexegatik iraun duela etxeak eta etxaldeak, Garoxari edo zena zelakoari esker, eta kasu honetan suhi berriarekin ere suertetsu izan ziren, etxeari jatorrizko minen zamarik gabe heldu baitzion, gogoz eta anbizioz. Kortadiok, hala baitzuen izena gizon gazteak, urte batzuren buruan etxaldea bi bider-tu egin zuen, soro lurrak esan nahi dut. Hark luberritua da Bordalegiko atzekalderik gehiena eta aurretik ere ez zuen gutxi zabaldu, harri pilo luzeak bazterretan geraturik, hurrengo etxekada mutila gertatzen zenean ormak egiteko. Kortadiok eta Engrazik, Garoxaren alabaren izena, bi neska eta hiru mutil izan zituzten, bi gerra segidakoen osterako nahiko karga noski, baina Kortadiok etxaldea haunditu zuenean, goserik behintzat ez zen Bordalegin, lana gau eta egun baina. Kortadio izan zen oraingo Bordalegiri itxurarik gehiena

eman ziona. Gure aitaren historia haritua ere hortxe amaitzen zen, gero izen eta gertakari solteak kontatzen zituelarik. Kortadio izan zen harentzat Bordalegiko sorrera latza-ren burutzailea eta bera ezarria, esaten zuen, ni animatzeko edo, baina egun hori ikusteko hil zen gizajoa. Etxearen jarraipena nire gorabeheran baldin badago, neuk ere gaizki ikusten haut, Bordalegi.

— Ondo ikusten al dinat? Zer dun hori?

— Oso ondo ikusten dun, Lea, eta gaizki ikusita ere hau hementxe zegona.

— Baina Luziana! Nondik sartu dun hori hemen?

— Kontatuko dinat, baina orain egion jaramon beroni.

— Txintxo! Nora etorri haiz?

Txakurrari, Lea ikusten, elektrizitatea sartu zaio, gora, behera, alboetara, kabinako kristaltzarrari erpeka, hortzik ezin sartuz.

— Nora ekarri haute, Txintxo? —begiak busti bustirik Leak.

— Formal gero! —agintzen dio Luzianak, leihatilaren kontra eutsiz—. Badakik zer baldintza ipini diguten.

— Hau ustekabea! Nola gogoratu zain hori?

— Pentsatzen ninan hik hauxe ikusteko huela gogorik gehien.

— Nola pasatu dun atean?

— Atean bakarrik? Bost ate ere pasatu ditin honek, ez-tuk Txintxo?

— Eta sartzen utzi?

— Beharko. Pare bi ordu egin ditinat hor, txakurrarekin atzera eta aurrera.

— Txintxo gizajoa!

— Gela batean uzteko esan zidatena baina nik ezetz. Orduan hurrengoan etortzeko txakurrik gabe eta hori gutxiago nik. Txakur batek zer egin behar dizue ba? Ez zaituzte uni-

forme eta guzti jango! Non dago zuzendaria? Ez dagoela. Orduan hurrengoa! Hura ere ezetz. Orduan nork agintzen du hemen? Eta horrelaxe lau ordu, baina nik txakurrik utzi ez, eta azkenean bisita guztiak amaitu arte itxaron beharko nuela esan zidatena eta nik baietz, oso ondo, eta begira zein ederki gauden hirurok bakarrik, baina hamar minutu bakarrik esan dinat. Horiek nahita ere ezin gauza bat osorik ondo egin.

— Nondik habil orain, Txintxo?

— Bordalegin. Hauxe dun ba hango etxaguna. Kirriñok jaten ematen ziona, ia egunero joaten baitun, eta nik ere bai sarritan. Han zebilena hau pepe eginda, txoririk ere oharkabez pasatzen ez zaiola, baina batzutan triste iruditzen zaidana, edo beharbada neu alegera, hori ere izan zitekena, baina gaur neurrian etorri naun, hi!, hobe bero bero eginda etorri banintz baina, jende ziztrina!, isi, hor zebilena bañen bat. Heu zer moduz?

— Bizi gaitun eta okerragorik bazegona.

— Zer moduzko lagunak dauzkan hor?

— Nik ez dinat lagunik behar.

— Baina beste batzuk ere egongo ditun, eztun?

— Saiatzen naun baketan utz nazaten. Aizan, Luziana.

— Esan.

— Usterik gutxienean epaiketa izango dun.

— Ez hadi txarrena pentsatzen egon.

— Ez dun horregatik. Txarrenak nahiz onenak ez zidana hainbeste ardura, baina txakur hori eduki ezazue bizirik jainkoarren.

— EpaiKETARA eraman behar al dun?

— Bai bizi bada.

— Txintxo epaiKETARA? San Bernardoren txakurrak baino famatuago izan behar din honek.

— Horixe dun nire abokatua.

— Txintxo abokatu? Gizajoa! Ona hago honen gorabeheran bahago.

— Audientzia ageria! Aurrera epaiketa! —hots egiten du epaiburuak.

— Hitza mesedez, jaunak.

— Defentsari hitza emana.

— Zuen baimenez, jaun agurgarriak —hasten da abokatu defendatzailea, ia bazegoenik ere ahazturik geundena—. Defentsa honek hauzitegi honetan goizean ikusia biziki lamenteatu beharra dauka, zuzengintza baino areago mairu azoka ematen baitzuen. Baina naturako lege zaharra denez, ertzak elkar jotzen baitaude, hain zuzen gaitzespen horrexen funtsean aurkitzen dut defentsarako arrazoirik sendoena. Goizeko ekitaldiak denok harrapatu gaituen zoroaldi kolektiboa ematen baldin bazuen —azkenean txakur baten malabarismoak hauzitegiko ardatz!—, zer froga biribilagorik, zoroaldiaren sorrerazleak, nire defendatuak alegia, burua joana daukala ateratzeko? Nola esplika daiteke guk legedia edo toga bezain naturalki nire defendatuak txakur bat eta duela urtebete baino gehiagoko trapu zaharrak aurkeztea, hilotzei erauziak gainera? Jaun agurgarriak, ikusiak ikusita, ez dago dudarik nire defendatua kondenatzen duenak zoro errukarri bat kondenatzen duela eta defentsa hau zihur dago beraien zuzengintza jatorrak ez duela horrelako astakeririk burutuko. Besterik ezer ere ez, jauna. Eskerrik asko.

— Aizu, Lea —epaiburuak—. Entzun duzu zure abokatu defendatzaileak esana. Hitz gogorrak iruditu bazaizkizu, nola frogatuko zenuke gezurrezkoak direla?

— Ni ez naiz zueri ezer frogatzen ari, neure buruari baik. Txakurra izan beharrean, bildotsa izan balitz, denok belaunikatuko zineten, Jainkoaren semea zela eta, baina Bordaletin bildotsak azeriak eramaten ditu, txakurrak zainduko ez balitu. Zergatik profanatu behar du txakurrak hauzitegia?

— Baina, Lea! (Bazkal ondoan umore hobea dakartela dirudi). Lehenbizi nola jakin behar dugu trapu zati horiek Van Goghenak eta Senekarenak direla? Eta bigarren eta batez ere nola jakin behar dugu txakurra ez dela trapu horien gorrotora jarria izan?

— Trapu hauek, jauna, denbora guztian neure golkoan ibili dira eta ni nagoen lekura badakizue ez txakurrik ez eguzkirik ez dela sartzen, arratoiak ugari dabilta baina.

— Mirestekoa txakurrari diozun begiramena, baina hemen gizakumeen hilketa epaitzen ari gara, ez txakurkumena. Hori al zen zeure burua defendatzeko modu miragarria?

— Nola defendatuko dut ba, ez baitidazue amaitzen utzi?

— Beste numeroren bat falta al da?

— Beste bat ez, bakarra baizik, eta denok zorotasunari bueltaka ari zaretenez gero, oraintxe erakutsiko dizuet ez naitzela zoroa, zoro totala baizik, baina horretarako berriro txakurra sartzen utzi behar duzue.

Epaileek elkarri buru eraginak egiten dizkiote, trufan hartuz bezala. Guk baino bazkari hobea jango zuten nonbait, baina geuk ere zer ba? Maleta ederrak zabaldu eta hiriko parkerik ederrenean bazkaltzeko aukerarik ez diagu noiznahi izango, Basagorrira itzultitakoan.

— Onartua salatuaren eskaria. Aurrera txakurra!

Berriro ere hor agertzen zaigu Kirriño, Txintxo katetik dakarrela, poliki jantzia eta gizontxo bat bezala, goizean ez baita alperrik izan hauzitegiko atrakzioa. Orain badaki nora datorren eta batez ere Lea non dagoen eta paretik pasatzean, Kirriño arrastatuko zuen, indarrik balu, baina Kirriñok ere badaki non dabilen eta hor daude biak, txakur eta txakurzain, hauzitegiaren aurrez aurre, nork zer aginduko, eta gu ere hemen, buruak luze luze, non zer ikusiko.

— Zeuk agindu, Lea anderea —dio epaiburuak irribarrez.

— Nik agindu behar badut, lehen sudurzapiak eta gainerakoak prestatu dituztenei txakurrarengana hurreratzeko eta tentatzeko eskatuko nieke. (Areto guztia zurrun geratzen da. Goazen, bestela ez baita inor mugituko).

— Pubikua geldi bere lekuan! —hots egiten du epaiburuak—. Fiskal jauna, egizu mesedez eskatu duena.

Fiskala bere katedratik altxatu eta jarleku errezkada hauzitegiaren aldetik zeharkatuz, txakurrari hurreratzen zaio, zinuak eta zirriak egiten dizkio, baina Txintxok apal apal erantzuten dio. Abokatu defendatzailea ere badoa, idazkaria ere bai, ezker-eskuinetako jarleku iladetako letradun eta ikasle togadunek ere ez dute hauzitegi nagusiaren aurrean txakurkeriak egiteko aukerarik galdu nahi. Batak pitxi eta besteak potxo, txakurra ondo tentatutzat jo liteke. Lehenengotan Kirriñoren hankapean kikildurik, baina konfiantza hartu ahal, jolasean hasteko ere gutxi falta zaio.

— Hauzitegiak ez al du probatu nahi? —galdetzen du Leak, denak erretiratzean. Kirriñok bi bider pentsatu gabe, txakurra hauzitegiaren mahai gainera altxatzen du. Txintxok nonbait goregi erizten dio eta jaitsi egin nahi du, zorabioa balu bezala. Basagorriñ esaera da txakurrak ere justizia hobetik egingo lukeela eta hona zer ikustera heldu garen. Epaille nagusiak bere nagusitasun osoa agertuz, txakurrari muturretik buztaneraino eskua pasatzen dio, —bai ilaje leuna!— hantetara gero, —bai oinetako politak ere!, baita tripapean zehar ere, —nork egin dizkik galtzatxo hauek, hain txukun eta neurrira? Beste magistratuek ere poliki kunplimentatzen dute eta Txintxok lasaiago dirudi, galtzak zihur asko bustiak izango ditu baina.

— Nahikoa? —galdetzen du epaiburuak.

— Ez, jauna —Leak—. Orain gorde ezazue txakurra ostean. Fiskalaren ondoan toki aproposa dago.

Kirriño —hori duk elementua!— fiskalaren ondoan eseritzen da, txakurra alboan duela, baina Txintxo ez da ikusten, jarlekuek paparrerainoko eskudel itxia baitute aurrean, eta berak ere apenas ezer ikus lezakeen. Txakur gaizoa! Oraintxe goren mahaian, oraintxe hankapean.

— Orain zer? —epaiburuak.

— Orain hiru tiroko zizpa izan balitz, besteekin batera

joan behar zuenak etorri behar du. Orain Xamelak etorri behar du!

Hau izan duk takatekoa! Bentosa ikaragarriak harrapatu bezala geratu gara denok. Xamela hona? Gaizki entzungo huen. Xamela esan dik! Ez al duk ikusten magistratuek ere nolako muturraldean jarri duten?

— Datorrela Xamela! — agintzen du epaiburuak. Bentosa ikaragarriak aretoko ate nagusiruntz irentsi gaitu. Irekitzen dute eta horra Xamela. Horra emakume bat, hogeititik gorakoa eta hogeita hamarretik beherakoa, ile luzeduna, argal samarra, beltzerana, hau al da Xamela?, pasabidean zehar tiki taka, munduaren azkenaren ondoko isiltasuna eba-kiz datorrena, Learen parean ezer bada ere ez, Leak ere ez, elkarrentzat esistituko ez balira bezaia. Txintxok zaunka bat egiten du, Xamela hauzitegiaren aurrean gelditzen da, beste zaunka bat, Lea burumakur dago, Xamela eta Lea dira areto guztian zutik dauden bakarrak, erdi erdian, elkarren parean, hauzitegiarekin gurutzeta eginez, zeri zaunkaka ari duk txakur hori?

— Izen-deiturak mesedez — epaiburuak.

— Xamela Salazar Biteri.

Xamelaren abotsa entzutean, Txintxok zaunkaketa eroari ematen dio bere jarleku azpitik. Xamelak harriturik begiraten du alde hartaruntz. Kirriñok zerbait egin dio txakurrari, min ere bai nonbait, txilio egin baitu, baina isildu da, ahoa itxiko zion.

— Ezagutzen al duzu atzean daukazun emakume hori?

— Bai jauna, nola ez ba?

— Orain hauzitegi honek salatuak eskatutako aproba bat —ikusiko dugu zer froga den— onar dezazula eskatzen dizu, lasai, bakan samarra gerta bailiteke. Lea anderea, zeuk esan.

— Atera ezak txakur hori bistara, Kirriño! —hots egiten du Leak. Atera badu atera du eta Kirriñok berak hartu duela dirudi sustorik haundiena, txakurrari apropos jaregin ez

badio. Xamelak erreakzionatu aurretik, txakurra hanka artean sartu zaio, Xamelak txilio eta jauzi egiten du, idazkariaren mahai ostera ihesi, baina txakurrak ez dio barkatzen, Kirriño ere atzetik geldi Txintxoka, neskaren garraisiak erogarriak, idazkariaren mahaigaina airean, hori duk paper pila, epaiburua txilin hoska eta gu ere zutik, zerbait ikusi nahiez, ez baita sinestekoa ere, noizbait Kirriñok kate punta zapaltzen dio eta Txintxo klok erortzen da atzeruntz, Kirriñok katea hartu, batu eta hanka artean eusten dio txakurrari, ez ordea isiltzen hura, hortzak bistan eta bits kolpeak darizkiola, noizbait muturra harrapatzen dio, ahoa ixten dio eta txakur gaizoak ito behar du, baina isilik ito beharko, Xamelak hauzitegiaren atzetik begiratzen diola. Epaiburuak irteko eskatzen dio, baina Xamelak ez du obeditu nahi.

— Aretozain jauna! Eramazu emakume hau magistratuen atetik! —eta sekulako uniformedun funtzionari kankailu baten Xamela epaileen atzeko atetik ezkuta erazten du.

— Amaitu al da numeroa? —galdetzen du lazki epaiburuak.

— Nire partetik bai —erantzuten du Leak.

— Konforme al zaude?

— Guztiz. Oraingoan ez dira trapu zaharrak izan.

— Horrekin zer frogatu nahi zenuen?

— Zuentzat ezer ere ez. Txakur horrek badaki eta horixe dut aski. Orain egizue nahi duzuen.

Ardiak izan balira, berehalaxe kontatuko zituen, baina espetxeko patioan zenbat preso dabilen Leak ez du sekula kontatu, oraintxe izan ezik. Denei tinko eta banaka begiratzen die, eguzkia bizkar aldetik sartzen ari dela, eta bilatzen zuena bat batean topaturik, preso multzo batean sartu eta erdiko uniformedunari galdetzen dio:

— Zu al zara Xamela?

— Ni Xamela? —presozainak harriturik.

— Hauxe dun Xamela! —Leak beste presoiei.

— Lea! —presozainak atzeraka.

— Zergatik uste duzu txakurrak hainbeste gorroto hartu zizula? —aurrez aurre hurreratuz.

— Nola pentsa dezakezu Xamela naizela?

— Zu Xamela zara, uniformeaz disfrazatua.

Kornetak jotzen du eta gehienak denen egonlekura, batzuk galeriara eta Lea bere bakar zeldara.

— Zu al zara Xamela? —galdetzen dio atea galgatzera datorkion hurrengo presozainari.

— Zer diozu, Lea? Ni Xamela?

— Besteak ezetz esan du eta zeuk izan behar duzu.

— Aluzinatzen ari zara.

— Xamela hementxe dabil! —urrats bat aurreratuz—. Uniformeaz disfrazaturik dabil, ezagutu ez dezadan! —beste urrats bat aurrera.

— Lea! Sar zaitetz gelara mesedez! —atzeraka eginez.

— Sartuko naiz, baina etorriko zara.

Hitz hauei aire gogorra ezarri die Leak. Geroztik presozainak binaka etortzen zaizkio beti eta Leak batari ez bada besteari ez dio esan gabe utziko:

— Bildur al haiz bakarrik etortzen?

Batzuek oilo salda, beste batzuek baratxuri zopa, beste batzuek txokolatea, azkenean denok denetik eta haserrikeri ere ez. Lehengo argiontziez gainera hiru pertz haundientzat hiru su haundi eginik, oihana sutan ematen du Bordalegik eta hori jendearen kolorerik erreparatu gabe. Suak afal zirkulutik kanpora egin ditugu, etxe aurreko zelaiak denerako ematen baitu, eta hortik atera denok hara eta hona gabiltzala. Beroegi ez balego! Horrenbeste egiten al din? Suak egin ere! Ea jendea etortzen hasten zaigun, mundua erretzen dagoelakoan. Lasai, Basagorrikeri gehiena bertan baitago. Basagorri dela uste al duk mundua? Dena ez baina gehiena bai. Non zegok Lea?

Jendea mugitzen hastean, Lea etxean sartu da. Ganbarara igon, ikuilura jaitsi, habe zaharrak tentatu, lehen bezain gogor, askak ez zeudena gaizki, abereak ondo, aurreruntzean neurekin lagun beharko duzue ba, ormak eré sano, etxe zainduak ez die urteei igartzen, baina gorputza ez dun berdin.

— Zertan ari haiz, Lea? —hots egiten dio Luzianak atzetik.

— Bazterrak ikusten.

— Eta?

— Oraintxe ari nindunan pentsatzen lehengo abererik bat ere ez dela geratzen. Denak aurpegi berriak.

— Bakarrik egoterik ez zain komeni, Lea.

— Egon beharko dinat.

— Gau honetan ez. Goazen lagunartera.

— Hirekin badinat zaindaria.

— Berehalaxe usaina hartu dinat eta esan dinat: Lea bakarrik ez zegona ondo.

— Hauek ez al ditun inor? —animaliak seinalatuz.

— Horiekin egoteko astia gero ere izango dun.

— Aizan, Luziana. Bitoriano hil zela jakitean, pena haundia hartu ninan, baina nola hil zunan?

— Gure Bitoriano gizajoa! Aurretik ez al dun Txintxorena kontatzerik nahi?

— Has hadi senarrarengandik, emakumea.

— Baina hiretzat Txintxo gehiago zunan.

— Berdin dun. Ez gaitun orain kardiogramak ateratzen hasiko, biak hilak direla.

— Ba, Bitoriano motiborik gabe hil zunan. Ez zekinat nire ezkutuan zerbait hartu zuen, baina jateari utzi zionan, bururik ez zinan jasotzen eta hil aurreko egunean ilobari zer esan zion ondo gogoan zeukanat: Berez hil behar al diat? Beste hitzik ez nionan entzun. Txorikumea bezala hil zunan bere orgatxoan, ez baitzinan ohera aldatzerik nahi, eta pentsatu ninan: hil dadila gustora, beste munduan ere orgatxorik falta ez dakion. Zer egingo zionagu ba? Hi ikustetik bueltan

hilabete inguruko adorea izan zinan, baina beheraldiak eman zionean, astebetean akabatu zunan gizajoa.

— Eta Txintxo?

— Ezin izan zionagu hi etorri arte bizirik iraun erazi. Erdi gor, erdi itsu, erruki ematen zinan. Aukerarik harrapatzen zuen guztian, hire gelara igon eta hantxe pasatzen zinan eguna, lotan ala hilik zegoen ez igartzeko moduan. Azkenean Kirriñok ardia hiltzen erabilitako sorki odoldua irentsi zinan eta erdia barruan erdia kanpoan, batere kexatu gabe ito zunan gizajoa.

— Ja ja ja ja! —zelaikada guztiak barre algara botatzen du.

— Luziana! Luziaaaaaanaaa! —hots egiten dute gero.

Luziana arin doa, baina gauza zehatzik ezin du jakin, oiloa pertzetik ateratzean, zerbait berarengatik izan dela besterik.

— Hik zer nahi dun, Lea? —Kirriñok.

— Bota baratxuri zopa pixka bat, ardo zuri tanta batzuekin. Oroimenaren zirkulapenerako oso ona omen duk.

— Ez dun gutxi ikasi eskola modu horretan.

— Ikasteko ere berezkoa behar duk.

— Eta ahazteko?

— Nahiago nitek, baina Bordalegin ez gaituk oso ikasiak horretan.

Kontuan izanik alderdi fiskalak defendaturiko salape-
nak guztiz baitetsiak izan direla,
Kontuan izanik alderdi defendatzaileak ez duela salape-
nik zalantzan jartzeko frogarik aurkeztu,
Kontuan izanik hilketak hotz hotzean eta jakin jakinean
burutuak izan zirela,
Kontuan izanik salatuak berak, xehetasun azal batzuk
gora behera, salapenaren edukia oso osorik aitortu eta
beregaindu duela:
Goiz Hauzitegi honek, osatzaile guztien ahobatasun
osoz, Lea Bordalegi Orreagari zigor hauxe ezartzea era-
baki du:
Hogeita hamar urtetako presondegi nagusia eta hamar
milioitako ordainketa Van Goghen hilketarengatik eta
beste hogeita hamar urtetako presondegi nagusia eta ha-
mar milioitako ordainketa Senekaren hilketarengatik.

Zuen baimenez, jaun agurgarriak. Ez dakit nola hasi, baina hasteko modu bat da hau ere. Izan liteke estrainaldia eta azkena. Ertzak elkar jotzen daude. Izan liteke salatuaren salbamena eta defendatzailearen hondamena. Izan dadila nahi duena, baina Leak ez du presondegian usteltzen egoterik mezezi. Ibaia ez da bi aldiz pasatzen, baina beti ari da pasatzen. Egiteak ez dira bi aldiz gertatzen, baina ez dira sekula burutzen eta Bordalegiko gau urrun hura joan doa gaur ere. Urak geldian usteldu egiten dira, joanean bortxati bilaka daitezke, eta gero eta uste sendoagoa daukat ustelmena eta bortxa batera pilatzen ari garela, eta horiek denboraren detonagailu bueltagabez eztanda hilgarria dakarte. Nik eztanda horretatik neure burua garaiz libratu nahi nuke eta beroiek ere apartatu nahi izango dutelakoan nago, egiteen berrikuspen zuzenik aurkezten bazaie. Horretaraxe noa, era batera estrainaldia eta azkena izango bada ere.

Arroztegi zahar batetako gelarik haundieneko leihoaz aurreko orman pintatzen ari zen Van Goghek ez zion Senekari begiratu ere egiten, hau atzetik eta alboetatik ekinean ari bazitzaion ere. Zer pintatzen ari haiz, hori al duk atzoko abentura, bihotza ataskatu al zaik, nahi al duk atzetik gozo gozo ematea, baina Van Goghek ezer entzungo ez balu bezala. Atea jo zuten eta Senekak irekirik, Xamela sartu zen. Oilo atsangatua bezala eseri zen, buruarekin behin eta berriro ezezkoak eginez. Ezer ere ez. Nolako ezer ere ez? Ezertxo ere ez. Ez al dun ikusi? Ez ikusi ez usainik. Alua! Orduan zer? Susto ederra pasatu eta etxera, horixe duk dena. Seneka bera ere ez zegoen lasai, hotza eta zorrotza zen baina. Gortina bitartetik muturra kristalaren kontra, kalera begiratzen zuen, gora eta behera, kale luzea eta hutsa, tarteka multzo-

txoak pasatzen, eta txakurrak eta katuak zarama boltsak muturkatzen. Seneka Van Goghen atzean jarri zen eta egotalditxo baten ondoren galdetu zion:

— Hiri ez al dik ardura zer esaten ari garen?

— Zergatik ez didak atzetik gozo gozo ematen? —galdetu zuen Van Goghek.

Xamela ere zutitu eta Van Goghen alboan jarri zen, ea zer pintatzen zuen, ez al duk hitz egiteko gogorik, bai gauza tristeak pintatzen ari haizela, baina Van Goghek ezer bazen ere ez, Xamelak ere ez zeukan inor mimatzen ibiltzeko gogorik eta Senekari esan zion ea nola izan zen hura, baina zer egitea nahi dun ba, hitz egin behar duena pintatzen ari bazaugu? Artistak espezialak direla, baina bai gauzeztanak ere, hau berriz horretaraxe ere iristen ez dena. Xamela berriro Van Goghi hurbildu zitzaion eta:

— Egin ezak hitz edo zerbait hik ere! —hots egin zion pintzela zaplada batez zoruan zehar jaurtikiz.

— Zergatik ez didazue baketan uzten? —garraisi egin zuen Van Goghek senetik irtenda—. Etxe honetan ez al dago ez tristerik, ez isilik egoterik? —pintzela jaso eta koadru guztia firrist eta farrast lorrinduz.

— Hemen lehenbizi denona eta gero bakoitzarena! — esan zion Senekak paparretik heldurik—. Atzo zer egin huen?

— Ezer ere ez.

— Nola ezer ere ez?

— Ezer ere eeeeezzzz!

— Ez al huen ikusi?

— Ez eta joan ere.

— Esan ezak hori, alu horrek!!!

Xamela zizpuru haundiak eginez zoruan eseri zen, orma kontrara, Seneka balkoiko gortina artera itzuli zen eta Van Gogh beste kartoi bat pintatzen hasi zen, arrastada zakarrak emanaz, baina Senekak, berriro atzean jarririk, oraintxe bai emango nitek gustora hortik, ipurdian ukitu zionean, Van Goghek ez zion pintzela ahotik sartu, kolpea okerreko alder-

dira bota zuelako. Xamelaren hainbakarren zizpurua barre algara izan zen. Azkenean ba al dakik Van Goghek bere burua hil zuela?

— Zergatik ez didazue koadrua amaitzen uzten? —eskatu zuen apalki Van Goghek.

— Bai zer den esaten baduk —Senekak.

— Nola esango dizuet zer den, amaitu aurretik?

Laster amaitu zuen bai, ondo amaitzeko obligaziorik ez daukanak lan erreza izaten baitu, hor daukazue, bera distantziara jarririk, eta Xamelak barre egiten zuen, Senekak ez baitzuen sekula egiten. Zer duk hori? Kakazaharra! Nolako kakazaharra?, eta Van Goghek saminki:

— Frakasua!

— Atzetik ala aurretik?

— Denetik. Frakasua osoa izaten duk.

— Hori esan nahi al dik koadru horrek?

— Horixe esateko adorerik ere ez zeukak.

— Hortik heure burua hiltzera beste pintzelada bat besterik ez zegok.

— Ez nauk urrun ibili.

— Jakin al zezakeagu?

Jar ezazue une bat estutua, zurruna, bat batekoa, leher-tzekoa, uste ezinekoa, asmatu ere ezinekoa eta horixe da espetxeko bisitagelako kabina miserablean Leak Xamelarekin topo egiten duena. Une luzea, ez baitu korritzen, une laburra, ez baita esistentzian ere sartzen.

— Nor ote dun? —pentsatzen zuen Leak bisitara dei egin diotenean eta begira nor daukan aurrean, ez egunon ez kaxo ez ezer.

— Norbaitek hizketan hasi beharko du, ezta? —dio Xamelak halako batean.

— Hasi —Leak.

— Zer moduz?

— Hi egongo hintzen baino hobeto, zizpa hirukoitza izan balitz.

— Pozten naiz.

— Leku txarrera etorri haiz poztera.

— Zu ez al zara pozten?

— Pentsatu egin beharko niken.

— Ez al zara denei zu al zara Xamelaka ari?

— Eta zer?

— Hemen nauzu ba.

— Hori al da dena?

— Hara, Lea. Zuk badakizu nik aina eta nik ere badakit zuk aina. Uler nezake defentsari uko egitea, baina ez beharrezkoak kontatu gabe uztea.

— Zer kontatu?

— Dakizuna eta dakidana.

— Zergatik ez huen heuk kontatu?

— Ez nuen kontatu, baina kontatuko dut.

— Nori?

— Hauzitegiari. Zure epaia berrikustea onartu dute eta neu izango nauzu defendatzaile. Horixe izango da nire abokatutzaren estrainaldia.

— Noiz pentsatua dun hori?

— Zure epaia publikatu ondoko astean bertan. Ezin nuen lorik egin, neure burua hiltzea ere pentsatu nuen, baina azkenean esan nuen: Ez ba! Hori ez dun horrela geratuko. Abokatutza ikasten hasi nintzen eta oraintxe amaitu.

— Horrenbeste denbora pasatu al dinat hemen?

Lea kabinaren goiko ertzera begira dago, hango zuloren batetik denboraren kargamentua atzeraka ikusiko balu bezala, baina kabina gainean hormigoizko aretotzarra daukan, Lea, eta areto gainetik presondegi guztia eta presondegi inguruan bi murru, zein baino zein gupidagabeagoak. Hortik ez daukan ezer ikusterik, heure buruaz barrukoa besterik, eta orain Xamela. Horixe dun hitaz kanpoko zirritu bakarra. Leak burua jaisten du eta sorbaldei eta besoei bertan behera

agindurik, lurrean kukaratxa bat ikusten du. Ez, Lea, aurrez begiratu behar dun, ez gora ez behera. Hor daukan heure zorioneko Xamela.

— Zer diozu? —galdetzen dio Xamelak.

— Nik esatekoak esanak ditinat. Hik esatekorik badun, ekin.

— Eta gauzak sustraitik eramateko, jakin behar duzue, jaun agurgarriak, Van Gogh, Seneka eta ni batera bizi gine-la, Van Gogh medikuntza, Seneka zuzenbidea eta ni geolo-gia ikasten. Seneka ezin serioagoa zen, Van Gogh bere artis-ta aldikadekin eta ni ere hantxe, lur hautsak analisatzen. Egun batez Van Goghek esan zuen:

— Lotsagarria! Hau lotsagarria!

— Zer duk, Van maitea? —laztandu zuen Xamelak.

Van Goghek, Bordalegiruntz zihoala, umetako gomutak berritzen zituen. Uda pare batez edo, Basagorri egun batzuk iragana zen, aitaren urrungo ahaide batzuren etxean. Nor eta nolakoak ziren ideia garbirik ez zeukan, egon zela eta errota zahar batean jolas egiten zutela bakarrik. Geroztik ahaide haien berririk ez zen etxean entzun, ez eta gogoratu ere, ume-tako beste zenbait gomuta galdu bezala, bat izan ezik, Lea alegia. Mendian bakarrik bizi omen zen emakumea, eta Van Gogh oroitzen zenetik, huraxe zen Basagorriko pertsonaia bakarra eta haren historiek edo jendearen asmakeriek izaki misterioso baten takada utzi zuten haurraren oroimenean.

Geroztik urteetara ilunabarrean Bordalegiko atarian ager-tu zitzaion emakume hark haurtzaroko irudipen guztiak gain-ditzen zituen. Van Gogh animoso zegoen. Mendian zehar be-re antzinako Basagorritik itzuli bat egitea eta Bordalegitik pasatzea pentsatu zuela eta halako zerak kontatzen hasi zen mutila. Leak, kalekume usaina hartzean, bekokia zimurtu zuen, baina gero Basagorrirekiko zerikusi hura, azalena ba-zen ere, nondik norakoa zen jabetzean, zerbait hartzera gon-

bidatu zuen. Sukaldean txakurrak ere lagun egin zitzaizkion Van Goghi.

Berriketak aurrera eta Van Goghek mila galdera egiten zion, nola bizi zen hala, zer uste zuen honetaz, zer beste horretaz, bitartean ardo pixka bat eta zigarrotxoak, usain bitxi samarra zeukatenak Learen ustez, zergatik ez duzu bat erretzen? Nik zigarroa erre? Bion artean bat, baina Leak muzin garratza egin zuen, Van Goghi mehatxuzkoa iruditu zitzaion eta kontuz, hi!, ez dezagun huskeria batengatik dena izarra.

— Ni pintorea nauzu —esan zion Van Goghek.

— Horretan ateratzen al duk bizimodua? —Leak.

Van Goghek erantzun zion artea ez dela bizimodua, baina ea bera pintatzen utziko zion.

— Niri zer pintatu behar didak ba?

— Ez da zuri ezer pintatzea, zu eredu zarela koadru bat pintatzea baizik.

— Utz ezak koadrua hutsik eta hobeto egongo duk.

Baina Van Gogh zirriborroak egiten hasi zen, behin Leari behin kartoirira begira. Pintaketa azkarra eta apasionatua zirudien, gero eta lilura gehiagoko putzak eginez.

— Hori ez al zegok biluzik?

— Jantziko dugu, nahiago baduzu, baina hau honelaxe dago ondoen.

— Ez al hintzen ba ni pintatzen ari?

— Hau jaztea baino zu biluztea ederragoa litzateke.

Leak burua atzeratu eta albokera begiratu zion. Noizbait entzuna zuen pintoreak zoro samarrak zirela eta zer egingo dion ba, eguzkiak ere ez baitie kaskoa denei berdin berotzen, baina Van Goghek galdetu zion:

— Ez al dun larrurik inoiz jo?

— Zer duk hori?

— Ni egiten asperturik nagoena, baina hirekin gustora egingo nukeena.

— Ba al dakik non hagoen?

— Bordalegin uste dinat.

— Jakingo al duk hemendik gauetz joaten?

— Ez dinat eguna zabaldu arte joateko asmorik. Hirekin gaua pasatzera etorri naun, Lea. Umetatik garaunetan sartua haukat eta mesedetxo bat egiten utzi behar didan, bestela ez naun gizona ere.

Van Goghek labana haundia atera zuen eta besoan zirrist zarrast eraginez, ahoari begiratzen zion, zerbaiterako pentsamentuan bezala. Lea gehiago atzeratu zen eta oraingoan zuzen zuzen begiratzen zion.

— Gogorik ez badiat ere bai?

— Ja ja ja! Gogoa daukatenak hirian zeuzkanat sobra.

Van Goghi paparra airez eta zainak odolez kargatu zitzaizkion, une oldartsua, bueltagabea, baina ez, Lea, hirekin ez dinat horrelakorik nahi, hik naturalean ere biolentoa izan behar dun, utz ezaidan musukatzen, utz ezaidan emetasuna senti erazten, nola joango haiz beste mundura, hori zer den jakin gabe?

Van Gogh aurreratu zen eta Leak ez zuen atzerarik egin. Van Goghek urrats bat aurrera eta Leak hiru, metro erdira bekoz beko zeuden, hau lilura totala, Van Goghek eskua bularretara bota zion, Leak paparretik heldu zion, Van Goghek labanada bat besoan ezarri zion, odola zen, sua zen, ez zegoen atzera martxarik, Leak eskuturrean zapla eman zion, labana lurrean zen eta esku biekkin paparretik heldurik, orma kontrara josi zuen mutila.

— Nik gizonezkoak binaka behar ditiak eta hi bezalakoak hironaka! —esan zion orma kontrara kolpatuz.

Txakurrak zaunka bizian ari ziren, batez ere Txintxo sukaldera sartu nahian ateari karraska, baina Leak ez omen zuen lagunik behar, labanari atzerre bat menderatzeko.

— Zer usteta bizi zarete hiri horretan? Hi bezalako ziri-nontziak larrutzekoa banintz, Bordalegin biziko nintzela us-te al duk?

Esku bataz paparretik eta besteaz bragetatik orma kontrara dozenaka hil orroe atera erazitakoan, labana eskura

eman eta atea erakutsi zion. Van Gogh albo alboka zihoan. Atea irekitzean, Txintxo mutilaren hanketara oldartu zen.

— Geldi Txintxo! Bakarrik ere erakutsiko zioat honi Bordalegiko berri.

Atariko zakurrak katea apurtu behar zuen, Leak eskua luzatu ez balio. Van Goghek apenas kolpe txarrik zeukan, baina burua tiobiboa bezala zeraman eta hezurren bat edo beste tokitik kanpora ere bai.

— Neuk lagundu beharko diat. Hi ez haiz mundura itzulteko gauza.

Kilometro bat beheragoko bide zabaleraino lagundu zion. Van Goghek ez zuen hitzik egin, bai ordea hankak oker bota, baina estrata sakona baitzen, bazter bata eta bestea jomez, gehienez erditik zihoan. Leak zer pentsamentu zeraman jakitea ez da erreza. Beheko bidagurutzean nondik segitu erakutsiz, esan zion:

— Nahi dukanean etorri eta sobra dauzkaken horiei esaiek neure partez hi ainakoak ikuiluan ere badauzkadala.

Ondo probetxatuz gero, txakurtxo bat edukitzeko tokia bazegona hemen, bat, bi, hiru, heurt, bat, bi, hiru, heurt. Komuntzar hori ez balego! Ea honela, bat, bi, hiru eta erdi, baina hiru eta erdian okertu egin behar. Hobe dun bat, bi, hiru eta heurak artez, begiak itxita ibiltzeko moduan, bestela ilunetan zer egin behar dun? Txakurtxoa hortxe egongo luke, komunaren eta kamainaren artetxoan. Ez duk oso txukuna, baina neu ere hementxe negok hi! Gainera hi kamainapean sar hinteke. Bat, bi, hiru, aurrera nahiz atzera. Toki hau aski dinagu. Bakarrik egoteko gutxi dun asko, elkarrekin egoteko berriz dena ere gutxi. Inor baletor, Xamela den galde-tu eta laster alde egingo din. Aurrera eta atzera. Albora ere bai aukeran. Ezin dela irten? Txakur birentzat ere atera zitekena tokia. Baita hirurentzat ere. Horiek ez dinatetik jaten, lagunek bezala. Zertarako irten? Nora? Nork emango

din hiri jana eta tokia hemen bezala? Usteldu esaten dun, baina hemen ez haiz ustelduko. Hilko haiz, baina ez usteldu, beti mirilatik begira baitaude. Usaina hartzen ote zidatena? Galdetu egin behar zionat. Hi al haiz Xamela? Hil usaina al dinat? Ezetz? Eskerrikasko. Oraindik bizi al haiz, Xamela? Beti begiren bat mirilan. Hemen baino hobeto Bordalegin ere ez. Han noizean bat agertzen zunan eta bera gauzeztana, labanaz eta jostailuz armatua. Bat, bi, hiru. Trinitatea aina egin eginean. Zer behar dun gehiago? Eta ezeren ardurarik ez, denborari joaten uztea besterik. Zeren kexu zarete, hondamen puska inutilok? Lea! Nola zunan Bordalegiko Erromaldaren historia?

Erromalda neska ederra zen, gazte gazterik aurreratua bularrez eta denez. Gure aitak esaten zuen neure antzekoa zela, baina nola dakizu esaten nion nik, hura nolakoa zen? Apaizek eta fraileek, Don Kastorrek batez ere, neska ederrizat beste burubiderik ez zeukatelako, Erromalda moja sartu zen, lore lorean zegoela. Don Kastor kalonjea Basagorriko erretorea izan zen gazterik etorri eta zahar hil arte, eguna markesaren etxean eta gaua komentuan egiten zuelarik. Erromalda moja joatean, Basagorriko mutilak aho bete hezurrez geratu ziren, berrogei urterarte debekaturik behar likek moja joatea, esaten zuten, baina joana zen eta handik ez zegoen bueltarik. Berak igarriko zio. Izen haundiko komentuan sartu zen, ordurako Bordalegi ere etxaguntza haundia baitzen. Sarreratzat honenbesteko bat, geroago ez dakit zenbat, profesatzean beste hainbeste eta hala, dote ederra behar zen han sartzeko. Joan zen joan bazen eta sartu zen sartu bazen eta aita ikustera joan zitzaion. Gure aitak birraitona esaten zuen eta niretzat herenaitona izan behar. Hura ere joan zen joan bazen eta bisitagelan luzaro zain egon ondoren, han agertu zen alaba, saredun leihoaren atzean, ondoan lagun bat zekarrela.

— Zer egiten dun burdina horien atzean? Hator hona, neska!

— Ez, aita. Hemendik ere konponduko gara.

— Eta zergatik ez hemendik? —bere alderdia seinalatuz.

— Hau klausura da, aita.

— Nor dun Klausura?

— Ez, aita. Klausura komentuko bizimoduari esaten zaio.

— Hori nor dun ba?

— Lagun bat. Bakarrean ezin dugu hitz egin.

— Neure alabarekin ere ezin hitz egin? Eta gainera burdinsarea bitartean? Nora sartu haiz, Erromalda?

Aitak laster egin zuen alaba etxeratzeko bidea, oraindik dotea emateko baitzeukan, sarrerako izentazioa izan ezik. Errefel Bordalegik, hala baitzuen aitak izena, gehiago ez omen zuen sosik eramango eta komentuko nagusiek, Don Kastorrek xaxaturik, laster bilbatu zuten Erromalda lotsagarrero bidaltzeko historia, Bordalegitarrak betiko eskarmentatzeko modukoa, Don Kastorrek gero atsekabe plantaz eta azpi azpika nonahi zabaldu zuena, eta hala Erromalda gaizoak, berak ezer ez zekiela, egunsentiko putek baino izen txarragoa ekarri zuen komentutik etxera.

— Egia esateko, jaun agurgarriak, ez nintzen puta horietariko, baina ez mojakumea ere, eta Van Gogh Bordalegitik hain jota etortzen ikustean, errukia eman zidan.

— Ondo egina —aurpegiratu zion Senekak—. Hobe potroak moztu balizkik, badauzkakela emanik. Zertarako gaituk hirukotea? Zertarako diagu zin egina dena denontzat eta bakarka ezer ere ez?

Van Goghek lehenago ere inoiz aipatua zuen Lea, baina Xamelak eta Senekak ez zioten jaramonik egin. Hiritik urrunegi zegok hori. Ez urrunegi, esaten zuen Van Goghek, gaur

zer duk ba hemendik Basagorriakoa, ordubetea hiriburutik hiriburura sartzen baikara? Baina ez zioten jaramonik egingen. Gero Van Goghek pena eman zien, eta min ere bai, eta:

— Goazen hirurok Bordalegira! —esan zuen Senekak, bere bizi guztian irten zitzaion irribarre natural bakarrez.

Senekak Bordalegiko etxe aurrean eupada egin zuenerako, antzina gaututa zegoen. Kateko zakur haundia haien linternazoekin gero eta haserreago zihoan eta Txintxok ere apenas zeukan arrotzei hurreratzen uzteko borondaterik.

— Nor da? —hots egin zuen buru batek goiko leiho txikitik.

— Hemendik joaten al da Basagorrira? —galdetu zuen Senekak.

— Ni joaten naizenean, hemendik joaten naiz —erantzun zuen Leak.

Uste gabea gaua egin zitzaiela, galduta zebiltzala, txakur zaunkak entzutean hurreratu egin zirela, eta halako historiak kontatzen ari zen Seneka, Leak atariko atea ireki zuten, eskuan argiontzia zuela. Kaixo, hemen bera, ez al zeunden ba leihoan, baina Leak gora eta behera laster egiten omen zuen, baita mendian ere, nondik zatozte, eta horri erantzun beharrean, Basagorriko jaietara zihoazela eta mendi itzuli bat ematea pentsatu zutela, baina hor goian, nola du izena gailur txarakatsu horrek, ez dakit non sartu garen eta ez atzera ez aurrera, eskerrak txakur zaunka horiei, guretzat borondate haundirik ez daukatela dirudi baina. Nongoak zarete eta berriro ere Basagorri lagun batzuk dituztela, nongo lagunak?, hauxe duk atso galderatia!, ez, beste lagun batzuk esan nahi nuen, mendira gabe Basagorrira zuzen joan diemakume,renak, baina ez dira basagorritarrak. Leak txakurrak isil erazi zituen, ez baitzegoen han hitzik egiterik bestela, ez daukazue ba txarakan ibilitako antzik, baina katekoa laburrago lotu eta Txintxori ikuilura joateko agindu ondoren, sar barrura, esan zuen Leak. Senekak ez zuen bi aldiz pentsatu eta Van Gogh eta Xamela zalantzan geratu ziren, Leak esan arte:

— Parte txarrekoak bazarete, nire esanak ez zaituzte bidaliko eta ez bazarete, zerbait hartuta hobeto joango zarete.

Laurak sukaldean ziren, eseri hemen, hiri oraintxe ekarriko diat aulkia, ez emakumea, beheko sutondoan ederki nago ni, baina Bordalegin denak altura berdintsuan esertzea antzinako legea zen, erdi ilunetan bazen ere. Beste argiontzi bat piztu zuen eta biekin batera sukaldea poliki argitu zen, elkar ikusteko moduan behintzat, bai argiontzi politikak dituzula, Lea ere eseri zen, politikak edo!, kaletarrentzat edozer duk polita, zuek ere kaletarrak, ezta?

Bat batean Lea zutitu egin zen eta harraskaren kontra atzea zuela, isilik zegoen, denak zeuden isilik, lantzean zurrut moduko bat eginez erdiko mahai txiki biribiletik, gazta eta ogia gozo zeudek, baina isilik, aho kliskadak eta hagin hotsa besterik entzuten ez zela. Leak Van Goghi begiratzen zion eta Van Goghek burua makurtu zuen, Seneka aulkian bizkarka ari zen eta Xamela suari puzka. Leak harraskaren kontratik tentetu eta Van Goghenganuntz bi urrats emanik, esan zuen:

— Hi ez al haiz lehenago ere Bordalegin galduta ibilia?

Van Goghen ordezkariak erantzun zuen, baietz, galduta ibili zela, baina zorionez bidea ondo ikasi gabe geratu zela, orduan ere gaua baitzen, horregatik gaur eguna argitu arte egotea komeni izango zela, baina ez bildurtu, Lea, gau ederra pasatuko dugu, jaietara jaisten ez zaren partez, gazta ona dago, ardoa ederki sartzen da eta gure motxilan badira gauza gozoagoak. Leak apenas Senekarenik entzuten zuen, baina Van Goghi ez zion begirik kentzen, hurrengoan etortzekotan nola etortzeko agindu zion gogoratuz. Van Goghek ere bazuen zerbait gogoan eta zutitu eta Learengana falta ziren oinkadak emanik, belarrira esan zion:

— Ez al zenidan gizonezkoak binaka eta ni bezalakoak hirunaka behar zenituela esan?

— Hori ere gizonezkoa al duk? —galdetu zuen Leak Xamela seinalatuz.

— Laster ikusiko dinagu! —hots egin zuen haundioski Senekak, Xamelari keinu eginez, eta hau berehalaxe biluztu zen gerriz gora, bularrei airoski eraginez eta modelo desfleatzen bezala paseatuz, sukalde erdiko mahaitxoaren inguruan.

— Gerriz behekoa ere erakutsi beharko dun ba, goiko horiek gaur egun edozein gizonezko itxurazkok baitauzka.

Senekak hitz haiek amaituz batera, Xamela gerriz behera biluzten hasi zen, astiro astiro eta sanba erritmoz.

Burua, Lea, burua biluzten ari zain eta laster ez Bordalegirik ez historiari gabe geratuko haiz. Buruz ikasi behar dun, oroimena galduta ere gogoratzeko moduan. Nola zunan Erromaldarena? Azkenean irakurtzen ere ahaztuko zain eta orduan zertarako dun idazten jakitea?

Erromaldaren fama txarra
bere aurretik
heldu zen Basagorrira
eta Basagorritik Bordalegira
begi guztiak atzetik begira
Erromaldak ez zekien zer zen
aitak eraman, aitik ekarri zuen
aitak ere ezer ez zekien
eta halaxe mojei agur egin zien
baina gero apaizek ez zioten begiratzen
frailerik ere ez zen Bordalegiratzen
eta Erromalda ohartu baino lehen
mutilek zeharka begiratzen zioten
ausartenek dirua eskaini ere bai
ez al dun doterik bildu nahi?
Halako neska ederra galdu behar
inork ez nahi haren senar
aita negarrez alaba galdu zuelako

baina beranduegi ohartu zenerako
 ez zioten barkatuko,
 ez zitzaien ahaztuko
 Jainkoak emana Jainkoari kendu?
 Horrek lege zaharrearan urkamendia du
 eta berrian aski da
 neska botatzea sasira
 umerik izango bazuen, sasikumeak izango
 eta senarrak ere sasikoa beharko.
 Bazekien mutilak zertara zetozkion
 jo al dun larrurik aspaldion?
 baina zin egin zuen: Akerrari lehenago
 zueri ukitzen utzi baino
 Basagorritarrek sinestu zutenean
 alperrik zebiltzala haren usainean
 zabaldu zuten, zabaldu zuten
 ikusi ere ikusi zutela
 akerrarekin ari zela.
 Hiregatik ere, Lea,
 horixe esango dinате,
 esaten zidan aitak

— Horregatik, jaun agurgarriok, hementxe nagoen be-
 zala diotsuet, gerriz behera biluzten hasi nintzenean, Learen
 aurpegia akerra bezain transfiguratua ikusten nuela, sukald-
 deko argitasun motelean nire gerizak ormetan zebiltzalarik,
 luzatuz txikituz, zabalduz estutuz, Seneka eta Van Gogh ere
 erritmoan sartuak. Ez dakit berak zer pentsatzen zuen, hor
 daukazue galdetu nahi badiozue, ez zuen hitzik egiten eta ez
 dakit arnasarik hartzen zuen, nik ere ez daukat gogoan san-
 ba liluragarriagorik inoiz dantzatu dudan, beheko sua azke-
 netan, txakurrak kanpoan zaunkaka, etxearen zurajea kirriz-
 kadaka, animaliak ikuiluan aska joka, arranak kilin kalan
 eta gu han, munduak bazenik ere ez zekien emakume bakarti
 baten aurrean alardeak egiten.

— Arrazoa zenuen, emakumezkoa da —esan zion Senekak Leari, Xamela guztiz biluztean.

Van Goghek bi xukadera haundi motxilatik atera eta ma-haia bazterturik, sukaldearen erdi erdian zabaldu zituen, eta sambagilea zisne atsangatuarenak eginez luze bezain zabal etzan zenean, zatozte esanez, ai Lea!, hik ez dakin gauza ona zer den, nola joango haiz mundutik emetasunik leher erazi gabe eta horrelako gauzak esaten zizkion Van Goghek, baina Basagorriko jaiak zirenez gero, ikus zezala, nahi ez bazuen ere, zein ederra den natura, koordinazio pixka bat erantsirik, eta Van Gogh ere biluztu zen eta Leari aurrez aurre esan zion:

— Begira zein gauza ederra galdu zenuen lehengoan.

Xamela eta Van Gogh bi suge bezala trabatu zirenean, dena hanka eta dena esku, Senekak Leari ez mugitzen deskuidatzeko zeinua egin zion, nahi bazuen begiak zabalik, nahi bazuen itxita, baina geldi han, lagun artean, hiru ginen eta lau orain, Basagorriko jaiak noizbait Bordalegi ere bizizta zezaten, Van Goghek ez zuen halako traturik merezi izan, Bordalegiko animaliek egunero egiten dutena eskatzeagatik, ez al dira ba animaliak, natura ondoen interpretatzen dutenak? Leak bazekien hori, baina ezin zion antzik eman aurreko koadruari, Van Gogh gainera pintorea omen, Xamelak aisa menderatzen zuen, nahi zuenean gainera, nahi zuenean azpira, bizia izan ere Xamela, Van Goghek ere bazuen uluak eta ajajak egiteko indarra, kontuz Xamela, gau baterako bakarrik ez gaitun eta.

— Txakur horiek ez al dago isiltzerik? —esan zion Senekak Leari, zeinek ez bazuen hitzik erantzun, Erromaldaz oroitu baizik, hari larrututako fama Xamelarengan ikusiz, eta Van Gogh Xamelaren alua xurgatzen hasi zenean, Leak begiak itxi zituen, mutilaren xurgadak eta neskaren aieneak bakarrik entzuten zituelarik.

— Gauzarik ederrenean begiak itxi? —esan zion Senekak, baina Leari basurdea patatak ateratzen iruditu zitzaion hura eta berriro Van Gogh gainera, patata ahoan zeramala, basurdemea baino ederrago hago Xamela, baina geldi mesedez, ez hadi mugi, euts dezaiogun pixka bat, kontzentra gaitzen, horrelaxe, sanba pixka bat, bat, bi, hiru, oraingoan ez, bat, bi, hiru, oraingoan bai, bat, bi, hiru:

— Aaaaauuuuuuu!!! —lehertu ziren biak, denbora gutxian hots klase guztiak sortuz, gizazkoak, animalizkoak eta haizezkoak.

— Hauxe zunan, Lea! Ez al dun ederra?

Lea babiruka ari da bere zeldan, laura ezin iritsiz, luze etzateko tokirik ere ez, hi al haiz Xamela, norbaiti mirilan erreparatzen badio. Lur pixka bat zuzendari anderea, lur pixka bat ministro jauna, lur pixka bat bakarrik, inor gorago baldin badago. Ez dut askorik behar, ez dut ihes egingo, lehen ere aukera izan nuen, baina badakizue, ni hemendik Bordalegira ala inora ere ez, lur zatitxo bat bakarrik eskatzen dut, lur zatitxo bat lan egiteko, dena zuentzat egingo dut, ez dut dirurik behar, ez dut ezer behar, baina nola kendu didazue lana? Lur zatitxo bat, animalia batzuk zaintzeko lain, haundiak ez badira txikiak, txikiak ezin bada, bat bakarra, ahuntza besterik ez bada, ahuntz bat eta lur puntatxo bat. Gehiegi eskatzea al da, ministro jauna, usteltzen banaiz ere lurrean ustel nadin? Lur puskatxo bat, Bordalegiko historia ehortzi ahal dezadan ere.

Erromaldak benetan esan zuen akerrarena ez al da bera maitalerik ederrena?

Basagorriko neskak, denak bortxatuak
etsipenez ordaintzen Erromaldaren pekatuak
Basagorriko mutilak, denak irrikitzen

ama birjina besterik ezin maite baitzen
haien gozamen nagusia moja ohia larrutzea
hitzez bakarrik ordea, hau duk hi gurutzea!

Ez zegoen Erromalda desio ez zuenik
baina, aluak!, oraintxe esango dizuet nik
zer den natura eta zer den lotura
eta akerrarekin joan zen bortura

Nor da Basagorrin gizonezkorik
animaliekin nahasi gabekorik?

Hortxe hustutzen duzue zuen lehia
astoa ez bada behia
behia ez bada oiloa
edo ametsetako zuloa.

Erromalda ere bada zuek aina
abildade pixka bat behar baina
eta akerrari lan berria irakatsi zionean
hura gozotasuna gizonezkoen aldean
eguna lanean, gaua oihanean.

Gure aitak esaten zuen
animaliek edozer ikasten dutela
baina aizan Lea, ez hadi izan tentela
maita ezan akerra
baita senar ederra

Eskerrak gure aita garaiz hil zela
tristurak hilko baitzuen bestela.

— Tristeia da, jaun agurgarriak, neure abokatutza honela
estrainatu beharra, baina beroien belarri gurenentzat min-
garriegia ez bada, gertatuak kontatzen ari naiz, nire defen-
datatuak, zoritxarraren misterio ikergaitz horietarikoren ba-
tengatik, agertu ez dituenak. Galde ezaiozue berari nahi ba-
duzue, baina nik galdetzen dizuet: Zer egin behar zuen, bere
sukalde mendetsua bat batean halako bortxazulo bihurtuta
ikusirik?

— Orain hiri tokatzen zain, Lea —esan zuen Senekak.

Leak atzeruntz jauzi egin zuen, tximinitik gora ere pentsaturik, baina hirurek heldu ziotenean, txakurren amorrua alperrik zen, biak buruak leihoko burdina artetik sartuak, baina gorputzak kanpotik, ezin zuten ezer egin zaunkaka lehertu besterik. Lea etzan erazi zuten, animalia hil mahaian baino astrapala haundiagoz, lasai Lea, gerriz behera erantzi zuten, gona goruntz jaso eta bide batez burua sujetatzeko baliatuz, oinetakoak kendu beherrik ez zegok, baina Seneka bai, hura oso osorik biluztu zen eta azken puntzetada hartutako zezena bezain itsuan erori zen Learen gainera, beste biek eusten ziotelarik, baina ez haut nolakoa haizen ikusi, Seneka Learen hanka artean belauniko jarri zen eta huraxe zen ba Basagorritar guztiek, apaizak barru, noizbait ikusteko gogoia izan zutena, zila eta zilpekoa, noiz garbitu dun azkenengoz?, latza eta gogorra, trikua bezalakoa, Senekak eskua pasatu eta sudurrera eraman zuen, oraindik ez zegok hain pasatua, baina pasatuko zen, kontenplazio gehiegitan bazebiltzan, Senekaren oldarra pasatuko zen eta hori datorrenean bota behar dun, ez noranahi, ez noski noranahi, Seneka guztiz jabe baitzen huraxe zela Learen estrainaldia, Van Goghek ere zeloak hartzeraino, baina orain berandu zen, Seneka zen guztia luzatu baitzen. Ez zen lan erreza, bai ordea ederra, barka ezan Xamela, baina hiregan baino natura gehiago zegona hemen, pixka bat laguntzen badidan. Xamelak Learen hankak zabaldu eta belaunetaruntz doblatu zituen.

— Orain baaaiii! —orroe egin zuen Senekak, min ere hartuko zuen eta. Ohiko perkusioa martxan jarririk, lehenbizi astiro eta kontuz, gero bizkortuz, azkenean mailuketa frenetikoaren zera.

— Buka ezak egitekoa! —kexatu zen Van Gogh, eusten nekaturik, bera ere indarrak hustu berria izaki.

— Aaaaauuuu! —ulu mortala bota zuen Senekak, esteak ere deskargaturik eta txakurrak isiltzeraino.

— Ez al dun ederra izan, Lea?

Aluzinatzen ari haiz. Zer dion, Lea? Zer dun ederra? Zer kantatzen ari haiz? Leak gora eta zoko guztietara begiratzen du, baina azkenean zerbait ikusteko, leihotzarrera begiratu behar beti bezala. Nor da? Handik ez dago inor. Mirilatik begiratzen du, baina barrutik kanpora ez dago ezer ikustetik. Nor da?, atea joez. Hortik ere inor ez dagoela dirudi. Orduan ez dago inor inon. Aluzinatzen ari haiz, Lea. Ederra dun, baina medikurik alarmatzerik ez zain komeni. Ez dago inor.

Nortzuk ditun horiek, galdetu zuen aitak
Basagorriko mutilak, erantzun alabak
Basagorriko mutilak goizaldeko orduetan
Bordalegira datoz erromeritik bueltan
tobera jotzera, nori eta zergatik
Erromaldari akerrarengatik.
Baina hura ez uste atzeratu zenik
atarira jaitsi zen zuzen zuzenik
Ez al duzue zer jorik tobera besterik?
Ez al duzue, gizajook, gogoia non husturik?
Zatozte eta ikus, ikus eta konta
nola maite nauten bekaitz guztien kontra
eta mutilak atzetik zeramatzala
Akerbordara abiatu zen gauero bezala
eta han denak begira zituela
ez omen zuen halako gozorik hartu sekula
eta orain joan eta jo eta mojei ere esan
zer misterio ikusi duzuen akerraren mezan
eta hurrengoan mesedez Don Kastor ere ekarri
Erroman jakin dezaten Bordalegiko berri.

Gau hartan txakurrak eta arranak ziren Bordalegiko toberak eta nola jo ere eta nolako zaunkak egin ere, Senekak motxila zaharretik xiringa miragarri hura atera zuenean, Lea sutondoan zegoela, burua hanka artean, gogoa blokeiatu eta hezurak lekuan nabaritu ezinez.

— Ez dun pozoina Lea, ez al dun ikusten geure xiringa beretik ari haizela?, honek lasaituko hau eta ikusiko dun zer den natura mila bidertua, Xamelak azken tantaraino sartzen ziolarik. Argitzen ari da, badoa iluna, deslaintzen ari da, hau gardentasuna, eta hirurak algaraka hasi ziren, barrea goitik, barrea behetik, barrea ukondoetatik ere, eta Lea ere zutitu zen, ezin baitzen egon, leihora abiatu eta txakur burueri zaunkaka ekin zien, animaliak izuturik baztertzeraino eta azkenean sutondo barruan tente, burua laratzean gora eta esku biak ahoan, Bordalegiko adarra jotzeari eman zion, tximini zulotik ilargia pasatzen ikusi arte.

Gelan hiru oinkada eta patioan hogeita hamar. Batentzat nahikoa, bakarrik izan ezker, baina ministro jauna, laubosna metro koadratu apenas tokatzen zaigun eta gainera denak denean. Hi al haiz Erromalda? Xamela esan nahi izango huen. Ez! Erromalda! Xamelak hila behar din, Erromalda bizi dun, eta berriro zeldaratzean, kantatzeari ematen dio.

Ez zegoen dudarik, garbi zegoen
nola Erromaldak akerra maite zuen
Biltzartu ziren herriko indarrak
mundutarrak eta zerutarrak
eta mutil saila bidali zuten
Erromalda atxilo ekar zezaten
Joan ziren eta egin zuten galdea
Non da akerraren maitalea?

Baina hura aldendua zen, nora?
Ibaian behera edo oihanean gora
Akerra ekartzeko agindu zuten, goazen!
Joan ziren eta hura ere falta zen.
Topatu zuten bakarra
gure herenaitona zaharra
atarian negarrez makurrik
alaba eta burua galdurik.

Van Goghek Lea sukaldeko atean pintatu zuen, gorputz erdiz behera, besterik ez baitinat ikusi, biluzik bera eta biluzik pintura, bularrezur ingurutik ebakia, hortik gorakoa gero osatuko dinat. Orain Lea, etzan hadi mesedez, nik ere badinat Senekak aina eskubide, bigarrena izatean onena galdu badinat ere, eta Lea laratz eta guzti arrastatu zuten tximini-petik sukalde erdira, lehengo eguneko belarrondokoaren ordainez, esan zuen Van Goghek, goiko orma erloju zaharrak gauerdiko hamabiak jotzen zituela, denak errezkadan eta nobedaderik gabe. Van Goghek, Seneka baino iharragoa zela, neurri gabeko zakila zeukan eta ernagarria oraindik odolean zuela, Lea estali zuenean, aurreko guztiak huts iruditurik, azken kolpeari eusten ari zen, honelakorik ez diat gehiago harrapatuko, baina destinoan hala idatzita egongo baitzen, leihoz kanpotik zaunkaketa urragarrian ari ziren bi txakur-rretariko bata, Txintxo alegia, esplikatzerik ere ez dagoen moduan, burdina artetik pasatua zen eta inor ohartu aurretik, zazpi lekutatik hortzak sartuak zituen, Van Goghen larruan batez ere, eta bat bateko zalaparta hartan, eraso kontrolatzen hasterako, Lea aldendua zen sukaldetik, txakurra atzetik zeramala.

Joan zen komentura gizona
alaba moja izana
Non da gure etxea desfamatu zuena?

Kalonje haundi bat baratzean
morroiak lanean, hura otoitzean
Aitaren egin zuen agurea erreparatzean.

Don Kastorrek irribarre airosoa
Zer duzu Errefel gaizoa?
Agertu al da Bordalegiko usoa?

Ez da oraindik agertu, jauna
horrexegatik nator berorregana
atsekabea egin dezagun erdi bana.

Tiratu zion besterik gabe
Ez zen berehala erori hilda ere
Zeruan bahaiz, otoi gure alde.

Bere burua ondoren
hil zuen ahalik ondoen
Ikus dezagun zeruan tokirik dagoen.

Baratzeko bikondoaren zabala
haren hosto zabalen itzala
norbaitek, otoi, hilak lurpera ditzala.

Bikondoak bakarra alea
ez naiz Erromalda, ni naiz Lea
aitari entzundakoen kontatzailea.

Hiru arrotzak alperrik zeuden Bordalegiko sukaldean. Xukaderak batu, soinekoak jantzi eta hurrengoan etorriko gaituk gaurko lanak amaitzera. Kateko zakurrak ate osoa hartzen zuen, zaunkaren zaunkaz hortzak eta bitsa zeriola, toki txarrean hago gizajoa. Van Goghek labanada batez tri-pak eta txilioak airean utzi zizkion, hik ez duk ihesik egingo. Nondik etorri gaituk? Hortik uste dinat. Atera linternak. Hau iluna!

Etxe kantoian goruntz hartu zutenean, hego haizeak Ba-

sagorriko musika hotsa Bordalegiraino zekarrela, zizparen bi tiro haiek ez ziren urrun joan. Van Goghen eta Senekaren paparretan lehertu ziren.

— Eta ni, jaunak, libratu! Linternadunei tiratu zien eta berriro kargatzerako, aldendua nintzen nora eta nola ez da-kidala, eta hemen nauzue bizirik, hilek aina merezirik. Jaun agurgarriak, hauexek dira egia garbiak eta neure burua gal-tzeko bada ere, dudarik ez daukat hauzitegi goren honen zu-zengintza ezin jatorragoak legezko aringarri guztiak aplika-tuko dituela nire defendatuaren alde eta hala ere zerbait zi-gorgarririk badela juzka balezate, ez al da nahikoa, jaunak, orain arteko gartzelaldia ere?

— Ba al daukazu ezer alegatzekorik? —galdetzen dio epai-buruak Leari.

— Bai, jauna. Dena da egia, bortxaketena izan ezik.

— Ez zintuztela bortxatu esan nahi al duzu?

— Nahi izan zuten, baina hil egin nituen.

— Zer diozu, Lea? —hots egiten du Xamelak harri eta larri.

— Utziozu, emakumea —epaiburuak—. Berak jakingo du hori inork baino hobeto, ezta?

Bordalegitik mendira
usoak aldendu dira
zurien eta beltzen artean
berriro sua ari da.

Hau gerraren gerrarena!
Nork daki zenbatgarrena?
Etxea zazpi bider erreta
azkenengoa txarrena.

Agur amaren alaba
Aita badoa gerrara
Bordalegiko suari eutsi
hura itzultzen ez bada.

Joan zen eta han hil zen
semeen hilotzak biltzen
Bordalegiko suari puzka
bakarrik geratu nintzen.

Kontuan izanik (hau eta hori eta bestea)
Goren Hauzitegi honek
Lea Bordalegi Orreagaren
lehen epaia berrikusirik,
azken epaia honela uztea erabaki du:
Hamar urtetako presondegia
Van Goghen hilketarengatik
eta hamabost urtetako presondegia
Senekaren hilketarengatik.

Egunsentia! Itzal argiontziak! Bordalegi gaineko mendi ostetik eguzkia ez da urrun. Erdiek uste dute beste erdiak mozkorturik daudela eta beste erdiek ere berdin. Hau duk adostasuna! Mundua honela balitz, ez lukek gerrarik, baina ez gaude hain mozkor, denok zutik baikabiltza, ibili bai, ez egon. Basagorriko izpiritu guztia Bordalegin dugu, ihintza izan ezik. Horrentzat ez da non pausaturik izan.

— Joanari begiratu ere ez, Lea —hots egiten du Kirriñok. Txankanek adarra, Luzianak uhu, Martolok zantzo, basagorritarrek dantza eta zahagi zimelak azken tantak ematen ari direla, Xamelak Leari esaten dio:

— Aizu, Lea. Beharbada gehiago ez dugu elkar ikusiko. Ez dakizu zenbat estimatzen dizudan zure itzulerako afarian ni ere egotea nahi izan duzulako, baina kezka bat adierazi gabe ezin dut Bordalegitik alde egin.

— Bota.

— Zergatik ukatu zenuen bortxaketena?

— Gezurra zelako.

— Zer diozu, Lea?

— Horretan neure berri jakingo dinat, eztun?

— Baina Lea! Xamela nauzu gero!

— Eta ni Lea. Hura ez zenuten bortxatu. Galde bestela hilei.

— Ez dut ulertzen.

— Ez daukan beharrik ere. Horrexegatik zeudena hilak hire lagunak.

— Zeuk jakingo duzu. Musu bat agurtzeko?

— Nik ez dinat behar, baina hik behar badun, utziko dinat.

Eguzkia agertu da. Horixe zen epe minimotzat jarrita genuena, eguzkia irten arte alegia. Hortik gora libre, baina Kirriñok mahai gainetik eupada eginik, esaten du:

— Lagunak! Nahikoa izango da, ezta? Nahi duenak segi

dezala Bordalegitik aparte. Utz dezaiogun emakumeari banean, baina amaitzeko, pare bat hitz eskatu nahi nizkioke Leari, denon agur moduan.

Hitz hauen ondoko txalo zaparradan eguzkia ere mugitu egin dela iruditu zaigu. Leak, dagoen lekutik, denok inguruan, esaten du:

— Hitz bat izan balitz, eskerrikasko esango nuen, baina pare bat eskatu dituenez gero, eskerrikasko bihotzez. Berriro Bordalegin. Ez izan nire kezkarik. Tximinitik kerik ageri den bitartean, Lea bizi da. Egunen batez kerik ikusten ez baduzue, orduantxe etorri bila.

Zenbat denbora duk Lea gartzelatik etorri zela? Zenbat esan duk? Gehiago izan behar dik. Ez gehiago, gutxiago baidzik. Gehiago duk ba. Mundua hasi zela ere zenbat denbora duk ba? Nahi dukana, baina jokatu dio diat... Hago isilik!

Honelakoxe eztabaidak izaten genituen Basagorrin eta denborarekin gartzelan zenbat denbora egin zuen ere ahazturik geunden, presondegiko kontuak errez ahazten baitira, inorenak direnean. Baina apenas ahaztuko zaigun Bordalegiko tximinitik kerik ageri ez zen egun hura. Arrapaladan abiatu ginen, oraindik bizirik harrapatuko genuelakoan, baina ez bizirik ez hilik. Etxea eta etxalde guztia arakatu eta ez genuen inor topatu. Basagorritar guztiok mendietara, itsasoetara, ibaietara eta haitzuloetara banatu ginen, eta lorratzik ere ez. Hila izan balitz, hemen agertu behar zian nonbait, baina azkenean etsi genuen. Kateko animaliak askatuak ziren, kaiolabereak libre zebiltzan, ate-leiho guztiak zabalik, sukaldea ordenan eta sutondoa garbi garbi. Hauek ez dituk hil aurreko lanak, esan zuen Kirriñok.

— Agertu al da Lea? —galdetzen genuen egunero. Gero haurrek bakarrik galdetzen zuten eta azkenean inork ere ez. Honezkero hura ez da agertuko.

Lea ibai izena da. Ibaiak ez dauka emea izan beharrik, baina gutxiago arra. Kasu honetan Lea da protagonista nagusia. Ez da ibaiaren sorburua, iragan luzearen hondarra bait dakar hondoan. Ez da iritsiera ere, urak joanean uzten bait ditu, desagerpenaren irekidura mugagabea. Bitartean emakume honen izaerak agresio arrotz bat jasan du —agresio guztiak arrotzak direnez aparte— eta erantzuna erabatekoa izan da, naturarena bezalakoa. Bi hilketa esku artean dituela, badirudi natura bera ari dela, aurrea eman beharra tokatzen zaion laberinto berri guztian, eta natura ari denez gero, Learengan ez dago espekulaziorik, uren abio naturala baizik. Bakean uzten badiote, bizi denik ere ez. Erasotzen badiote, urjauzia bezain oldarkorra.



ISBN 84-7529-263-1



9 788475 292632